

Jean Etxepare Landerretxe

**MENDEKOSTE
GEREZIAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Inazio Mujika Iraola.

Iturria: *Mendekoste gereziak*, Jean Etchepare (Inazio Mujika Iraolaren edizioa). Erein, 1991

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00356.htm>

Gerezi Heldu

KURUTZE GORRIAK

Mutiko gaztea Tolosako garan jautsi zen. Negua zen. Iluna: arratseko zortziak eta erdiak.

Harekilan batean jautsi zirenek lekuak hustu zituzten. Batzu oinez, bertze batzu otobuzean. Zonbaitek taxi batzuen gainean pausatu zituzten beren puskak, otoaren barnean sartu eta airez-
aire joan. Lau taxi joan ziren bat bertzearen ondotik.

Mutiko gazteak bere baitan egin zuen aberatsa izan behar zela hola oto baten hartzeko. Eta nolako otoak! Denak berri-berriak, azken urte hootan ateratuak: *Versailles*, *D.S.*, *Ariane* eta holako.

Gaua hotza zen eta zerua iluna. Argizagia doi-doia ageri zen, lano batzuen erdian itoa.

Hiriko argiak aspaldian piztuak ziren ordukotz. Argi xuri eta hori trixte iduri gau ilunaren erdian. Argizagiaren distira ahula betetzen zuten. Erran zitaken izarrak, gau hotz hortan,

lurrerat jautsiak zirela etxen artean beroki zer-baiten bila.

Bainan fite ageri zen hiri handi batean sartua zinela. Argi gorri, perde eta blu batzuek argitzen zituzten ostatu, kafe eta zinemetako aintzin eder-rak.

Jente guti zabilan kanpoan tenore hartan. Hotzak ihes egin arazia zuen deneri. Oraino kanpoan zirenak zalu-zalua zabiltzan, ontsa estaliak. Otoan sartzen ziren eta leku hobeko batetarat zoatzen.

Zinemako tenorea hurbiltzen ari zen. Zonbait gazte, biranazka, hozpilduak besoz-beso, ixil-ixila iragaiten ziren.

Mutiko gaztea garako aintzinean zagon. Ez zakien sobera zer egin, norat joan. Hirietako usaia poxi bat ukanik ere, orai hiri arrotz hortan sartzeak norapait harriturik utzia zuen.

«Hortxeko ostatu hortan sartu behar duta? Zer tenore da orai? Bederatziak hogoitabortz guti! Eta hotza! Ez duk aro, lekuaren gainean egoiteko! Amak bi ogi-zerraren artean xingar eta arroltze emana dait. Ostatu hortan ganbara bat hartzen badut gau huntako? Ontsa atera ninta-

kek: ganbera berotua. Han berean janen diat ene jateko puxka, afari erosten arizan gabe.»

Hantxet zagon mutikoa gararen aintzinean, eta bortz minuta jautsia zela, denbora biziki luze kausi-tzen zuen. Bere baliza handia sahetsean zuen, ontsa betea. Aluminioezko baliza zilar kolore bat, berri-berria partitzeko eresia.

Hor egongo ote zuena mutiko gazteak, hotzak joa, hormatua, ezpainen higitzeko kalapiorik gabe? Nehork ez zuen esperantxa gararat, berak behar zuen lekurat heldu.

Alta ez zuen xoxoa iduri: begiak erne zituen, begitarte beltz, mehail eta idor, treinean egina zuen bide luzeak poxi bat akitua menturaz. Bilokak labur moztu berriak zituen. Partitzeko...

Kaxineta gorra bat lepoaren inguruan itzulkatua, gabardineko kola altxatua, hor zagon gogoetan. Ontsa emana zen bainan deus esparturik gabe, xinpleki. Haatik zapeta punta luzeak zituen, beltzak, eta gal-tzerdi zuhailak. Hiritar aire poxi bat bazuen menturaz...

Andere handi bat, zigarret bat ahoan garatik atera zen, zalu-zalua, azantz bat eginez bere zapeta aztal luzekin. Manto horail zabal bat soi-

nean zen, baliza pizu bat eskuetan. Ez zuen nehoen beldurrik, etxean bezala zen...

Lehen taxiaren ondorat joan zen. Gizona berehala ototik atera zen eta emaztekoa ordukotz barnean sartua zen, borta idekia utzirik.

—*Le Capitole!* —erran zuen motz-motza emazte gazteak.

Gizonak baliza altxatu zuen, borta hetsi eta otoan sartu. Tiroa bezala joan ziren, zubi ttipi batetarik harat.

«Ez ahal dituk taxi horiek hoin kario. Nor nahik hartzen ditik. Denak etxean bezala dituk, deusen beldurrik gabe. Nehor ez diok ni bezala dudan. Fite egiten ditie gogoetak. Ez duk zozo egoiteko tenorea. Nihaur gelditzen nuk gara hunen aintzinean. Denek badakie zer egin, norat joan. Ez dituk gelditurik galduak bezala, pentsaketa egoiten. Ez balin badakite biderik, taxi bati hel egiten die, menturaz ez aberatsak izanik ere. Eta habil gibeletik! Ez dik sosari kasu egin behar. Sosak guk manatuak egin behar ditik. Hola behar diat jokatu, hobeki helduko nuk menturaz. Bainan mila libera eremaiten badazkate hola dudan hoi ondoan ikusirik! Herri ttipi, galdu

batetarik heldu nizala pentsatuko die menturaz jadanik. Anitz sosekin nizala hasteko... Urrun joan behar duta? Oix-tiko español harek treinean erran datak aski urrun gauzez bide haren egiteko, holako hotzarekin, egundaino zangorik eman ez den hiri batean».

Delako español harekin jina zen Baionatik Tolosarat. Bide erditan bakarrik gelditu zirelarik barne berean, eleketa hasi ziren. Mutiko gazteak ordukotz lanetan, ixil-ixila, behako batzu emanik ziozkan bidean. Hogoitamar urte ukan behar zituen Español harek. Biziki xuhurki jauntzia zen, krabata zikin batekin. Atorra xuri izanik han-hemenka ubeldua, lepo itzulia higatua, bizarrari kontra jana aintzinean.

Tolosarat arribatzean Españolak erakutsi zuen mutiko gazteari zoin kartierretarat joaitekoa zen. Leku ilun bat, kasik argirik gabe, karrika hertsia, etxe apal batzu, zaharrak, murrak zartatu eta hala-hala utzia.

Mutiko gazteak español hitz batzu ezagutzen zituen. Bertzea ez zen batere frantsesean ari. Mutiko gazteari iduritu zitzaion Español hura bere arrebaz mintzo zela, Tolosan kokatua aspal-

didanik. Harenganat zoon. Esku idor batzu zituen, aitzur eta palaren ibiltzen usatuak. Ez zakien zer lanetarat heldu zen. Gerokoaren esperantxan partitua zen. Lehenago ere arreba-
ren ikusten izana zen Tolosan eta hiria ezagutzen zuen.

Mutiko gazteak eskuara bazakienez galdu zion eta hitz batzu atera.

—No, no! Sevilla... No conosco la lengua vasca! Vasco?

—Si, si, vasco.

Españolak, Españako karta bat atera zuen moltsatik eta bere sor-hiria erakutsi:

—Aquí, Sevilla, la ciudad más hermosa de España.

—Si... mi, aquí... cerca de Baiona, Mougere... —egin zuen mutiko gazteak, erhi bat bularretan emanaz.

Eskualdunak zigarret bat eman zion treinean eta bertzeak gogotik hartu zuen.

Mutiko bat gararen aintzinean kausitu zuen Españolak. Eskuak tinkatu zituzten egin ahala eta tarrapataka españolez hasi, nehorri behatu

gabe, dena irri eta alegantzia, batek bertzearen sorbaldak batzuetan joz esku pizu batez.

«Eta ni oraino hemen. Zer ari niz? Ostatu hortan sartu behar diat. Berdin bihar goizeko zortziak eta erditako diat galdea. Orai berean harat joaiten baniz ez nie menturaz errezebituko. Aitak erran daitak sosari kasu egiteko, ez zautala aste guziez igortzen ariko. Ontsa ibiltzeko! Sosa... Sosa... ez gituk gero ere goseak hilen. Jan-edianak, jauntzi eta etzanak kitorik ukanen ditiat... Are, zerbait egin behar diat...»

Bezperatik joana zen etxetik, gaua nunbait pasatuko zueslakoan esperantxan; garan ostatu batean eta joan behar zuen lekuan, han errezebitu nahi bazuten bederen.

Biharamunean partituz ez zen Tolosan hel-tzen ahal behar zuen tenoreko. Zortziak eta erditako zuen galdea eta tenoreko xuxen nahi zuen lekuan izan. Ez zuen nahi lehen egunetik beretik gaizki ikusia izan zadien. Aitak ere errana zion hobe zuela goizegi ezinez eta berantxe.

Soldado aintzindari bat gararen aintzinean ikusi zuen harat eta hunat zabilala. Norbaiten beha araiz. Eta ordu berean mutiko gazteak egin

zuen horri galdatu behar zituela zombait xehetasun.

Baliza eskuetan hartu zuen eta gizona haren ondoan iragana baitzen, gibeletik joan zitzaion.

—Barkatu jauna!

Aintzindariak irri ezti bat egin zuen erranez:

—Are puttil, habil!

—Erraiten ahal dautazie, otoi, nun den *Hôpital Militaire Larrey*?

—*Hôpital Larrey*?... Bainan ni ere harat noa!

Biak sartuko gira nahi baduzu.

—Oi, gogotik jauna! Lehen aldia dut hiri huntan jausten nizala.

—Pentsatzen dut. Dudan zinaudela ohartua nin-tzan.

—Oi, ba jauna! Ez nakien ostatu batean pasatu behar nuenez gaua ala ospitaleraino joaiten ahal nin-tzen.

—Noizko duzu galdea?

—Bihar, zortziak eta erditako.

—Aizina duzu. Bainan joanen gira elgarrekin nahi baduzu. Menturaz gau huntako onartuko zituzte.

—Gero ere ostatu ttipi zombait baditake ospitale inguru hortan?

—Oi, ostatuak, nunnahi atxemanen ditutzu Tolosan. Bainan kasumazu nun sartzen ziren! Hereneguneko hiltze hori hauteman dukezu?

—Ba.

Gizon tipito lodi bat zen, soldado arropan. Indoxinatarra, izan behar zen begitartearen arabera. Bainan ez xinatar garbia! Frantses edo Europano odola bederen ukan behar zuen. Beltz aire bat bazuen haren larruak. Ez zuen xinatarren larru hori leguna, begiak ez zituen hain ttipi eta luxe. Mutiko gazteari iduritu zi-tzaion buru bero zombaiten aintzinean zela. Gizona gradatua zen. Bainan mutil gazteak ez zituen oraino graduak ezagutzen. Gabardinaren sorbaldetan burdin hori batzu ekartzen zituen. Hortarik egin zuen gizon hori ez zela nornahi. Halere gaixtagin baten eite gehiago bazuen, jaun handi baten baino.

—Adixkide batzuen beha nago. Beranta bil beldur bazira, zubi ttipi hori pasatzen duzu eta xuxen-xuxena karrika eder hortan sartzen zira. Karrika horren buruan plaza handi bat ikusiko

duzu, *Le Capitole*. Ardurenean zernahi oto bada han, gau eta egun. Ez duzu tronpatzerik! Oraino karrika hori bera segitzen duzu eta gero... gero...

Eskuak zabalik keinuka ari zen gizona, bide bat hartu behar balu bezala... Esku ttipiño batzu zituen, hamabi urteko haur baten erhiak, dena hezurra. Ukai mehe bat, ziria bezain idorra.

—Gero... gero... Eskuin hartzen duzu... *Le Capitole* zinema... Bidea segi? Ehun metra —ari zen gogoetan bere buruarekin.

—Urrun dea jauna?

—Oi, bai, aski urrun da, guziz gauaz egiteko hiri arrotz batean! Bertzenaz ez duzu bide tronpatzerik. *Le Capitole* hartarat heltzen zirelarik askiko duzu berriz galdatzea. Denek ezagutzen dute ospitale hori. Tolosako ospitalerik handiena da naski... Bainan denak soldadoak dira... Ene beha egon nahi baduzu, elgarrekin taxi bat hartuko dugu. Zuharek ikus, eh. Berrehun liberako bat izan behar da haraino.

Gizonak ez zuen hain makurra iduri.

—Gogotik jauna! Zure beha egonen niz ez bazitut bederen jenatzen edo makurtzen...

—Oi, batere! Emazu hortik! Adixkideak ikus eta libro niz.

—Eta gero zurekin sartzeko ez niz beldur — egin zuen mutikoak halako irri jenatu bat ezpainetan.

Aintzindariak irri egin zuen burua gabardineko kolaren barnean. Ez zuen iduri leporik bazuela. Hain zuen buru handia, nun sorbalden gainean pausatua iduri baitzuen. Eskuak sakelean zagon hoztua.

Ixtant baten buruan mutil gaztea hiriari so zagolarik, bi gizon hurrandu ziren aintzindariaren ondorat. Bat soldadoa zen, gradatua, larru xuri-xuri batekin, erhiak hezur eta larru, aho bildu batekin mintzo. Eta bertzea zibilean, xapela buruan, beltza zen, gizon ikaragarri bat. Beltz hunek begitarte propria zuen. Ez zuen frango beltzek bezala sudurra matatua, lehertua. Denak eskuak sakelan zauden.

—Agur ene Axuranta! —erran zuen soldadoak xinatarrari.

—Agur *Sergent Trapier!* —ihardetsi zuen hunek.

—Agur Manbo!

—Agur ene Axuranta:

Eskuak tinkatu zituzten. Mutiko gaztea ahanzia bezala zuten.

Gero Axurantak erran zuen bere adixkideri:

—Hara mutil gazte bat, Larrey Ospitalerat doana! Lehen aldia du Tolosarat heldu dela. Hala erran daut oixtian bere baliza eskuan, gibeletik jin zaut bulta bat dudan egonik. Eta nihaur ere Ospitalean sartzen bainiz, sarri elgarrekin joanen girela hitzeman diot.

Bi gizonak mutiko gazteari beha zauden Axuranta mintzo zelarik.

—Urrunetik heldu zirea, ez baniz sobera ausart? —galdatu zion sardiantak.

—Baiona ondotik.

—Oi, Baiona! Zer hiri alegera! Hango jendea, ene Axuranta, zoin goxoa, berehala adixkide! Klasak Baionan eginak ditut, hango kasernan. Ezagutzen duzuia, jauna, *Le Bar des Amis*?

—Ba, ikusten dut nuntsu den, eta hartako doia sartu ere naiz.

—Ateratzen ginen aldi bakarretan han jaten ginuen. Ainitz soldado biltzen da ostatu hartarat.

Ahoa bilduz mintzo zen soldadoa, dena sinfonia, dena keinu. Hura ere bulegotako soldado zombait, handi, eskuak paperretan, pentsatu zuen mutiko gazteak. Ez ahal zuen, zen lekuan, euri eta iguzki handirik ikusten.

Beltza ixilik zagon, norapait so.

—Beraz adixkide maiteak, zerbaiten hartzerat gomitatzen zituztet hiruak. Aizina duzue? —erran zuen Axurantak.

—Oren erdiño bat badugu, ene Axuranta.

—Beraz orai berean goazen, sobera berandugabe.

—Ez dugu zure gomita errefusatzeko ahal —erran zuen beltzak—, ohore egiten daukuzu!

—Goazen! —erran zuen Axurantak, eskuz hari jarraikitzekeo keinu bat eginez— gero utziko zituztet zuen maiten ikusterat joaiterat.

Mutiko gaztea bere baliza eskuan jarraiki zitzaioten.

Axurantak zubi ttipi hura pasatu eta ezker hartu zuen, denen aintzinean ibiliz. Ostatu eta kafe andana bat bazen bat bertzearen ondoan. Batere dudatu gabe borta bat ideki zuen. Kafe

hura ezagutzen zuken. Ez zuken lehen aldia hor
sartzen zela.

Denek beren gabardinak kendu zituzten, bel-
tzak bere xapela, soldadoek beren bonetak.
Eskualduna buru has zen.

Mahain baten inguruan jarri ziren, elgarri
begi kolpe eman eta ixtant bat ixilik egon.

—Zigarret bat? —egin zuen Axurantak.

—Barkatu ene Axuranta —erran zuen bertze
soldadoak zigarret bat hartuz.

Bertzek ere bedera hartu zuten.

—Mutil! —oihu egin zuen Axurantak.

Gizon zahar koskoildu bat hurbildu zen, alko-
olak zarkaildua, itsustua, bortiztua.

Denak dudan zauden, bat bertzeari beha.

—Kafe beltz bat —galdatu zuen beltzak.

—Nik zitroin jus bat atsegin nuke —zion Tra-
pier Sardiantak.

—Oi, denek eri batzu iduri duzue! —egin zuen
Axurantak.

Irri epel bat jauzi zitzaioten bi adixkideri, eta
deus ez erran.

—Eta zuk, gure lagun berria, zer hartuko
duzu?

—Kafe bat —ihardetsi zuen berehala mutiko gazteak, itsurat, ez nahiz dudan egon; uzkur bezala. Alta bazakien gero ezin lokartuz ari beharko zuela.

—Ai! Ei! Ai! —egin zuen Axurantak burua puxka bat itzuliz— Beraz mutil, ekarkitzu bi kafe, zitroin jus bat eta, Jesus, *cognac* bat enetzat!

—Barkatu jaunak, dizka ezartzen dut.

Manbo xutitu zen eta musika untziaren ondorat hurbildu.

Ixtant bat dizka izenari beha egonik, hiru diru peza sartu zituen beltzak eta hiru botoin zapatu.

—Zer ezarri daukuzu? —galdatu zuen Axurantak.

—Gondolier!

—Eta gero?

—Gondolier hiruetan!

—Gostu oneko gizona eh!

—So egizu, ene Axuranta, Gondolier biziki gustatzen zaut. Kantu hori entzutearekin bihoztzean halako trixtezia goxo bat senditzen dut.

—Oroitzapen bat?

—Berdin.

—A! ah!

—Aipatuko dautzut. Ene herrian, han Afrika bel-tzean, gaitzeko euriak egiten ditu bultaka...

—Eta gero?

—Eta gero? Zaude emeki! Gero oroitzen niz, ba-tzuetan, lagun batzuekin erreka kozkor bati behera untzixka batean gindoalarik, bat-batean euria hasten zitzaukun. Oi, euria, burrustan. Ez ginuen ez halere deusen beldurrik! Hango bizia da, hori. Eta gu ere, frangotan untutsik, soineko arin batzuekin. Eta oroitzen niz, aldi batez gauza bera gertatu zautala neska gazte batekin nintzalarik. Lanjerrean ere halako zorion goxo bat senditzen da. Nik untzixka batean urean ibiltzea maite dut... Eta neska gazte haren potreta nahi duzue ikusi?

—Ez bazira makurtzen...

Manbok potreta bat atera zuen bere moltsatik.

Neska gazte bat zen, ederra, xarmanta, xurieri zorrik gabe.

—Hogoi urte! —egin zuen beltzak.

—Ai puttikoa! —zion Axurantak xistu bat eginenez.

Sardiantak eta mutiko gazteak ere begi kolpe bat eman zuten. Bainan deusik erran gabe.

Manboren begietan zoriona ageri zen.

Hiru adixkideak soldadogoko ixtorioz mintzatzzen hasi ziren.

Sardianta mintzatu zen.

—Beraz, lehenagoko adixkidetasun hura galdua da. Orduan lanean ari ginen bixtan da, eta ez ginuen zango bat bertzearen gainean egoiterik. Halere, ez dea egia Manbo, ontsa jostatzen gintian. Ontsa irri egiten elgarretaratzen ginelarik.

—Ba nik uste, tenore onean atera nintzan — zion beltzak.

—Hala duk, aintzinetik pentsatua ahal hinduen zer gertatuko zen. Lagun ona hintzan gurekin.

Sardiantak halako urgulu bat erakusten zuen bere mintzatzeko maneran. Iduri zuen bere hitzak hauta-tzen zituela. Bere jakitatearen eta balioaren erakusteko araz. Ageri zen ez zela bertze bat bezala mintzo, gogorat jina, jin bezala eman. Liburu bat bezala mintzo zen, hitzak behar ziren tokian ezarriz, ele ahul eta larririk

gabe. Sendimendu handiak erakutsi nahi zituen. Menturaz soberaxko! Haren solasek buruan apailatuak ageri zuten.

—Berriak sartu ziren, Manbo atera zelarik — zion Trapierrek Ping-Li Axurantari— eta berri horiek, ene Axuranta, nola erranen dut, ez dute jendetasun mikorik. Gogo arruntak dira, ez dute batere sendimendu handirik. Idorki mintzatzen zauzkitzu, xikinki, errespeturik gabe. Nola nahi duzu, ene Axuranta, holako gizonekin ontsa jostatu? Gu, gure izpirituarekin borrokan artzen ginen, dena zirto, dena izpiritu, dena ele fin eta goxo. Gure jostetek bazuten holako edertasun bat, garbitasun bat, irria ezpainetan ginuela eta ez zintzurraren zolan oilo kolokaren karkailla! Orai zonbat gelditzen gira lehengoetarik? Heim! Eta biziki gaizki gira mutiko arrunt eta bortitz horien erdian. Ai, lehengo irri goxoak, ezpainak doi-doia higituz, dena malezia, gatu batzu bezala, eta ez zakurrak bezala. Ez dea hala Manbo?

—Egia handia, ene Sardianta —ihardetsi zuen beltzak bere boz lodiarekin.

—Ah bai, hori gaixto da, izpiritu handi eta fin batzuen artean eskalapoin batzu sartzen direla-

rik —erran zuen Ping-Li Axurantak, trufa batean bezala—. Ez duzu zure burua behar litaken lekuan kausitzen jende arrunt hoién ondoan. Zure gogoá samurtzen dá. Ez dezazke gazte tzar hoién solas eta jestu larriak jasan.

—Ene gogo bereko zirela iduri duzu, ene Axuranta.

—Ez nezazula, otoi, *ene Axuranta* deit!

—Ene errespetu guzia zor dautzut.

—Mementoan ez gira kasernan eta bertze gizonak bezala mintzitzen ahal gira, gure gradoak ahantzirik —erran zion seriozki Ping-Lik.

Bainan ene Axuranta ezagutu berria zitut eta ez nitake mentura nolana hika mintzaterat! Oroitzen zira, nun kausitu ginuen elgar lehen aldikotz? Pariseko treinean, duela hogoi egun. Atsegin handia ukan nuen, zinez zure ezagutzea. Zure begitarteak, ene Axuranta, halako indar bat erakusterat emaiten zautan.

—Milesker zure konplimenduaz!

—Menturaz egun batez elgarrekin kaserna berean eroriko gira. Nahi nuke bederen zure manupean egon nintake gogotik. Ni Axurant

sartu nizaneko, zu jadanik Lieutenant izendatua izanen zira.

—Nik ez dut kasernan egoitea maite —dio Ping-Lik—. Eta zu ere ez zitela sobera gogoeta horietan egon. Neke da gradoen biltzea. Ez da ametsik egin behar. Gogor eta bortitz egon izaitekotz!

—Erakaspén onak emaiten dazkiatzu, ene Axuranta. Ene indar guziak emanen ditut zure erakaspén, nola erranen dut, zure erakaspén bizi eta bortitz horien obratzen. Nik baino hobeki ezagutzen duzu armada. Eta nik ere jakin nahi nuke, zure ahotik, ez baniz sobera ausart, ene Axuranta, zer egin goragoko gradorat igaiteko.

—Oi, Jesus, ez da holakorik salatzen! Halere, ez balitz hoinbertze jende ostatu huntan, gogotik laxa nezake ene bihotza, zuretako. Orai sobera jende bada, zinez, eta denak balia litazke ene erakaspenez. Eta... lehen-lehenik ene ondoan dutan mutiko gazte hau.

—Egia da, ene Axuranta, bertzaldi batez, buruz-buru mintzatuko gira gauza hortaz. Jakizazu ene baitan indar batzu senditzen dituztala eta

iduritzen zaut denbora galtzen ari nizala beti Sardiant egonez.

—Zinez gaizki litake zure aldetik hoin apal ezdeus egoitea, Frantzia hobeki zerbitzatzen ahal duzularik galon bat gehiago bildu-eta.

—Eta zoin da galonen biltzeko molderik hobere-rena?

—Gerla.

—Oi, gerla! —egin zuen Trapier Sardiantak begiak zerurat so.

Gaizo Sardianta arrunt xoxotua zen.

Ez zen dudarik Axuranta haren ametsez trufatzen zela. Haren ametsez eta xoxokeriez. Baina Ping-Li gizon bortitzak, atsegin hartzen zuen ikustea gradoek gizona zombateraino mensten ahal duten. Hura Axurant bazen ez zen amentsetarik heldua hein hortarat. Lehenik Frantziako gerla egin zuen, lau urtez. Gero Indoxinakoa. Madagazkarren itzuli bat. Azkenik Algerian egona zen urte bat. Bazakien zer zen gerla. Lohian errestan ibilia zen, kolpatua. Beharriak tiroen arrabotsak elkorturik. Galon tzar baten biltzeko zer ez zuen egin behar ukan.

Eta irri egin nahiago zuen Trapier bezalako Sardiant bat hola mintzo ikustearekin, burua gra-
doek eta handitasunak xoxotua. Bere eskolaren
medioz heldua Sardiangorat. Barnean, berak
zion bezala, indar bat ukan balu, gorago izan
behar zuen, segur, bere gazte denboran bildu
jakitatearekin. Indar hura, kar hura senditzen
ziola zion. Senditzen, mihian menturaz. Bainan
ezin ager araz.

Trapier Sardiantak sobera amets egiten zuen
bertze galon baten biltzeko. Ez dakit sekulan bil-
duko duenez. Zituen indar eta kar guziak gogoe-
ta horietan galtzen zituen. Eta bere burua ahul-
tzen zuen hola.

Haur bat iduri zuen beti zukre murtxatzen ari
nahiz eta bere gorputza azkartu. Bainan ogi ido-
rra ere jan behar baita. Batzuetan hutsik hobe!

Trapier Sardiantari goxo zitzaion galonen
pereka-tzea. Goxo zitzaion ametsetan artzea.
Kaporal izendatua izan zenekotz, Kaporal-buru
ikusten zuen bere burua. Orai bere baitan egiten
zuen Sardiant-buru zela eta ez Sardiant-xoil.
Berak bazakien araz bere balioa. Funtsean esko-

lan ere beti arrangura zen profezurrek ez zutela behar bezala estimatzen.

Esperantzan bizi zen beti. Bainan gizon ahularen esperantza xoxoa. Sardiant enoatua zen orai.

Aise zuen ba nihun ere ez gizon gixakorik ikusten.

Orai Axurant bat ezagutzen zuen. Menturaz denbora guti barne... Bainan Pink-Li ontsa irri egiten zion, bertze batzuek bezala. Gatua sagua-rekin bezala jostatzen... Eskapatzerat uzten zuen, gero ondotik hobeki atzemaiteko plazerrarentzat. Holakotan, alainan, utziago eta ausikia ederrago...

Trapier bere emaztegaiaz mintzatu zen. Eder zi-tzaion, segur, eta ohore, emaztegai baten ukaitea. Ping-Lik galdatu zion, beti kitzikatzaile, hea nun eta nola ezagutua zuen delako neska gazte hura, eta pollita zenez.

—*Nous-Deux* ezagutzen dukezu?

—Ostatu bat? Dancing bat?

—Oi! Zer, *Nous-Deux* ez baituzu ezagutzen?

—Ez dut ideia mikorik!

—Beraz esplikatuko dautzut. Nous-Deux neska eta mutikoen ararteko kaseta, nola erranen dut, kaseta hortan ezartzen duzu eta, nunbaitik, zuretako berexia den gazte batek ihardetsiko dautzu. Hori da zure zortea!

(Horra, ixil-ixila, Trapierren hitza delako kaseta hortan:

Sardiant 28 urte, eskolatua, esperantza handiak, bilo horia, ederra, xarmanta, goxoa, ona, xuxena, otoduna, sofritua, itzalik gabea, bere iduriko neska gazte bat ezagutu nahi luke ezkontzari buruz. Izkiria potreta batekin).

—Eta ontsa kausitu duzu?

—Uste nuke! Beraz...

—Zure emaztegaia ez duzu oraino, gorputz eta arima, zure begiez ikusia? —moztu zuen Ping-Lik.

—Haren potreta badut... Hamar neska gaztek ihardetsi zautaten. Nolako neskak!... Ez dea eder?

—Ez, ikaragarri da.

—Beraz nik Marie-France hautatu dut, Strasbourgkoa. Eskolatua... Funtsean ageri dute haren letrek, ez direla nornahik eginak. Zer arra-

zoinamendua... Orai sos poxi baten igortzen hasia nako, mementoan lanik gabe omen baita...

Dantzaraziko hitugu ba, deubrurik ez baduk!
egin zuen Ping-Lik bere baitan.

Trapierrek bere emaztegaiaren potreta agertu zuen.

—Zer diozu, ene Axuranta?

—Ez da gaizki. Neska bipila bere ezpain mehe eta kopeta hertsiarekin. (Egia erran bere baitan zion: *Ba, pollita, bere ezpain eta kopeta txarrarekin!...*) Nahi zintuzket elgarrekin ikusi. Oi ametsa!

—Ametsak bizia arintzen du.

—Nik ere ametsak maite ditut, lo nizalarik... Iratzartu-eta geldi...

Oraino gauza batzuez eta bertzez mintzatu ziren.

Eskualdun gaztea, ixilik bazagon ere, ez zen enoa-tzen. Ohartua ere zen, animalea, Ping-Li nola trufa-tzen zen aho bildu hartaz.

—Ah! Ba! Oherat joaiteko tenorea dugu — egin zuen hondarrean Sardiantak.

—Ohean goxo ditake holako hotzarekin — ihardetsi zien Ping-Lik.

Beltzak ez zuen hitz handirik atera.

Trapier eta Manbo atera ziren. Lehenak izigarriko konplimenduak egin zituen *bere Axurantari*.

Mutiko gaztea eta Ping-Li gelditzen ziren

—Ikusi duzia?

—Ba.

—Zerri ohartu zira?

—Sardiant hori zure gradoaz bekaizti dela.

—Hori bera. Galonak bildu nahi luzke kaser-nako bulego xoko batean egonez. Nik aldiz gerlan bilduak ditut, eta zoin nekez, dituztan galon txarrak. Eta orai osagarria galdua dut... Barkatu. *Cognac, Marius!* Algeriako gerlan bularretako min tzar bat jauzi zaut. Jadanik Indoxinan hasia, naski. Eta orai berriz gaitzeko makurra ukan dut ene otoarekin. Arbola bati kontra joan niz. Otoa porroskatua. Ez dakit nola atera nizan. Mirakulu bat. Bi kosta bakarrik arrailduak. Orai ospitalean nago. Hamar egun Bordelen, orai Tolosan. Emazteak ez daki ospitalean nizala min harturik. Fun-tsean, sobera mintzo niz menturaz eta okazta-tzen zitut.

Mutiko gaztea jenatua zen. Ageri zuen.

Bi hurrupaz hustu zuen, Ping Lik, bigarren koñaka.

—Marius, bertze bat... Ez zitela harri hola edaten badut. Penak bihotzean. Funtsean denek zerbait badugu. Manbo beti bere herria gogoan. Trapier aldiz dena ametsa, handinahia ttipia izanki-eta. Zuk berehala, ospitale edo gerla leketan, kurutze gorri bat besoan, eri eta kolpatuen hats edo usu zikinak jasan beharko. Eta ni... Indoxinako kantu zahar batek erraiten du: *Gizonaren bizia*.

Zer kurutze gorria...

—Barka, otoi... Menturaz sartu nahia zira?

—Ontsa niz zurekin.

—Ez zazula erran ontsa zirela. Ez da egia.

—Badakit bederen harat joan beharra zirela.

Ez dut beldurrik zurekin sartzeko.

—Eta gradatu faltsu bat banintz, Pariseko gara aintzinetan kasusitzen diren bezala, mutiko gazten enganatzaile?

Mutiko gaztea zinez jenatua zen. Ez zen deusen erraiterat menturatzen ahal. Leku tzar batean sartu ote zen? Jaun horri ihardoki behar ote zuen berehala, ala oraino, ixtaño bat igurika-

tu, ikusteko? Ez ahal zuen gero berantegi izan-
nen?

Basoa hutsa zuen Axurantak.

—Cognac!

Mariusek zerbitzatu zuen.

—Eta zuk, zer hartuko duzu? —galdatu zuen
Ping-Lik eskualdunari.

—Milesker, jauna. Ez dut deusen beharrik.
Ontsa niz.

—Are, harrazu zerbait. Nik pagatzen dut.

—Kafe bat —ihardetsi zuen mutiko gazteak
ez nahiz eta gizona kexarazi, menturaz kafe bati
amor emanik hobeki helduko zela. Alta, sarri...

—Zure galtzen ari niz, menturaz...

Mutiko gazteak irri uzkur bat atera zuen.

—Urrunetik heldu zira, eh? Menturaz herri
ttipi batean bizi izana beti, holakorik ikusi gabe.
Harritua zaude berdin, zer mila deubru nizan?

Mutiko gazteak ez zuen ihardetsi.

—Zonbatetako duzula galdea?

—Zortziak eta erditako.

Eta denborarik galdu gabe, armadan sartze-
ko galdea atera zuen barneko sakelatik. Axuran-
tak irakurtu zuen.

—To, Jean Etchebarne. Eskualduna?

—Ba.

—Lehenago enekin ukan dut Etcheberry deitu bat, erotik eskualduna. Beti oroituko niz. Ez ginion ire-tsarazten ahal frantsesa zela, ber-tzeak bezala. Nik erraten niolarik, —orduan Sar-diant nintzan—. *Eta ni zer niz beraz, ene begi luxe hookin? Xintok? Bazterka so egiten zautan holako irri maltzur batekin, eta deus erran gabe burua apaltzen zuen. Le Basque deitzen ginuen denek, gaixtakeriarik gabe... Aha! Service Santé E.I.I. n^o6, Bar-le-Duc (Meuse)...*

Axurantak behako bat eman zuen Etxebarne-ri.

—Ez zira gaizki izanen bulta batez... Zer eritasun duzu?

—Eritasunik ez dut. Duela sei hilabete jadanik galdegina izan niz, bainan ohean nintzan tenore hartan, zango bat plastrean.

—Ai, nola gertatua?

—Traktur bat uzkalirik.

—Laboraria, ez baniz sobera ausart?

—Ba, laboraria niz.

—Hara, hori dut maite, bere gogoaren garbiki agertzea ahalgerik gabe. Ni ere ez niz ahalge erraiteko ene aitamak Indoxinako laborari ttipi batzu direla. Oraino anaia han ari da, zangoak lohian, irrisa ereiten, landatzen, jorratzen, ihiztazten eta biltzen. Nik baino bizi idorragoa dera. Ni ere hamazazpi urte artino etxean egon niz. Lohian irrisa landatzen. Alta ez du iduri, eh! Eskola poxi bat baduzu?

—Breveta. Orduan etxean sartu behartu zautan, aita eriturik, arrebaren lagun.

—Aski baduzu *Sous-officier* izaiteko. Nik ez nuen hainbertze! Oi! Ez nuen hainbertze!... Eta nehor baduzia herrian?

—Aitamak... eta arreba.

—Hori paso! Bainan erran nahi dut emaztegai bat edo... gogoan duzun norbait...

—Nehor. Ez dut emaztegarik!

—Libro zira beraz! Libro! Eta bertzalde ikusten dut ez zirela mentsa. Ez zazula oixtiko Sardiante harek bezalako menskilakeriarik egin. Gaixo ulia!... Pelotona segitu behar duzu. Ez zira beti soldado ttipi izaiten ahal... Barkatu... *Cognac!* Zure soldado denbora ontsa behatzen

baduzu ez duzu dolurik ukanen. Zure burua erakutsi behar duzu kasernan sartu orduko. Ez zite-la xoxo bat bezala egon, bertzen beldurrez. Ez! Egin indar, erakuts zure balioa. Eta ez ametsetan egon, Trapier bezala. Neska gazte baten arrangurarik ez baduzu herrian, egizu lan erreximenduan. Erakuts bertute; ez egon herabe. Orai kanpañatik heldu zira, bainan gogoan harrazu uzkur-tasun hori galdu behar duzula, bertzeak bezan-bat bazirela. Ontsa ager zure aintzindarien aintzinean. Ez beldur egon! Entzuten duzu?

—Bainan ez dakit hartuko nutenez eta zangoa berrogoi kilometraren egiteko on izanen dutanez...

—Bakea-mazu hortarik! Utz kitzu haurkeria horiek. Errazu zure zerbitzua nahi duzula egin, ez zirela beldur. Are, iratzar hortik!

Ixtant bat ixilik egon ziren. Nehor ez zen gehiago ostatuan. Aitak ikus baleza... Marius zen bakarrik, bere palto xuriarekin, mahain baten gainean izkinka jarria.

Etxebarnek zer tenore zen behatu zuen, norapait higitu beharrez.

—Ikusten dut enoatzen hasia zirela —egin zuen Ping-Lik.

Axurantak azken hurrupa edan zuen...

—Ohartu zirea? —galdatu zuen mutiko gazteari besoa pausatzean.

—Ez, jauna.

—Oi, zu eskualduna! Ez zira pilotan artzen?

—Ba, zonbait aldiz.

—Holako begi kolpea duzuela pilotaren airetik biltzeko. Ez zirea ohartu bertze Axurant horri, emazte bat besotik, borta ondorat hurbiltzen...

—Ez!

—Hemen sartu nahi zuten. Bainan ni hemen ikustearekin gibelatu dira... Ezagutzen dut ba... Ez du balio, funtsean... Nor nizan pentsaketa egonen zira, badakit. Joanen gira.

Axurantak zorrak pagatu zituen.

Gara aintzinerat joan ziren, mutiko gaztea beti bere baliza eskuan.

Jean Etxebarnen griñak eztituak ziren. Bihotzean bake bat senditu zuen, Axurantak otozainari erraitean: *Hôpital Militaire Larrey*. Bazakien bide xuxenean sartzen zela.

—Ez zira karrika hortarik joaiten ahalko, lanean ari dira —erran zuen Ping-Lik otozainari.

—Badakit.

Bidea aski luzea zen, garatik ospitalerat. Mutiko gazteak karrikan bi alderdiak ikusi nahi zituen. *Capitole* plaza ikusi zuen. Dena oto, erran bezala.

Otoa ospitaleko ondoan gelditu zen.

—Horra jaunak.

—Zonbat heldu da? —galdatu zuen Axurantak.

—Hiru ehun libera.

—Nik pagatuko dut —egin zuen berehala Etxebarnek.

Ospitaleko bortari buruz abiatu ziren, karrika hertsu batean. Bat-batean Axurantak galdatu zuen:

—Ohartu zira?

—Karridak ez zituela ontsa ezagutzen?

—Eta gero?

—Ai, berrehun libera zen markatua eta hiru ehun galdatu dauku.

—Hori bera! Atxik begia erne. Ohartua nintzan, baina ez nuen eskandalarik eman nahi,

gauaz, zurekin, karrikaren erdian. Bertze egun bat etorriko da, ez baitut ahantzia ukanen.

Mutiko gaztea harritua zagon izpiritua zoin argi zuen Axurantak hainbertze edan ondoan. Haren burua aspaldian inguruka hasia izanen zen.

Oraino ostatu batean sartu ziren, Axurantak zor zuela erranik.

—Nik ere ene paperra erakutsi behar dut guardian, Axurant izanik ere!

Guardian ziren bi soldadoek erran zuten mutiko hori ez zutela errezebitzen ahal, ez zelakotz oraino, bihar zortziak eta erdi artino, *sous l'autorité militaire*.

Gostuan zauden, guardian, espartinak herrestan, barne ttipi batean, kanpoko borta handia gakozen he-tsirik.

Handiarena egiten zuten. Aterbea bazuten. Ontsa ziren. Bertzetaz axola guti... Demuntren...

Axurantak erran zuen mutiko gaztea nola gara aintzinean atxemana zuen. Bainan soldadoek erran zuten ez zutela nihundik ere errezebitzen ahal.

—Beraz mutiko gazte hunen laguntzerat banoa ondoko ostatu batetarat.

Bainan Axurantak ez zakien ezker ala eskuin hartu behar zuen bidea. Eskuin hartu zuen.

—Nik uste ez da alde huntan oixtiko ostatu hura —erran zuen Etxebarnek.

—Goazen beraz bestalderat.

—Bide makurrean gira, —erran zuen Axurantak.

Berriz itzuli ziren eta aldi huntan karrika ilunaren bururaino joan.

Bainan ez zen ostaturik ageri han.

—Aitortzen dut bide makurrean girela —erran zuen Axurantak—. Hara oixtian erran dautazularik ezker zela, zure hitza atxiki behar zinuen eta ez berehala amor eman.

—Bainan ez nintzan segur zinez handik etorriak ginela.

—Zerbaitek erraiten zautzun haatik harat joan behar ginuela.

Mutiko gazteak ez zuen ihardetsi.

Gaua pasatu zuen *Restaurant Bleu* izeneko ostatu batean.

Ezin lokartuz ari zelarik, gogorat jin zitzaion Axuranta haren gogoaren ikertzen arizana zela, hea zer karatera zuen, nola ihardokitzen zuen. Hastean egina zuen mozkortzale bat zela, ezdeus bat. Bainan gogoia argia zuen. Ez zen arras ez deusa. Bazakien alde batetik zer ari zen. Harrigarri zen, zinez, hainbertze edan ondoan gizona hoin xuxen ikustea. Kurritzean ageri zuen xuxen egoiteko indar poxi bat egiten zuela. Gorputza itze bat bezala atxikarazten zuen.

Penak bazituen. Ez zituen menturaz arrangu-ra guziak mutiko gazteari agertuak. Zonbait oraino gordetzen zituzken. Ahalge agertzeko? Ez ahalge, ez, bainan bere gizontasuna ez galdu nahi intzirika arizanez. Bere penak, berak zion bezala, edanean ahantzi ondoan, bere gizontasuna ez zuen galtzerat uzten. Ez nahiz mutiko gazteari bere burua errebes agertu? Nekez. Ontsa axolatua ahal zen hori hondarrean arrotz hartaz. Bera zen holakoa. Edanak ez zuen ez gaiztatzen, ez eta ere tzartzen. Erreximenduak xuxen ibil arazten usatua zuen.

Menturaz ez zen mozkorra. Tzarkeria zitaken berdin mutiko gazteak hitz horri pentsatzean.

Axurantak mutiko gazteari begiak idekarazi nahi zituzken, ikusten baitzuen herri ttipi batetarik heldu zela hiri handi batetarat.

Mutiko gazteak bertze pentsaketa frango ere egin zituen. Trapier, Manbo eta Ping-Li...

Eta hortan lokartu zen, hiru orenen buruan.

Biharamun goizean ospitalean sartu zelarik erran tenoreko, bi oren kanpoan egon behartu zitzaion jauneri arta hartzeko gogoia jin artio. Ikaragarriko hotza ari zen, -4° aterbean. Lurra zuri-zuria zen hormatua. Ateka batzuetarik haize mehe bat heldu zen. Hezurretaraino sartu nahi zuen.

Etxebarnek bertze mutiko bat kausitu zuen, soldado arropan. Hura ere ospitalean sartzen zen.

—Ez dik presatu behar hemen. Horiek erran eta sartuko hiz. Orai hago kanpoan. Ezagutzen ditiat ba nik, ama maitea! Hirugarren aldia hunat heldu nizala. Hik erran gero! Funtsean denetan berdin duk. Ez die, jakintzak nik erranik, zakur batentzat baino axolarik gutaz...

Mutiko beltxino bat zen, larrua legun. Begi beltzak, bekain beltzak, mustatx beltzak. Bizikernea emaiten zuen.

—Lehen aldia hunat heldu hizala? —galdetu zion Etxebarneri.

—Ba.

—Soldado hiza?

—Orai ukana galdea, Bar-le-Duc-erat joaiteko. Harat joan aintzin ospitalean pasatzeko manatua nintzan.

—Eri hiza?

Eri, ez. Zango bat hautsirik ukana diat. Duela sei hilabete jadanik altxatzeko galdea ukana nian. Bainan ohean nintian, plastrian.

—Eta Bar-le-Duc-erat joaitekoa hiz?

—Ba, ez banute bederen uzten edo bertze leku batetarat igortzen.

—Ez hintake gaizki Bar-le-Duc-en. Erraiten den be-zala gaitzeko planka huke! Bainan zango bat hautsirik ukana dukanaz geroz, hobe huke etxerat itzultzea.

—Aski baita?

—Nahi baduk ba!

—Bainan ez diat deus senditzen gehiago, etxean laborantzan artzen nuk, indarka. Arras sendatua nizala iduritzen zaitak.

—Ageri duk lehen aldikotz sartzen hizala armadan. Nik zango bat hautsirik ukanez, aspaldian etxean nintakek to, maitearen ondoan... Hemen ez dik sekulan erran behar ontsa hizala, sendo. Beti arrangura, han edo hemen min, ezin kurri. Akitzen hizala kilometra bat egin orduko. Nik hire xantza banu, orai beretik arrangura nintakek, kaserna batean sartu gabe. Gero ez duk ordu. Gero arranguratzuz, nehork ez hituzke sine-tsiko. Hila ala bizi izanen hiz. Ez zazkikala hire arrangurak estakuru gisa pasatzerat utz. Sudur puntatik ibil hindezakete.

Kanpoan itzulika zabiltzan bi mutiko gazteak. Eskuak sakelan, paltoko kola altxatua, burua apal, ho-tzari buru egiteko bezala. Ospitaleko murrak gorri beltz dira, lur erre kolore. Leihoak zabal eta usu. Bortetan plaka zuri batzu, hitzak gorritz: *Médecine, Radio, Contagieux, Dermatologie, Défense d'entrer* eta holako. Batzuetan emazte edo gizon, norbait ateratzen da, xuriz

jauntzia. Airez-aire iragaiten dira, barneko bero-aren ondotik hozpilduak.

Soldado bat pasatu zen, bi xango besopetan, zango bat dilindan, plastrez pizutua.

Airea apal. Arbolak geldirik. Abarrak hilak, hormatuak, gogortuak.

Bi mutiko gazteak inguruka ari, batere presatu gabe, denbora guzia hartuz, parkeko bidexketan gaindi. Han-hemenka lurrari zanpaka batzu zangoen bero-tzeko.

Etxebarnek bazter guziak ikertzen zituen, denak berri harentzat. Oto bat sartu zen, gain guzia elurrez xuri-xuria...

—So egizak. Hirugarren aldia diat hunat heldu nizala. Medikuak eta infirmiertsak ezagutzen ditiat. Hondarreko aldian hilabete bat osoa pasatu nian, aintzinekoan hamabost egun. Eta orai bertze hilabete bat egoiten baniz hemen, gero hamar bat egun etxean!... Polliki nitek. Hartuak hartu, to! Orai hiru hagin baditiat apaintzeko. Sofrituko diat, bainan denbora ederrik ere ukanen. Infirmiertsak biziki gixakoak dituk, beti alegera. Eriarena eginez, mal-tzurki, dena ele goxo ariko zauzkik nahiz eta hi kon-tsolatu. Eri

hizala errak. Denak hire inguruan izanen dituk, neska pollit horiek guziak, pikura emaiten, odol hartzen eta holako. Jakizak, nik erranik, nahi baduk biziki uros izan hintazke hemen. Gero, azkenean erreformatuko hute. Haatik ez erran sekulan ontsa hizala, beti eri ekar hire burua. Ni beti eri nizala erranez, oraino Algerian izaiteko nuk. Alta ene lagun guziak han dituk...

Neska gazte bat agertu zen, xuriz, beso has.

—Ez dik hotzik to horrek, —erran zuen eskualdun gazteak.

—Ezagutzen diat —ihardetsi zuen soldadoak—. Lehen aldian hemen sartu nintzalarik ezagutua. Koska aire bat badik... Ikusak. Jacqueline!... Jacqueline!...

Baina neska gazteak ez zuen burua itzuli eta bere bidean joan zen.

—Zer tenore da? Hamarrak abantxu. Ez gintuztela sarraraziko? Hozten ari nuk.

—Menturaz eguerditan hemen izanen gituk. Hago gustuan; ez dik balio kexatzea; ez gituk ahandziak. Hemen hola duk. Jaun horiek *dispos* direlarik oihu eginen daiete. Ez baduk hiaurek hire burua zaintzen, xakurra bezala ibiliko hute.

Ontsa axolatuak dituk to! Ustez ontsa ari hizan, hitaz trufatuko dituk eta hire ahuleziaz baliatuko. Ez dik balio jaun horieri kasu egitea, hiaurek atxik heina. Ikusten badute arras umil eta uzkur hagola, ez dakikala deusen errefusatzen, laster ohartuko dituk. Ez duk hobe izanen hiretzat, jakizak nik erranik...

Oixtiko neska gazte hura berriz agertu zen.

—Jacqueline! Ez nuzu ezagutzen? —oihu egin zion soldado gazteak, irria ezpainetan eta erhi batez bere mustatxak perekatuz.

Bainan neska gazteak ez zuen bazterrerat behatu. Haren begitarte berdin egon zen, deus ez balu entzun bezala.

—Ahalge arazten duk, gaixo nexkatoa —erran zuen Etxebarnek.

—Pentsemak! Aspaldian galdua die ahalgea, hemen diren neska horiek, hainbertze mutikoen erdian. Denetarik hautemaiten die. Horiek dutena, biziki neke dituk biltzeko. Beti gogor daudek.

—Funtsean hola izan behar die ere! Berteznaz fite luzkek galduak, hainbertze mutiko tzarren erdian.

—Ai hi! hi! hi! Ametsetakoa!

Eskualdun gazteari gaitzitu zitzaion, soldado-aren irri trufa. Ixilik egon ziren bulta batez, parkeko bidexketan gaindi inguruka. Ospitaleko oto handi bat sartu zen, kurutze gorriak lau aldetan. Borta baten ondoan eman zen gibelka. Soldado gazte bat atera zuten, luze-luzea etzanik. Bi aldetarik hartu eta ereman zuten barnerat. Otoa joan zen. Gero ixiltasun osoa.

Iguzki erreinu mehe bat ateratzerat zoan. Parke izkin bat argitzen zuen. Bi gazteak harat hurbildu ziren eta han gelditu iguzki epelaren eztitasunean.

—Goxo dik iguzkian —zion Etxebarnek.

—Biziki goxo. Gauden hemen ixtant bat.

Eta han gelditu ziren, lekuaren gainean inguruka, lurrari zangoez joka. Xori tzar batzu iguzkitarat jarri ziren.

Infirmiertsu bat parkean iragan zen, berinazko untzi bat eskuan, odolez erdikala.

—Françoise! Françoise! —oihu egin zuen soldadoak.

Neska gazteak ez zuen ihardetsi eta bere bidean joan zen.

Soldado gazteak irriño bat egin zuen bere lagunari behatuz.

—Pollita!

—Ez duk gaizki! Berehala gorritzen duk.

—Behatu balauku hobeki!

—Bainan ez dutela mutikoeri sobera behatu behar hion oixtian...

Mutiko gazteak ez zuen ihardetsi.

Oren baten buruan heietaz okupatu ziren.

Emazteki batek paper bat bete zuen, han sartu-eta.

Murru paretan, hitz larriz: *Les dépôts d'argent sont obligatoires.*

—Sosik baduzu finkatzeko? —galdatu zuen emaztekiak, eskualdunaren lagun berriari.

—Ez.

—Zure erlisionea?

—Baterez.

Papera bete zuen, mutikoari sinarazi, ela Kolonelari pasatu.

—Zure aldi! —egin zuen emaztekiak Etxebarneri. Galde berak egin ziozkan.

—Sosik baduzu?

—Ba... Bederatzi mila... Ez, barkatu, hemeretzi mila, naski, —egin zuen moltsa ateratuz.

—Erlisioea?

—Katolikoa.

Etxebarnek behako bat eman zuen ixilka bere lagunari. Beha zaion hura ere.

—Emazu zure sosa Kolonelari.

Mutiko gaztea Kolonelaren ondorat hurbildu zen eta sosak mahain gainean pausatu zituen.

—Hemeretzi? —Egin zuen Kolonelak azken billeta eskuetan zuelarik.

—Bai, jauna.

—Denak uzten ditutzu?

—Bai, jauna, salbu zonbait sos perreka.

—Ontsa.

Bertze soldado gaztea, sosaren uzteko denbora guzia hor egon zen alegia-eta zerbaiten irakurtzen ari.

Gero bertze barne batean sartu ziren. Han ganbararen eta ohearen numeroak eman ziozkatzen. Soldado gaztea norapait joan zen.

—Etchebarne: ezkerreko eritegian, bigarren estaian, hirugarren ganbaran, hemeretzigarren ohean.

Bi ganbara luze pasatu zituen, baliza esku batean, bertzean gatulua, basoa ta kuiller-furtxetak. Azken borta idek eta bi urrats egin ondolan gelditu zen, hea nun ote zen haren ohea. Denak ixildu ziren bat-batean. Denek begiak sartu berriari buruz itzuli zituzten.

—Zonbata? —galdatu zuen norbaitek.

—Hemeretzia —ihardetsi Etxebarnek begiak galduak, nehoi behatu gabe.

—Ezker hirugarrena —erran zuen bertze boz batek.

Mutiko gaztea oherat hurbildu zen eta han jarri. Ganbaran berriz mintzatzen hasi ziren, erleak kofoinean burrunbaka bezala. Bakotxa bereari lotu zen. Ikusia zuten, lagun berria. Gehiago ez zuen nehork kasurik egiten.

Pique... Atout coeur... Dame... Trèfle...

Ganbararen erdian bi jokolari andana, bi mahainen erdian, belotean ari. Heien hitz bakarrek, noiztenka, hausten zuten hango ixiltasuna.

Batzu zibilean ziren, Etxebarne bezala, bertze batzu soldado arropa zimurdikatu batzuekin. Denak gazteak. Denak guti edo aski eri, bixtan da.

Batzu beren ohetan etzanik zauden, kasetak, letra edo liburu bat eskuan, beren soinekoekin. Bertze batzu estali petan, begiak hetsirik.

Ixilik eta triste zauden, bakarka.

Hantxet berriz, bizpalau gazte ohe baten inguruan bilduak ziren. Heietarik batek ixtorio zerbait konda-tzen zuen. Bertzeak begi handi batzuekin beha zauden. Ez zitaken ixtorio txarra, manera guzien arabera. Beharriak ez zauden segur enoatuak.

Batzuetan, harat edo hunat, begi guziak itzul-tzen ziren, irri karkaila batentzat, garrasia batentzat, jokoan irabazdunen balentrientzat. Gero berriz pizutasun bera.

Infirmiertsak bat sartu zen. Denek buruak altxatu zituzten. Uli bat ez zen ageri. Ixiltasun osoa. Denak beha.

—Pe-ri-got-ville!...

—Hemen! —ihardetsi zuen mutiko lodi mus-tatx handi batek.

—Lepineaux!

Nehork ez zuen ihardesten. Mutikoek, batek ber-tzeari behatu zuten.

—Le-pi-neux! —oihu egin zuen berriz neska gazteak.

—Ez ditake hemen.

—Sorcier!

—Hemen! —egin zuen besoa altxatuz ohe gainean kurrumilkaturik zagon mutiko mehats kolore zurpail batek.

—Medikuenganat! Jarraik eni!

Solasak berriz hasi ziren han-hemenka.

Belotean artzeko norbait falta zuten orai lehen mahainean.

—Badakik artzen? —galdatu zuen batek Etxebarneri.

—Ba.

Mutiko gaztea xutitu zen eta lagunetarat joan, irria ezpainetan, uros lagun berriek hola deiturik.

Belotean hasi zen, jadanik adixkidetua, bihotza alegera.

—Hi hiza *Lepi*... To ahantzia diat!... Hi to?

—*Lepitan*, zozoa, hi!

—Edo holako zerbaitu!

—Ez.

—Ez duk ezagutzen?

—Ez. Menturaz bertze ganbara horietan dabilak.

—Ohe hortakoak zer du izena?

Ohea hutsa zen. Nehork ez zuen neho-
ren izenik galdatzen. Denak adixkide dira lehen
egunetik jakin gabe nor diren. Nehork ez du gal-
datzen: *Nor hiz hi? Zer duk izena?* Denak heldu
dira berak punperat, emeki-emeki. Ez da berex-
gorik. Denak berdin, baxotxa bere arrangurekin,
lagunak lagun.

Nola deitzen dira beraz hor zombait egun
dituztenak, urtzoak pasaian bezala? Bigarren
egunetik harat, zerbait berezi duten guziek izen
berri bat biltzen dute, batere gaixtakeriarik
gabe. Egun heietan baziren: *Tarzan, P.T.T.,*
Aznavour, Le Lyonnais, L'Aviateur, Brassens, eta
holako. Izen berri bat sortu zen: *Le Basque.*

Lagunetarat hurrantzen ez ziren gazteak
zoko ba-tzuetan mutzitzen ari ziren. Heiek ez
zuten izenik. Nehork ez zioten behatzen, berek
ez zutelakotz deus egiten lagunetarat hurbiltze-
ko.

Atout!... Coeur!... Belote...

Hantxet aldiz mutikobat ari zen bere balentrien erakusten, mahain baten gibelean jarririk. Bospasei lagun bazituen aintzinean. Loriatuak zauden haren jokoari beha. Mutikoak ganibeta bietan ahoan sartu zuen eta... atera. Hirugarren aldian iretsi zuen... Iretsi idekirik: eskua zabal eta ganibeta falta! Nehork ez zuen konprenitu. Denak harrituak. Loriatuak. Ezin sinetsia!

Eta mutikoa ganibeta sakeletik ateratzen bezala egin zuen. Nehork ez zuen sinesten. Ah! Bi ganibeta bazituzken!

Norbaitek bere ganibeta eskaintzen dio. Gauza bera gertatzen da.

Hamarretan joko bera egin ondoan, lagunak beti itsu zauden. Hain zalu eta ontsa egiten zuen jokoa!

Orduan lagun guziak bere gibelerat igorri ondoan, jokoa berriz egin zuen denen agerian.

—Ah! Ah! Ah! —egin zuten orok batean ganibeta mutikoaren altzorat erori zelarik, zintzurra-ri behera joan behar zuelarik.

Batzu arizan ziren joko bera egin nahiz. Baina sobera tonto ziren oraino.

Neska gazte bat sartu zen. Oixtiko Françoise hura. Oihu egin zuen:

—Et-che-bar-ne!

—Hemen!

—Are *Le Basque!* —oihu egin zuten gazte batzuek.

Neska gazteari irriño bat jauzi zitzaion.

—Etzan zure ohean.

—Kasu *Le Basque*, kasu!

—Odol hustuko hitu!

Neska gazteak bere puskak mahain gainean pausatu zituen. Alkoolezko su bat piztu zuen.

—Ai, ez duk deus oraino. Bi marra txar egingen dauzkik besoan —egin zuen Brassens deitzen zuten mutiko lodi mustatx handi harek.

Infirmiertsak hurrandu zen.

—Are, ager ezkerreko besoa!

Mutiko gaztea etzanik zagon, besoa agerian. Infirmiertsak besoa agerian. Infirmiertsak besoa hartu zuen bere erhi goxoekin.

—Laxa ukamiloa! —erran zion.

—Are *Le Basque* ez izi! —erran zuen Tarzane-
nek boz mehe batekin.

Neska gazteak uataki bustiaz garbitu zituen xarta lekuak.

—Hotza? —galdatu zuen Françoisek.

Etxebarneri irri ezti bat jauzi zitzaion.

Atsegin zuen neska gaztea hari mintzaturik.

Ez zen deusen ihardesterat menturatu.

Bizpahiru mutiko hurbildu ziren ohearen inguruan.

—Utz-zazu xukatzerat!

—Bai... Françoise —ihardetsi zuen mila dudetan.

Neska gazteak holako behako goxo bat egin zion. Menturaz oroitu zen goizean parkean ikusia zuela.

Etxebarne uros zen.

—Aha! *Le Basque*, neska horren izena bada-kik? —erran zuen P.T.T.-ek.

—Zer animalia —zion bertze batek, iduri gabeen.

—Badakika ote nungoa den? —galdatu zuen ber-tze batek.

—Ez —ihardetsi zuen umil-umila.

—Tolosa ezagutzen duk?

—Ez.

—Erranen deat halere. Rue de la Paix egoiten duk.

Balentriaz bezala agertua zuen neska gaztearen izena. Laguneri erakusteko ezagutzen zuela.

Bere lagun berriak harritu nahi zituen. Erakutsi ez zela arras xoxoa. Bai balentriaz errana zuen Françoisen irri goxoaz eta haren bi hitzez kasik xoraturik.

Eta ganbarako lagunek berehala gaizki hartu zuten, eta mutiko gaztea kitzikatzen zuten noiz joan behar zuen bere maitearen ikusterat nolaz zakien haren izena eta holako.

Etxebarne ez zen usatua amodioz nolana hika mintzatzen. Hitz horren errespetua bazuen. Ez zituen egundaino bere amodiozko sendimenduak nehuri biziki agertu. Herabe zen gauza horietaz mintzatzeko, nahiz, bertzenaz, ez zen batere motela.

Beraz lagunak hitzak gaitzitu zituzkon.

Kaseta saltzalea pasatu zen. Soldado bat.

Denen gustuko kasetak bazituen. Gehienek amodiozko irakurgaiak hartu zituzten, asko gaziak eta itsu-siak. Batzuek usaiarentzat...

Zonbaitek lagunek bezala egiteko, beren buruak ez nahiz sobera haur erakutsi, hek ere holakoen usaia bazutela.

Zernahi liburu eta kaseta mota irakurtzen da. On ala tzar, han dira, ohe gainetan eta ganbararen itzulia egiten dute. Lagunek gogotik prestatzen dituzte.

Lehen ganbaretan zen jaun omoniera.

—Apeza! —egin zuen norbaitek.

Eta ordu berean, bizpahiru gaztek eskuetan zituzten kaseta itsusiak sakez, ipurdipean eman zituzten. Lehen aldikotz hutsean atxemanak. Oraino berri.

—Agur gazteak! —egin zuen jaun omonierak, burua gora, hirugarren ganbaran sartuz.

—Berriak badira? Zu atzo ikusia! Zer diozuba!... To, zu berria? Jakin duzia deus? Oh zer liburu ederra!... Eta zu?...

—Atzo jina

—Nungoa, barkamenduarekin?

—Mugerrekoa

—Mugerre! Mugerre! Nun da hori?

—Baiona ondoan.

—To, San Andréko jaun erretorra ezagutzen diat. Beti ari dea pilotan?...

Sartu berrien itzulia egin zuen hol-hola.

Gizon handi bat zen, larrua xuri, begitartea indartsu, beldurrik gabe, burua beti gora, mintzoa argi, sotana labur.

Haizea bezala zabilan, dena zaina. Denentzat hitz labur bat. Ez zagon segur dilindan, solasean has eta ezin geldi. Gaitzeko bihotza erakusten zuen haren begitarteak, dena kar eta oldar

Ganbararen itzulia egin eta erdiko mahain ondorat jin zen.

—Belotean? Zaudezte. Zu eskualduna, zu parisanoa, zu, zu, zaude... Jinen zaut gogorat... Limoges-e-koa, eta zu, zure mustatx ttipiekin Mistral aipatuaren eskualdekoa. Hara Frantzia guzia, belotean ari.

Emazue hola-hola. Hara hementxet kaseta katoliko batzu. Kurriaraziko ditutzue... Bihar goizean meza bederatzi orenetan...

Biharamunean igandea. Bederatziak hurbiltzen ari-eta denak ohean zauden. Nehor ez zen meزاز mintzo.

Eskualdun gaztea ganbarako harat-hunateri beha zagon. Pentsaketa ari zen. Ez zen menturatzeko bakar-bakarrik kaperarat jausterat?

Krabataren ezartzen ari zen.

—Mezarat joan hiz? —galdatu zion ezkerreko lagunak.

—Ba —ihardetsi zuen Etxebarnek.

Lagun harek ez balako galde hori egin meza entzun gabe gelditu behar zuen. Uros zen lagun baten ukaitea mezarat joaiteko.

Arratsaldean bizpahiru eskualdun kausitu zituen *foyer*rean. Algeriatik heldu ziren. Ez ziren sobera ontsa.

Arratsalde bat goxoa pasatu zuten.

Astelehen goizean infirmiertsan ganbaran sartu zen.

—Keredek, Honoré, Etchebarne, Lavedan!

Lau mutikoak Françoisen aintzinerat joan ziren. Bertze guziak ixilik zauden. Bazakiten zer zen.

—Harkitzue zuen puskak!

Zalu-zalua, ganbararako laguneri eskuak eman zituzten, berriz bertze nunbait elgar ikusteko esperantzarekin.

Eta Etxebarne Bar-le-Duc-erat buruz abiatu zen bere soldadogoaren egiterat.

Pariseraino lagun bat ukan zuen, Keredek, ganbaran Brassens deitzen zutena.

GAUAZ BIDEAN

Luhusoko garan jautsi nintzan.

Iluntzea zen. Laspost kilometra banituen oinez egiteko, Lekornerat buruz. Ez zen lehen aldia bide horren oinez egitea gertatzen zauntala. Ez nintzan samurtzen. Banakien etxea nuela buruan; etxean aitamak eta arreba.

Zonbait hilabete hautan iduritzen zaut etxe-koak hobeki maite dituztala. Ama bereziki. Harek ere biziki maite nuela erakusterat eman daut. Etxetik urrun ikusiz, Terexak ere hobeki maitatzen nu. Aitak bihotz bat badu orai artio ezagutzen ez niona. Egia da. Norbaitenganik urruntzea aski da haren hutsaren sendi-tzeko bihotzean.

Larrazkena izanagatik, zonbait urrats aski laster egin orduko bero nintzan. Paltoa kendu nuen. Soldado paltoa.

Oto bat heldu zautan gibeletik. Gelditu nintzan. Keinu egin nion. Otoa ez zen gelditu. Badakit nor zen. Bazakien nor nintzan.

Etsi-etsia, beti aintzina abiatu nintzan.

Aski ilun zen. Gaua laster heldu da sasoin huntan. Bide bazterretan hesiak buluzten ari ziren. Halako huts bat senditzen nuen ene inguruan eta bihotzean.

Larrazkena zen. Beti bezalako larrazkena.

Bertze oto bati keinu egin nion. Gelditu zen. Bihotza goxatu zautan. Gizon adinetako bat zen. Nungoa nintzan galdatu zautan. Etxearen izena erran nion. Gure etxean izanik oroitu zen, duela hogoi bat urte, urde baten erosten. *Haur nimiño* batzu ikusi omen zituen.

Terexa eta ni...

Versaillestik heldu nintzala erran nion. Armadako berriak galdatu zauzkitan, hea orai nola zen. Haren denboran nola zen erakutsi zautan.

Luhusoko errieta zen naski. Hala iduritu zautan. Herriko etxe urrun batean gelditu zen. Haur eri baten ikusterat zoan.

Oinez hartu nuen berriz bidea.

Larunbat arratsa. Ez zen beranta, ilun izanik ere. Ilargia gordeka zabilen. Izar guti. Ainitz berri banituen araiz ikasteko. Etxean ez zautaten hamar bat egun hautan izkiriatura. Aste huntan jitekoa nintzala errana nioten.

Gizon bat kausitu nuen gero lanetik etxerat zola, tresnak bizkarrean. Atsegin hartu nuen haren kausi-tzea, nahiz ez nuen pikorrik ere eza gutzen. Aski xahartua iduri zuen.

Bide puska bat pollita egin ginuen elgarrekin. Soldadogoko berria frango kondatu niozkan: lagunak, jana, bizia, aintzindariak eta holako. Beti berri berak denentzat. Berak ere bere denborako ixtorio batzu erran zaizkitan. Errekitu pollita ibilia omen zen, berak zionaz. Ohointza ttipi bat kondatu zautan. Hobe zuen ixilik egon balitz.

Halere denbora errexkiago iragan nuen. Bidea biziki laburtua atzeman nuen elgarretarik berexi ginelarik. Ez nintzan urrun herritik eta etxetik.

Gelditu nintzan, banuela berdin denbora. Bazter guziak ixilik zauden. Bazterrak arras huts kausitzen nintuen. Hirian hoinbertze hilabete hetsirik egon ondoan, poxi bat harritia nintzan. Goxo zautan leku huts horietan ibiltzea. Herritik hurbil nintzalakotz. Etxetik ere bai. Eta libertate osoan!

Oroitzapen batzu ikaran zauden bihotzean.
Lagun batzueri pentsatzen nuen. Maite ditut.
Maite naute.

Neska gazte batzu ere buruan ibili nituen.
Kuku bat hauteman nuen mendi zilo batetarik.

Zerua poxi bat garbitzen ari zela iduri zuen.
Hantxet norbait heldu ikusi nuen. Emaztekoa
segur. Begiak iltzatu nituen. Makil bat bazuen
eskuan.

Aintzinerat etorri zaitalarik Graxi ezagutu
nuen. Aspaldian ez ginuen elgar ikusia. Lehen...

—Graxi!

—Frantxua!

—Zertan hiz?

Zonbait hitz erran ginituen, funts handirik
gabe, zerbait erran behar eta.

Asko gustatzen zaut neska gazte hori.

—Zer ari hiz tenore huntan bidean? —galda-
tu nion.

—Behiak heldu ditiat Harizpuruko bordarat.

—Ez bai hiz gau beltzaren beldur?

—Gauaren beldur? Ez duka makil hau ikus-
ten? Hanbat gaixto. Kasu!

—Nik ere?

—Zertako ez hik?

—Ez bainiz gaixtoa!

—Are! Adio Frantxua, etxerat banoak.

—Zer dun ba gaur?

—Etxerat joan behar diat. Beranta duk.

—Hainbertze denbora ez dugula elgar ikusi, ez duna enekin egongo memento bat?

Neska gazteak trixte iduri zuen. Berrikitan nigarrez arizana zela ohartu nintzan. Gorde nahi zautan gauza hori.

—Zertako?

—Ama galdu diat.

Hitz horiek erran eta burua apaldu zuen eta eror-tzerat utzi. Nigarrez hasterat zoala ohartu nintzan. Esku bat hartu nion eta tinkatu. Ezkerreko sorbalda eskaini nion buruaren finkatzeko. Bilok ordukotz ihintzez bustitzen hasiak zituen. Matel beroan hotx bat senditu nuen. Goxo zautan hotx hori.

Lehen bezala. Oroitu nintzan. Ez ginen biziki arrotz.

—Graxi!

Ahalgetu nintzan. Ez nakien hea burua baztertu behar nuenetz. Dena gogoeta ari nintzan, hura hila bezala zagolarik. Graxiren ama berrogoi urtetarik ez zen urrun. Gazte-gaztea hogoi urteko neska baten ama batentzat.

Etxean ez zautaten berri hori igorria. Berehala jitekoa nintzalakotz ez funtsik hartu? Bazakite-na ere zer estimutan nauzkan, ordukotz, Kuru-tzezaharrekoak? Arrebak menturaz, deubruz egina baita poxi bat! Bainan Terexak ez zautan gauza hori sekulan erakusterat emaiten.

—Graxi!

Burua altxatu nion. Begiak arras lano behatu zautan. Ez dakit hea zeri pentsatzen zuen, zer-bait gogoan balin bazuen bederen.

—Graxi!

Bitxi da zoin maitagarri iduritzen zautan gaur. Ez badut oraino aski maite, bihar gehiago maitatuko dut. Hobekiago. Harek ere maite nuela uste dut. Ez du halere, iduriz, amodioa oraino arras osatua. Bihar hobeki maitatuko nuela esperantza badut.

—Graxi!

—Zer duk?

—Hogoi eguentzat heldu nun, bestaldian alderat itzultzeko.

Begiak argitu zitzaizkion. Gogoia ere ba segur hitz horietan.

—Bertze hilabete bat egin eta.

—Frantxua!

—Ba, ba, Graxi, hilabete bat.

Graxi neska ixil eta goxoa, nik nahi-eta maite bezala!

Besarkatu nuen eta musu bat eman.

Berexi ginen. Etxerat buruz abiatu nintzan. Ez dakit hea bidea luze atzeman nuenetz. Ez nuen gehiago bideari pentsatzen.

Zakurra ihausika ari zen. Etxean nintzan.

ARGI-ZIRRINTA

Martik Ameriketatik eta Mayalenek Eskual-Herriko xoko batetarik elgarri izkiriatu letra batzu eskuetan gertatu zauzkigu.

Hemen agertuko ditugun letra horien aintzinean bertze batzu izan dira. Bainan Marti bulta bat ederra dudan egon da Ameriketako mendi ikaragarrietan. Ai bakartasuna! Mendi hutsak askotan gizonarentzat bortitz dira. Eta mendi zabal horietan, bakartasunarekin, ixiltasuna.

Ixiltasuna eta bakartasuna gizonaren frogatzeko bortitzak. Gizonak hor, ainitz pentsaketa egiten du. Eta haren gogoak esperantza handienak ukan ditzazke, esperantza guziak gal ditzazken bezain segur. Gogoia alde guzietarat lerrakor du. Amodio bat gal ditake fedea bezain segur.

Sobera gogoeta ibili ditu Martik eta batzuetan arrazoinik gabe bere maitearen amodioaz dudatu. Egia da, lagun tzar batzuek berri makur batzu igorri zioz-katen. Esperantzak biziki apal eroriak ukan ditu. Eta orai berriz biziari lotzerat doa, amodio berri batez sustaturik. Mayalenetan

ukan dudak ezitu zaizko. Lehen ukan duen amodio bizi haren atzemaiterat doa.

Gauza horiek guziak ikusiz, jakinez zeren ondotik, nola eta zertako izkiriatura izan den, Martiren letra hunek ez du deus soberakinik.

Tenore hartan Martiren bihotza, esperantza berri batek harturik, sutan bezala zagon. Orai artinoko guziak ahantziak dituela iduri du.

* * *

Mayalen maitea:

Iguzkia sartu dun. Biziki iguzki sartze ederra izan dun gaur. Mendi kasko bat gorri-gorria ikusi dinat, sutan bezala. Su ikaragarri bat, dena garra. Dena garra, dena berotasun. Harriturik eta uros egon nun bulta bat pollita. Harriturik eta hiri pentsaketa, gar handi horrek bere beroa bihotzeraino sartzen zauntala.

Bihotza gozatzen eta zorionez betatzen.

Iguzki horren su pindarra! Gar horren beroa! Ene amodioa! Maite hut, Mayalen, egiazko amodio batez maite. Bihotz-ezpainetan sukar bat

senditzen dinat. Hire beharra, hire nahia, hire amodioa.

Bainan zoin urrun giren elgarretarik! Urrun! Urrun! Itsasoaren bi aldetan!

Halere egiazko amodio bat bihotzean delarik ez dun gorputzaren beharrik amodio hori egiazkoa dela frogatzeko.

Goxo zaitan jakitea eni pentsatzen dunala. Goxo zaitan hiri pentsatzea.

Iguzkia sartu dun mendi handi batzuen gibelean. Horra orai hegoa heldu Kalifornian barna. Liranja eta zitroin lore usain batek buru muinak kilikatzen zaiztan. Nahi niken hemen bahintz usain goxo hortaz hire bularren betatzeko. Bakar-bakarrik ez dinat usain gozo horren gozoa behar bezala gozaten. Hire eskasa dun bakarrik hemen.

Hego hunen gozoa Eskual-Herrira heltzen ote da tenore huntan? Ene bihotzaren beroa atzemaiten ote dun hego hortan?

Mayalen! Mayalen! Oroitzen nun. Hire bilo bel-tzetan hol-holako usain bat ezartzen huen. Egia! Senditzen dinat oraino. Hire bilo beltzak!

Usain hortaz mozkor arazi nun frangotan, Mayalen!

Bihar San Franziskorat jautsiko nun. Liranja eta zitroin lorez eginikako usain gozo bat erosiko dinat, besoetan jasan ahalako kristailezko untzi eder batean. Hegoari emaitetia ukanen dun!

Eni pentsatzen ote dun tenore huntan, nik hiri pentsatzen dutan bezala? Bihotz berarekin?

Horra gaua. Hor aldiz argi-zirrinta. Hemengo gauak bezain itxura ederra ote du hor egunak?

Zer ziren gaur hire ametsak? Mayalen ene maitea!

Hik ere maita nezan beti.

Bihotza ezpainetan, musu bat emaiten denat lehen bezala.

Marti

* * *

Marti maitea:

Zer zoriona ekarri dautaten hire azken solasek! Zer zoriona, zer goxotasuna, zer bakea! Alegantziarekin batean kuraia ere sekulan bezain

azkar piztu duk ni baitan. Ainitz duk alegantzia eta kuraiaren ukaitea bizian.

Gure amodioaz bekaizti direneri ez diek kasurik egin behar. Badakik zer duten gogoan. Badakik heien ele guziek xede bakar bat dutela: gure elgarretarik berextea. Jendek maite die bertzetaz mintzatzea, nahiz ez den beti gaixtakeriaz. Bainan jende gahienak hola dituk: ez saindu, ez deubru. Gure amodioa ele horiek baino azkarra go duk.

Atzo Etxarteko Graxanaren ezteietan nintian, Arnegin. Eztei ederrak. Ainitz ezteiliar. Halere ez nuk biziki jostatu. Ez nian jostatzeko gutziarik. Hitaz oroit nintian. Hire eskasa nian bakarrik. Ontsa egin ote dut hain ilun egoitea?

Oroitu nuk. Ostatu hortan berean gintian, Maiteren ezteietan. Hor ginian elgar ezagutu. Hor ginian lehen aldikotz, begiak begietan luzaz elgarri behatu. Behako hori garbia zian bihotzetik heldu baitzen. Ordu berean aitortu ginian zoin maite ginuen elgar. Hitzik ez ginian erran. Fun-tsean zer dira hitzak? Elgar konprenitu ginian. Bat bertzearen sendimenduez segur gintian ordukotz.

Hortan uzten diat hori. Gure etxeko berri zon-
bait erranen dezteat orai. Aita azkenean mentu-
ratu duk Mendibeltzeko larrearen iraultzerat.
Injenior bat ukan diagu. Bekatu dela erran dik
holako lur baten larre uztea. Eskual-Herria ez
dutela ote eta iratze zangoek salbatuko. Aita beti
bere iratze eta otez arrangura duk. Gaixoa! Nik
ere ene hitza erran diat, bai aitari, bai injeniorra-
ri. Erran diat traktur bat erosiko dukala ezkon-
tzen girelarik, trakturra eta bertze tresna frango
ere. Ez dakiat nola menturatu nizan aitarekin
gauza horietaz hoin garbiki mintzatzerat! Biho-
tza arras jauzia nian araiz. Oto eder bat erosiko
dukala ere erran diat injeniorrari. Egia duk eh, ez
dea hala? Gure gero guziaren kondatzerat abia-
tu nintian injenior hari! Sobera uros nintian ixilik
egoiteko. Haur baten zorion izari gabea!

Injeniorra loriatu duk nik gauza horiek erra-
nik. Nunnahi bezain ontsa bizi gintazkela erran
dik larre frango badugula iraultzeko, aski ordoki.
Pentzeak eta artoa ontsa heldu omen dituk lur
berri horietan. Aitak ere onartu dik azkenean,
gure amodioarengatik segur nuk.

Ikusten duk beraz aitak ere maite hituela, harek ere baitaki egun batez hunat etorriko hiza-la. Ez badaut gauza handirik erraiten gure amodioaz, jakizak bere baitan gogoeta frango egiten duela. Hola duk gure aita. Ez dik maite gauza horietaz mintzatzea. Halere bihotz handi bat badik bere haurrentzat begitarte bortitz horren gibelean. Maite diat aita bere indar eta zuzentasunarengatik.

Frangotan buruan ibiltzen diat nola gure haurreko adixkidetasun goxo hura amodio baten hastapen eta erroa gertatu den. Ez nian holakorik uste. Alta haurdanik gure artean zerbait izan duk. Eskolarako bidean zonbat aldiz ez gira elgarrekin gertatu? Zonbat aldiz ez gira bidean gelditurik egon xori txar bati beha, ezdeus bati beha? Egia duk. Betidanik ukan diat hiretako, ez dakiat nola erran, halako goxotasun bat. Elgarrekin ginelarik, beti hiri zerbitzu egiterat ekarria nintian, ez hintudan kolpatu nahi, azkar nintian hirekin.

Goxo duk norbaiten maitatzea. Goxo duk jakitea norbaitek maite hituela. Bihotzean hala-

ko pesta bat bezala senditzen duk. Azkarrago hizala iduri zauk.

Ez ginakien oraino amodioaren izenik ere eta elgarren behar bat senditzen ginian. Elgar ikus-tea, elgarrekin egoitea, elgarrekin mintzatzea, deus gehiagorik gabe. On duk jakitea norbait hire beha dagola norbaitek hiri pentsatzen duela eta maite hituela.

Orai berean gogorat heldu zatak ixtorio ttipi bat. Oroituko hiz. Kurutzaldeko pentzean gintian hiru anai-arrebak. Zuek lau anai-arrebak gureganat etorri zinezten, gurekin jostatzerat. Haur tzarrak izanki ta jende handien solas batzu ibiltzen gintian. Haurrak beti gizon eta emazte izan nahiak dituk adin batetarik harat. Gure artean ari gintian: *Nor duk munduko jenderik maitena?* Gure anai-arreba ttipiek aita edo ama zitean hautatzen. Guk ez ginian gure gogoia agertzen. Azkenean, ni beti ausartago, galdetu nean: *Eta hik?* Bulta bat ixilik egon hintzan eni beha. Eta gero, herabe bezala: *Hi!* erran hinautan besoa luzatuz. Begitartea gorde huen, hutsean atzemanik bezala. Egiazki ari ote hintzan ordukotz? *O-la-la!* Zer haurkeriak! Irriz ikusten hut. Nihaur ere

irriz ari nuk ene ele mentseri. Maite diat irriz artzea.

Ttipia nintzalarik erraiten omen nian amatu behar nuela handituta zeren ardura galdatzen baitzautaten hea seroratuko nintzanez ttantta bezala. Ez nuk aski saindu serora sartzeko.

Bainan Mayalen? Zer ditun ba solas horiek? Gaizki ote da gauza horien hola erabiltzea? Zer pentsatuko du Jainkoak? Eta Martik? Zer gauza ahalgegarriak derazkinan hor Mayalen! Barkatu behar zatak. Oroitzapenez bizi nuk. Ainitz oroitzapenez. Oroitzapen guziak goxo zaiztak hiri pentsatzerat deramatelarik. Lehengo bizi hura berriz atzemaiten diat hi baitan. Egun guzietz gauza berriak kausitzen ditiat. Goxo zatak hire amodioaren froga berri baten kausitzea oroitzapen horien artean. Hire ele bat, hire egintza bat ezdeus batentzat utziak nintuelarik elgarrekin ginelarik, orai, bat ber-tzearenganik berexi-eta, amodiozko ele eta egintza batzu zirela ohartzen nuk frangotan. Hire eletan ez bazen, hire begietan bazian zerbait. Horietaz guzietaz oroitzen nuk orai. Oroitzapenez bizi nuk geroaren beha.

Bihotza esperantza handi batek hartzen zatak egun batez elgarretaratuko girela pentsatzen dutalarik. Orduan betikotz.

Bizi eder bat eremanen diaguk, batek bertzeari behin ere esker txarrik erakutsi gabe, orai artio. Bihar ez duk urrun, gure bihotzak sobera uros izanen baitira, elgar berriz atzemanik.

Denbora hok iraganen dituk. Bost urte joan diren bezala, bihar iguzkia goizetik zeruan dir-dir elizan sartuko baigira gure zorionaren finkatzeko Jainkoaren aintzinean. Eta eztailiarrak, gure zorionaz uros, erranen diagutek: *Atxikazue beti gaurko bake eta zoriona bihotzean!*

Ene bihotzak eman dezaken amodio guzia hiretzat daukeat.

Bihar, Bihar!...

Hire maite fidela.

Mayalen

* * *

Mayalen:

Hire bihotzeko zorionari pentsaketa nindagonean oixtian. Nik egundaino ukan ez dutan ale-

grantzia goxo bat badun. Ez dakinat nundik heldu zaunan. Sor-tzezkoa ditaken. Hire ezpaine-tako irriño eztiak bihotza behin eta behin goxatu datan.

Betidanik hola ezagutu hitut. Beti berdin hagola ikusten dinat. Funtsean ez hintake bertzela izan. Hizan bezala maite hitut. Zerbait badun nik eskas dutanik. Eskas dutan hura emaiten dautan. Eta badakinat gogotik emaiten dautanala. Ez dautan behin ere deus gorde. Hire buruarekin bezain argi eta garbi izan hiz beti enekin.

Zoin maite nunan ikusten dinat, zer alegran-tziarekin atxikitzen dunan ni baitan esperantza. Eta nihauri behatu-eta, nere gogo ilun eta hitsaz ahalge nun. Ahalge ez baitezakenat zorion handirik erakuts. Ontsa ilun eta hotz kausitzen ahal nun! Bainan, gaixo Mayalen, barkatu behar zatan. Ez dakinat hea ontsa ikusten dunanez hemengo bizi dorpea. Nahi ala ez, hemengo bazter ikaragarriek berek lotsa bat bezala emaiten dautane. Bakartasunean zer gerta ditaken pentsaketa hasten nun. Adio gero esperantza guzia. Emeki-emeki gogoeta ilunetarat lerratzen nun,

nihaurek gauza handirik egin ez dezaketala. Eta gogoeta horietan hasten nizalarik, inguruko ixiltasuna ezin jasan dezakenat. Gizonak ez dine bakartasuna eta ixiltasuna biziki maite. Ez dun haratik ez hunatik, orduan, goiz edo berant, gizona bere buruari pentsatzeari lotzen dun. Eta bakotxa bere buruari sobera pentsa-tzen hasten delarik, ai zer gogoeta harrigarriak egiten dituen! Ai nere buruari pentsatu gabe bizi ahal banindadi!

Hor nintzalarik ez ninan holako gogoetarik egiten. Aitamak, lagunak, eta hi, Mayalen, hor zinezten gogoeta ilunetarik ene begiratzeko. Bertze gauza batzuek mintzo gintunan, ele hutsa frango erranez ardura. Eta denbora bazoanan hola, egin ahala betea, bakotxak bere buruari ez pentsatzeko. Gogoeta hitsetarik urruntzeko, hor zitunan pilota, dantzak, kantuak, beti jendekin, lagunak lagun. Gizona ez dun segur bakarrik bizitzeko egina. Gaizo ni!

Bainan gogoeta hits guziengatik, esperantza handi bat ere senditzen dinat bihotzean, noiztenka. Ez dakinat nundik heldu zatan bizi behar bortitz hori. Esperantza dela uste dinat. Eta orduan

nihauri erraiten dinat ez dutala nere burua berriz, egundaino, gogoeta hitsetarat lerratzerat utziko. Hala iduri zatan. Azkar nun orduan. Ez dakinat xuxen zertako. Eta naski hiri ere pentsatzen dinat orduan. Munduko emazterik zoragarriena haukat. Hitan dela ene zorionaren iturri guzia ohartzen nun. Hiretako bizi behar dutala, gauza guziengatik, jasanak jasan. Badakinat ene beha hagola. Badakinat ez dunala egundaino nitaz dudatu.

Zorionezko denbora labur guzietan gogoan erabiltzen hitudala ohartua nun. Eta ez dakinat hi gabe zer nuken hemengo bakartasunean noizean behin alegrantzia poxi-poxi baten ukaiteko.

Badakinat ba zoriona ez ditakela betiko izan. Labur dun zoriona. Iheska dabilan eta! Ez dezaket erran oraixe zorion osoan bizi nizala, nahiz ez nizan hain gaizki. Gizonak ez dezaken bere zoriona sendi, ez baitaki zer den zoriona. Bainan gero dun ohartzen, oroitzearekin, atzo memento goxo bat iragan duela uste gabeen. Eta memento hura berriz iragan nahi liken. Bizkitartean memento hura berriz etor baladi ez lezaken

memento hartan berean, zorion mikorik sendi edo atzeman.

Mementoan ez dezakegulakotz zoriona sendi, atzo-koaren oroitzapenean edo biharkoaren esperantzan dun zorion guzia. Orain ohartzen nun, aitortzen dinat, hor nintzalarik hire ondoan, duela bost urte, egiazko zoriona gozatu dugula elgarrekin, jakin gabea. Atzoko zoriona gaur dinat zinez gozatzen.

Atzo elgarrekin uros gintunan. Bihar elgarrekin berdin izanen gitun. Atzoko zorion hura berriz atzemanen dinagu bihar. Elgarrekilako zorion izari gabea!

Bihar ez duk urrun, erraiten hautan hire azken solasetan. Bihar! Bihar! Bainen mementoan zer ez dugu jasan behar! Ez nun memento hunen jabe. Ez dinat nahi bezala bizitzen. Nahi dutan hura nitarik ihes baitoa beti. Zoriona, nik nahi dutan guzia. Zorionaren osoki gozatzea, zoriona eskuetan dugun ordu berean, ez dakinat, bizkitartean holako gauzarik badenez. Balinbada, ez ditaken sendi. Egia erran, elgarrekin iragan denboretan baino zorion azkarragoa senditzen dinat, frangotan, denbora heien oroitza-

nean. Denbora hek berriz desiratzen ditinat, ene bihotz guziez, baitakit orai zoriontsuak zirela. Oroitzapenak esperantza emaiten datan. Hitaz oroitzapen onak badituztalakotz bihotzean ez dezakenat geroaz etsi.

Oroitzapenak eta esperantzak!

Iduri zautan horiek direla mementoko zorionaren gakoak. Ez dakinat zer den zoriona atzokoari eta biharkoari ez badut ene gogoia eratzikitzen. Oraiko zorionik ez dun, berenez.

Gaixo Mayalen! Ikusten dun zer gogoeta bortitzetarat lerratua nizan bakartasun eta ixiltasun huntan.

Halere, barkatzen badautan, ene gogoaren aldara-tze hunek ez bahitu bederen lotsatzen, hitzemaiten denat elgarrekilako biziaren esperantzari ez dutala uko eginen.

Ene amodioa hiretzat ez dun oraikoa, baina atzokoa eta biharkoa. Atzo ontsa elgar maitatu dugula-kotz, bihar egundaino bezenbat elgar maitatuko dugula, horra zertako maite hitudan orai. Hori dun ene amodioaren hazkurri bakarra.

Agian batzuetan erabili dituztan ele bortitzen barkatzeko bihotz ona ukanen dun. Ez niken nahi

ene solasengatik gure arteko amodioa makurtu. Ahantz ditzagun oraikoak geroari pentsatuz. Jakizan arrangura horien burutik ateratzeak on egiten dautala. Bihotz goxatzen norapait. Beraz etzazkina gaizki har. Gero dolu ditinat. Ikusten dun zer errango dutan...

Egun batez, duela bost urte, elgarri betiko amodio hitzeman gindinan. Nitarik berextea onartu dun. Nik hitarik urruntzea onartu dinat. Ez gintunan deuseren lotsa. Eta atzokoaren eta gerokoarengatik, ez dezakegun, gaur, batek ez bertzeak, gure hitza jan.

Gaixo Mayalen, otoitz egizan enetzat.

Bihar artio, lehen bezala besarkatuz.

Marti

* * *

Horra orai egundaino bezain bakarrik! Aspaldian ez dut hitzik igorri Mayalen gaixoari. Zonbat denbora du Mayalenek ez duela ene berririk? Hilabete bat? Berdin. Aspaldi du ez nizala hoin luzaz ixilik egon. Lehen ere gertatu zautan ba

gauza bera. Lehen eta azken aldia zela uste nuen. Eta orai berriz haste!

Nere buruaz ahalge niz. Maitearenganik urruntzen ari nizala iduri zaut. Eta harek maite ote nu beti? Ez dakit. Izigarri da bakartasuna. Bertzek bazterrerat utzia nutela uste dut. Menturaz nihaur naiz bertzetarik urruntzen ari, nihaur nere buruari harrika.

* * *

Etixerat joan nintake gogotik. Eta gero? Eta bihar? Nola izanen niz? Berriz hunat itzuli behar-ko, bertze batzu bezala? Ezin bizia omen da han ere.

Aski sos baduta Mayalenekin egin ginituen xede eder heien obratzeko?

* * *

Zertako etorri niz ni hunat? Sosaren egiterat. Ez da bertzerik. Ez dut estakururik sosa baizik. Sosa... Sosa...

Denbora galtzen ari nintzala nion Eskual Herrian. Etxean ez zuten ene beharrik. Beñat han da. Eta ni? Ni? Nahi nuen lekurat joateko sortua.

Zer naiz ni laborari bat baizik? Ez dut sekulan bertzerik ikasi. Alta etxean ba ahal zakiten ez zutela ene beharrik ukanen handitu-eta. Mutil? Eta laborari etxe batean? Ez nuen holakorik nahi. Auzoko mutilarengatik ez duta behin eta behin entzun, mozkorra zelarik, lan tzarren guziak harendako zirela? Mutil? Ez.

Lurrari sobera fida dira oro, lurrak gizona hazten duela.

Zertarat joan ere hirirat? Untzi ikuzterat sukalde xahutzerat? Lantegi garbitzerat? Bide egiterat? Lan zikin guziak gu bezalako trixte batzuentzat dira. Lan zikinak, bertzek nahi ez dituztenak, sekulan aberasteko menturarik gabe. Hogoitabi urtetan ez nezaken holakorik onart.

Ameriketarat joatea hautatu badut, laster aberasteko bidea ikusten nuen hor. Frantzian egonez, hamar urteren buruan hastean bezala

izanen nintzan. Nunbait egon behar eta berdin, Ameriketako artzain egoitea hautatu nuen.

Nehork ez nu zinez han begiratu nahi ukan. Deusetako ez nintzan berdin, bertze ezdeus guzien artean. Ene falta ez zitaken biziki ageri. Geroztik ohartu niz hau ere bertzek nahi ez duten lan heietarik dela. Ni bezalakoentzat.

Ene zango-sagar azkarrez gorago nehork ez du ni baitan deus gehiago ikusi. Zerbait erran zezaketenak ixilik zauden. Mintzatu beharrak.

* * *

Zer dakite etxean nitaz, gezurrik baizik? Egia-
ren gordetzea gezurraren sinets araztea. Ardiez,
bihiez, aroaz, herriko sortzez, hiltzez eta ezkon-
tzez baizik ez dakite mintzatzeko gure etxean.

Eta biziki ontsa nizala uste dute. Eta uros dira
auzoeri erraiten: *Marti biziki ontsa dela.*

* * *

Mayalenek bakarrik jasaiten ditu ene koska
bulta guziak. Gaixo Mayalen!

Ez dut Mayaleni gezurrik erran nahi. Mayaleni ez. Eta izkiriatu gabe nago, egiaren erraiteko beldurrez. Ixilik egoiteko hobea niz.

Zonbait hitz izkiriutzen ditut. Eta hondarrean gauza peningarri batzuen erraiten ari nizala ohartzen niz. Eta letra has-eta urratzen dut.

Eta Mayalen berririk gabe dago. Gaixo Mayalen!

* * *

Nork lagunduko nu? Egun guzietako bizi huraderamat beti bezala ahal dutalarik Jainkoa otoiztuz. Leku trixte hok utziko dituztalarik, agian Jainkoa beti bihotzean ukanen dut. Izanen da zerbait gero ere, sor-herrirat itzuliko nizalarik.

Ez nuke Mayalenenganik entzun nahi, hemengo bakartasunak gogoia betikotz nahasi dautala. Horren beldurra dut. Orduan ez dakit zer gerta litaken...

Ez. Mayalen ixilduko da. Badakit. Ezagutzen dut.

Ontsa ilun izan behar niz holako pentsaketen egiteko. Ez dakit noiz eta nola galdu dutan ezpai-

netako irriñoa. Mayalen ez da hemen eta, nori behar dut beraz ene irriñoa egin?

Bakarrik mintzo ote niz batzuetan, gora-gora, ardien erdian? Berdin ba. Berdin ez. Ez dakit. Dakitana da gora-gora edo ixil-ixila, gogoa ez dutala sekulan trankil...

* * *

Mayalenen letra bat ukan dut atzo. Horra zer erraiten zautan:

«Badiaguk hik eta nik elgarren laguntzearen beharra bizitzeko. Haugi etxerat, gaixo Marti, haugi etxerat! Ni hemen nuk hire beha. Ez duk oraino berantegi. Haugi, haugi...»

Mayalen maitea. Aspaldiko nigarrak atzo ixuri ditut. Nigar egiten ere ahanzten hasia ote niz? Alta zoin goxo den maitearen bihotz onari pentsatuz nigar egitea!

O Mayalen! Mayalen! Zoin maite zitudan!

* * *

Bakartasuna.

Kanperoa ez daki eskuara. Indiano horietarik da. Ontsa apal nintake ene arranguren gizon hits horri agertzeko.

Apez bat bederen balitz hemen, ene ikusterat heldu, ene kontsolatzeko eta laguntzeko.

Harek balakike zer erran.

Aspaldi du ez dutala apez baten elerik entzun. Bertze gizonak ez bezalako solasak baluzke apez batek. Jainkoak uzten ari nuela diot. Edo bederen nik ez badut Jainkoa uzten ari. Ez dakit.

Apez baten solasak behar nuzke orai. Apez bat nahi dut.

Nor da horien guzien hobendun? Ni?

Denak akusatzen ditut nere kexuan.

Orai berriz mendian nago. Hemen iragan dut Paz-ko. Oroitu bederen baniz, eliza ere. Beti berdin da hemen. Halere, Pazko zelakotz bihotza loriosago nuen, iduriz bederen. Pazko! Neure gisan, nik ere, Krixtoen piztea kantatu dut bihotzean. Kar poxi bat eman daut horrek, bizitzeko doia menturaz, Salbatzalearen oinazez oroitzuz. Bertzek ere zerbait ikusten dute bizian. Bizitzea, ez dut bertzerik galdatzen hemen nizano. Bizia

gauza ederra dela daukat eta eskerrak diozkat Jainkoari.

* * *

Barda elurra erori da berriz. Ez da lodi. Oroitzapen tzarreko toki itsusi hoiengordatzeko ez du, halere, aski egin. Begietan dituztan lur horiek ez nuzke ikusi nahi. Elur egin balu gehiago, mendiak xuri-xuriak balire, bertze gogoeta batzu egin nezazke menturaz. Elur baztertzen nahiago nuke arizan, ardiengozaintzeko, dena gogoeta egon baino. Alferkeriak ez du deus onik ekartzen. Gogoeta txar edo ilunen baztertzeke ez da lana bezalakorik.

* * *

Gure etxeko goxotasunaz oroitzearekin, bixtan da, plazer baino trixtezia gehiago senditzen dutala. Etxeaz oroitzen niz. Aitaz, amaz, anaiaz. Hau ere ezkondu da. Eztei egunean ikusten ditut hortxet, bortaintzinean, ezteiliar guzien erdian, batek bertzea maite, zoriontsu. Uros dira. Hobe

segur. Badakit sobera zer diren penak eta bihotz ilundurak. Ez nuke nehuri zorionik ez kendu ez gutzizatu nahi. Ez nuke nehor ni bezala ikusi nahi.

Ontsa jaten dut, ontsa edaten eta ez dut hotzik. Radioa mintzo da, kantuz ari, musikan ari. Horien guziengatik bihotza ilun dut, nun ez nizan uste gabetarik mozkortu edo lotarik amestetan ari.

* * *

Mayalenek beti maite nuela erraiten daut. Ez nuen sekulan erranen amodioa holakoa zela. Gu bien artean aspalditik lokarri gorde batzu ukan ditugu. Mayalenen izaite guzia, haren goxotasuna, haren bihotza bera nihauren baitan dituztala iduri zaut. Nitán dago, egun eder eta txarretan, gorputzez bestalde. Zorigaitzez ardura, bakartasun eta ixiltasunak Mayalenen amodio goxoa bihotzean nahasi dautate.

Alta, amodioa, zer gauza ederra, zoragarria!

* * *

Zertako nuzke sofrikariozko sos horiek oro Mayalenekin ez uros izaiteko? Ez dut, sos hori, ene nagusitasunaren erakusteko. Sobera maite dut Mayalen haren nagusi izaiteko. Batek bertzea lagundu beharko dugu, esker txarrik erakutsi gabe, batek bertzeari egiten duguna guhaurentzat egiten baginu bezala. Ez, ez da egia. Bertzearentzat egiten dugulakotz dugu bihotz onez egin behar. Izanen dira ba, bixtan da, kexaldi batzu bainan batek bertzearen amodioaz oroitzu barkatuko ditugu biziaren nahigabe guziak. Badut aski ikusirik neure buruarekin, harat eta berriz nehoren gaizkiaren ondotik ibiltzeko. Ez nuke nahi Mayalenek sendi dezan nitarik esker txar edo hoztasun edo idortasunik.

Barkatzeko atsegina zoin den handia, maite bati barkatzen delarik!

* * *

Zonbaitetan baino gehiago neure buruaren jabe nizala iduri zaut.

* * *

Ene arrangurak eztitu ondoan ez dut hemen, sei hilabete hotan, deus handirik izkiriatu. Negua zen eta beherean nintzan. Orai berriz hasten ari niz. Zertako ote? Bihotz min bat dugularik, orduan dugu norbaiten beharra senditzen horien guzien jasaiteko. Halere berekoi izaitea da hori. Ez litake hola izan behar. Nik paper-mutur batzueri eman ditut ene arrangurak. Ez nuen nehor bertzerik. Mayalen han zen ba beti. Bainen, frangotan, penarik ez egin nahiz ixilik egon niz, guziak barkatuko zauztalarik. Etxekoekin berdin. Denbora batez ene buruaren ahalge nintzan eta. Gaiz-ki egin dut menturaz. Bainen bego hortan, joanak joan.

* * *

Etixerat banoa. Joan behar dut hemendik. Orai ez baniz joaiten, egun batez berriz haste litazke oro. Ez dut holakorik nahi. Badut ene bizi-ko aski oroitzapen. Hortan geldi.

Menturaz nihaur niz holakoa, ez dezaket bakartasuna jasan. Ez dakit.

Hogoi egunen buruan Parisen jautsiko niz. Mayalen han izanen da. Ba, gaixo Mayalen! Maite dut.

Zoin goxo izanen den elgar besarkatuz nigar xorta baten ixurtzea maitearen sorbalda gainerrat.

ITSAS-IZARRA

Euri xehe bat ari zen gogorki eta itsas usainez beterikako haize mehe batek azotatzen zuen hor bildutasunean zagon jendea.

Itsas-Izarrako txopako guziak bilduak ziren Donibaneko hilerrietarat. Hor alainan ehorzten zuten Erramun Airexuri, untziko lagun bat.

Gaxuxak dentela-egileak bere bilo horiekin, begiak nigarrez ilunduak, uste zuen oraino ikustea hain maite zuen mutil ederra. Hain azkarra iduri zuen, hainbertzetaraino ezin zaurtua, nun haren hiltzeak ezin jasanezkoa, ezin esplikatua, zozoa iduri baitzuen. Zeru ñabarrean, antxetak inguruka ari ziren beren boz herdoildua entzunaraziz eta zeremonia bururatzerat zoan.

Gaxuxa ez zen gehiago gorputzez baizik horko lagunaren artean. Gogoan berriz bazerabilan igande bat, duela zonbeit aste iragan. Erramunen lagungoa, nexka gaztea hiriko baratzean kausitzen zen eta mariñela boz nahasi batez mintzo, behatzen zuen.

—Gaxuxa, horra, aspaldi maite zaitudala eta ez naiz menturatzen aitortzerat, onart zinezakea ene lagun izaitea?

Segurrenik eskualduntsa pollitak baietz ihardetsiko zuen, Peyo, Itsas-Izarraren hirugarren mekanizier lagunak ez bazaion galde bera egina izan abantxu hitz berez, bi egun lehenago.

Alta Erramun eta Peyo, biak gazteak eta lagun onak izanagatik ere, arras desberdinak ziren, bat mehe eta haundi zen printze baten goxotasunarekin, bertzea, Peyo, beltz, gizonaren idortasun poxi batez dohatua.

Gaxuxak, denbora irabazi nahiz, gogoeta zonbeiten egitea galdatua zuen gauza horren gainean.

—Zerbeit ilun bada ene bihotzean. Itsas-Izarra Donibaneko portutik ateratuko da zonbeit egunen buruan. Amerika alderat joanen da xardinaketa. Itzul-tzen zartzelarik erranen dautzuet ene xedea —hitzeman zuen bere bi gizongaiari.

Eta heien atera-aldia abantxu hitzik erran gabe bururatu zen.

Egun hits hortan, nexka gazteak ikusten zuen nola Erramunen ondoan iragan orenak, hiriko

baratzean, halako hozdura bitxi bat bazuten. Mariñelak iduri zuen jadanik ez zela gehiago lur huntan. Ezen urrun bazoan eta, handik, nork erran bizirik itzuliko zela?

Eta bizkitartean ez zuen mutiko xarmant hura bere gogoan hautatua, bainan bai bi gizonetarik edertasun gutienik zuena.

Haize ukaldi batek zafratu zuen Gaxuxaren zaia zabala eta bere baitarat ekarrarazi haren gogo galdua.

Otoitzak bururatuxeak ziren. Bihotza ilunik, Gaxuxak eman zuen azken behako bat mariñelaren kutxa xuriari. Untziko lagunak ziloaren hes-ten hasi ziren. Gaxuxa atera zen ezin egonez. Karriketan, jendeak multxoka bazoazin beren etxetarat.

Mariñelak aintzinean zoatzin. Heien artean ageri zen Peyo. Gaxuxa harenganat hurbildu zen, nahasdura bortitz batek asaldaturik. Itsas-izarrean gertatu destorbua hain zen bitxia. Gogoetarik zoroenak eta gaixtoenak heldu zitzaizkon bururat.

Zer iragan ote zen untziko bi lagunen artean, bi lagunemazte beraz gustatuak?

Boza daldaran erran zuen:

—Lagun nezazu, Peyo, zonbeit galde egin nahi dauzkitzut gaizo Erramunez.

Eskualdunaren begitarte soraioak ez zuen latzikara bat ere erakusterat eman.

—Nahi duzun bezala, Gaxuxa maitia, bainan nik bezain ontsa badakizu.

Portu xoko baterat heldu ziren eta han beranta bildu zuten euriaren azpian, bazterrak oro itorrik zagozila eta itsasoa gorderik.

Arrantzako untzia han ez izaitearekin, Gaxuxak buruan hartua zuen haren xortea zitakela Peyorekin ezkontzea. Bainan lehenik bazuen ainitz gauza aipa-tzeko, zeren, beharbada, hil bat heien artean alha baitzitaken.

—Mintza zaite, erran zion nexka gazteak.

—Urtarrillaren 12an gertatua da, Frantziako lurretarik 600 kilometretan ginen noiz eta ere lanoak loditurik kapitainak eman batzaikun xixtu orroaren joiteko manua. Azantzarengatik boz lazgarri hori hautemaiten nuen tresnategiraino.

Gaua jin da bet-betan, bi urratsetan ez baitzen fi-tsik ageri... Gero haizea jeiki da, firrinda-ka. Manatua nintzen bezala, untzi bizkarrerat

igan naiz. Lanoak emeki-emeki urratzen hasi ziren eta mendi batzu bezain gorako uhainak ikusten ginituen. Orduan untzi bizkarrak ukan du, zafla, Erramun urerat eremen duen uhain ikaragarria. Boz batek oihu: *Gizon bat itsasoan!* Norbeitik urgain bat aurdiki du. Kapitainak dio: *Erramun da!* Jauzi egin dut eta urean sartu. Gero badakizu...

—Erramunen adixkidea zinen eta ez dautazu ukaturen. Badakizu, harek ere, enekin ezkondu gogo zuela? —dio Gaxuxak.

Gizonak aitortu zuen lañoki:

—Banakien.

—Zertako atera duzu bada Erramun uretik?

—Ez zinezan pentsa orai pentsatzen duzuna zorigaitzez, egin zuen Peyok bere eztitasuna galduz. Etsaiak ginen, nik banakien segur, eta Erramunek deus ez zakien, zeren beharrirat eginak baitzaizkian bihotzeko arregura batzu. Nihaurentzat begiratu dut ene bihotzeko segeretua. Polizak jakin baleza amodio hori, preso nintake.

—Bizkitartean, Erramun itsasorat bota bazinu, zure eskuz, zertako atera gero? —zion Gaxuxak bere begiak mutiko gaztearenetan sarturik.

—Ekarri dut Erramun untzirat, hil-hurran, burua arraildua. Bere erorikoan kolpatu ote zen burdin kantail zonbeit kaskaturik? Ainitzek hala diote. Bada bertze bat dakizun bezala, zonbeitek diotena eta gogoak asalda arazten dituen. Erramun destorbuz kolpatua izan dea, ala norbeit oldartu ote zaio eta gero itsasorat aurdiki bere gaixtakeriaren gordetzeko?

Kapitainak aipatu du gauza hori. Zertako? Zertako hil nahi ukan du norbeitek mutiko gaixo hori?

Erramunek ez zuen etsai bat ere, hain zen mutiko maitagarri eta airosa. Nik bakarrik banuen arrazoin bat, nik bakarrik! Araiz sinetsiko duzu: ez naiz ni hiltzale bat. Jauzi egin dutalarik itsasorat, esperantxa nuen oraino Erramunen bizirik ekartzea. Bainan gero dut ikusi egia lazgarria, untziaren gainean, mutikoa uretik atera-eta. Iduritu zait oixtian, hilerrietan, ene zoriona ere ehorzten nuela.

Gaxuxak trixterik behatzen zuen Peyoren boz idorra, haren solas laburrak eta xumeak. Hara hor xehe-xehea aipatua gertakari burutik joangarria, hara hor begien aintzinean.

Nexka gazteari iduritzen zaion Itsas-Izarraren gainean zagola gauaz, erauntsia zurrupitan ari zelarik. Gertakaria hola aipatua, haren begien aintzinean gertatzen bezala zen. Senditzen zuen haize karats eta hormatua, hautemaiten uhainak zanpaka untziari. Ilun beltza, bi gizon joka ari, hura heien erdian, deus ezin egin...

Peyo bere etsaiari oldartu ote zen? Nahi gabe, gizon bat hilik ba ote zuen bere kontzientzian?

Gaxuxak eskuetan hartu zuen bere bularretan dilindan zuen kurutzefika urrea eta gero hari luzaz so egon.

—Gutarik bat hautatu behar zinuen itzultzen ginelarik. Ez dautazu erran nahi, otoi, zer egingen zinuen Erramun ere bizirik itzuli izan balitz?

—Zu hautatua zintudan —ihardetsi zuen ahul-ahula.

—Eta orai? —galdatu zuen mutiko gazteak azken esperantza batekin.

—Orai, ez dakit gehiago zer egin. Nahi zinduzket sinetsi, ez, ez dezakezu holako lan bat egin. Erramun zure adixkidea zen, ez dea hala?

Gordetzen ote zuen zerbait bere bihotzaren zolan? Ainitz gogoeta eginarazten zuen gauza ilun horrek.

—Otoi, ez zazula gehiago hitz bat erran —doi-doia marmarikatu zuen Peyo gaizoak...—, nehork ez ditu ezagutzen ene sendimenduak zure alderat, deus ez dut salatu, ixilik egona naiz.

Nexka gazteak senditzen zuen bere bihotza arrail-tzen.

Horiek orok bizi bat makur lezakete segur. Bainan, gaixo nexkatoa gau eta egun egiaren bila berma laiteke gero ondoan bizi uros bat atxemaitekotan.

Beldur batek ximikatzen zion bihotza, gauzak ez zituen garbi ikusten, hortxet ari den euri goibel eta lanotsu horren pare. Aski amodio baten barreatzeko, zorion baten suntsitzeko, bizi baten pozoindatzeko. Gogoeta ainitz eta ez pollitenetarik. Alta zer zen gaizo Erramun Gaxuxarentzat? Itzuli izan balitz eza ukanen zuen, nexka gaztearen amodioa ez baitzen harendako.

—Zer egin duzu? —galdatu zuen Gaxuxak bultaño baten buruan.

Peyok, burua apalduz, etsitua, ihardetsi zuen:

—Gehiago deusek ez nu lur huntan atxikitzen. Berriz itsasoa hartuko dut, itsasoa, zure ondotik ene amodio bakarra.

Bainan Gaxuxak ontsa ezagutzen zuen eskualdun gotor hori eta bazakien mutiko zuzena zela. Orduan zertako ez sinets? Zoriona bil zezaken oraino, menturaz, bihotzerat. Ez ote zezazken ahantz griña horiek eta sinets Peyoren bihotza garbi zela oraino.

Hondarrean eskua luzatu zuen mutiko gazteari:

—Adios Peyo!

Mariñelak tinkatu zituen harek eskaini erhiak bainan ez zuen ihardetsi, eta nexka gazteak ikusi zuen eskualdunaren begitarte soraio hartan ikaragarriko ilundura bat.

* * *

Kanari xoriak kantuz ari ziren beren ohan-tzean. Gaxuxak burua goititu zuen.

Leihotik, etxen gainez-gain, itsasoa ageritzen, al-tzairuzko itsaso bat, euria eskaintzen

zuen plomuzko zero baten pean. Nexka gazteak bere soa han nunbait ibili zuen. Berehala, ura ikustearekin, Peyori pentsatu zuen. Nun ote zen? Munduko zoin xoko-mokotan? Urte bat Erramun ehortzia zela eta Gaxuxak deusere ez ahanzten! Peyorentzat zuen amodioa berdin-berdina zagon, bero eta ostikatua.

Bakarrik bere burasoak hilez geroz, Gaxuxa dentela egiten ari zen. Aste guzia lanean ari zen. Ez zuen gehiago onartzen, lehenago bezala, igandetan dantzatzeko atsegina. Hiriko baratze-ko bidetarik egin ahala baztertzen zen. Sobera oroitzapen bazuken!...

Jada bi gizongai antzara ferratzerat igorriak bazituen! Peyok hartzen baizuen haren bihotze-ko amodio guzia.

Batzuetan Gaxuxa harritua zagon nola egon zitaken hoin leial holako mutiko bati. Gaizki ikusten zuen bere sendimenduen indarra, ez jakinez zerbait trabak, frangotan, handiagotzen duela pasione bat.

Bazterrak oro ixilik zaudelarik norbeitek jo zuen bortan ezti-eztia.

Gaxuxak ideki zuen. Emazte gazte bat zen, biziki xumeki jauntzia, bainan askitton pollita.

—Andere Gaxuxa, dentela-egilea ote zira?

—Bai anderea. Nahi duzu sartu?

Ez zen lehen aldia emazteak heldu zirela nexka gaztearen etxerat dentela manatzerat. Bizkitartean, emazte horren jauntzi apalek ez bide zuten dentela beharrik.

—Jar zaite!

Andere arrotza ixilik baitzagon Gaxuxak erran zuen:

—Zer nahi duzu?

—Ene anaiez mintzatzerat jina nitzaizu — iharde-tsi zuen emazte gazteak begitarte xifritu batekin.

—Nor zira? Ez dut ezagutzen zure aneia.

—Ni Mayi Haizkibel, ene aneia Gilen deitzen da. Eta Itsas-Izarrean zen mariñel gisa duela urte bat.

Gaxuxa ikaran zagon zer berri jakin behar zuen.

—Behatzen zaitut.

—Neke da erraitea —ihardetsi zuen Mayik burua apalduz—... Lehenik utz nezazu galde

baten egiterat. Menturaz zure ihardespentak lagunduko nu... Erramun bizirik itzuli izan balitz harekin ezkonduko zinena?

—Ez.

Bere indarrak bilduz emazte gazteak segitu zuen:

—Erramun, ene aneiaren adixkide handia zen. Ardura atera gira hiruak elgarrekin eta badakizu Erramun zoin zen ederra... Egun batez erran zautan maite ninduela.

Emazte horien begitarteak akidura batek joak bezala ziren.

Mayik bazakien agintzak zoin hutsak diren, zinak funtsik gabeak, eta laburrak betiereko amodioak.

—Pentsatzen duzu zer gertatu zen. Zoriona gozatu nuen zonbeit hilabetez. Gero Erramun bertzelakatu zen. Ez zuen ezkontzaz mintzatu nahi... Funtsean, utzi ninduen...

Gaxuxa harriturik zagon.

—Erramuni erran nion zer moldetan nintzan. Sobera maite zintuen eiki!... Orduan aneiari erran nuen zer gertatzen zen. Gero untzian zer iragan zen aise pentsatzen duzu... Gilen mindu

zen entzun zuelarik: *Gaxuxarekin ezkonduko nuk menturaz, harekin edo bertze norbeitekin, bainan hire arrebarekin sekulan, sekulan.*

Badakizu lana, erauntsia, iluna; noiz eta nun hobeki mendeka? Makur bat eta mutiko ederrak ez lezake gehiago bitimarik egin, horra zer pentsatu zuen Gilenek, haga luze batez jo zuelarik. Gero badakizu...

Nigarrek iluntzen zituzten Gaxuxaren begiak. Haren beldurra suntsitua zen. Bertze batek karreatzen zuen hiltzearen hoben dorpea. Bainan zertako aitor gauza horiek? Zertako ager orai Itsas-Izarraren mixterioa? Barkamenduaren bila ote zabilana?

—Zer egin da zure haurra?

—Zonbeit hilabete baizik ez zen bizi egon.

—Zertarat heldu zira gaur eneganat?

—Zeren eta Erramun hilez geroz, Gilenek ez baitu bakerik. Hilak heldu dira gauaz beren hiltzalearen ikusterat, ez zinakiena hori? Amets itsusi batzu egiten ditu eta eri da Gilen. Zure ikusterat jitea otoiztu nu eta hondarrean onartu dut.

Gaxuxari iduritu zaion sukarrak zaukala Gilen hola nahasirik. Erramun, aldakor, arin ñapur, Donibaneko hilerrietan zen.

—Gilen bakean hilen da zure barkamendua eremaiten badiot. Bertzalde ez zinen Erramunekin ezkontzekotan. Gaixtakeria horrek ez dautzu beraz zuhauri makurrik ekarri. Ene aneiak ez du zure bizia mustupilkatu, beldur nintzan bezala. Barkatzen diozu?

Gaxuxak so egin zuen urrunerat nun zerua eta itsasoa nahasten baitziren.

—Zure aneiak andeatu du ene zoriona. Bertze mutiko bat maite nuen, hura ere Itsas-Izarreran mariñel zena. Horrela sinetsiko duzu zer amets itsusiak egin ditudan.

—Duda bat? —galdatu zuen Mayik.

—Bai, bi gizek maite ninduten; bat nola hila? Ez dakit... Bertzea ez zitakena hiltzalea izan?

Mayi harritua zagon. Ikusten zuen nola lan batzuek, airerat botatu harri batzuek bezala, gaixo batzu hunkitzen dituzten, begistatuak ez zirenak!

—Nun da orai maite duzun mutiko hura?

—Ez dakit... Nunbait... Itsasoan... Urrun...

Gehiago nehor ez zen menturatzen hitz baten erraiterat.

Ahantzen zituen ixuri nigarrak, duda samina, bakartasuna, bizi hutsa, ilundura etsigarriak.

—Barkatzen diot zure aneiari —aitortu zuen hondarrean.

Ordu berean, dentela-egile pollitak, jadanik begiak eta bihotza argitzen hasirik, bere bi matel xurietan ukan zituen ezin ahantzizko ezagutzazko bi potta.

Jainko onak benedikata zaitzala erranik atera zen emazte dohakabea.

* * *

Leiho-berinak zabalik, Gaxuxa ari zen, arratsaldeko bortzetan, berak brodatua zuen ximindeiko oihal baten lisatzen. Atsegin hartzen zuen bere eskulanaz. Oihalaren erdian brodatua zuen Millet tindatzale famatuaren pintura ederrenetarik bat, laborari zahar batzu, senar-emazteak, eguerditan lusagar biltzeko artetik Anjelusaren egiten ari. Kolore berak erabiliak zituen oihalean.

Eta bihotzean halako goxo bat bezala senditzen zuen, lana ontsa eginikako atsegina. Bazituen ere lore batzu ezin hobekiago brodatuak, eder eta nasai. Ageri zen bazuela gostua neska gazteak...

Zertifikataren ondotik hiru urte Donibaneko seroretan ibilia zen josten brodatzen eta dentela egiten ikasten. Berehala lan horieri ohartu zen. Haren erakusleak ere biziki maite zuten atsegin zutela haren ahalez eskulan horietan. Eta erraiten zuten hek bezain ontsa ari zela... Hortakotz ez zen batere lanik gabe egon... Eta bizia hola bazeraman, josten eta brodatzen, etxeko bertze lanak eginez, ontsa direnetarik ukaiten zituen zernahi oihal brodatzeko bereziki: etxeko oihal, edo alaba baten linja, eta holako.

Ixtant bat leihorat joan zen itsasoari behako baten emaiteko. Oraino iguzkia argirik zagon eta haren begiek egin ahala urrun behaturik ere ez zuten oraino ikusten Itsas-Izarra, berriz ere Peyo porturat ekarri behar zuen untzia. Mutiko gazteari pentsatuz jin zi-tzaion gogorat zer sofriarazten zion, ez sinetsiz...

Sinetsi balu bederen, ez lezake deus arrangu-
rarik ukan orai... Horra zeri pentsatzen zuen...
Eta bere baitan zion heian zertan zitaken mari-
ñelaren amodioa, ez zenez ote urean itoxea
untziarekin batean? Peyo ez ote ditake haren ele
hutsez asexea? Ezen, igorri zion letra bakarrean
zertaz mintzo zen, gaixo mutikoa? Deus bihotz
altxagarririk... Dolu zuen egiazki mutikoari bere
gogoia hoin zozo erakutsirik, holako gauza ezin
sinetsizkoa behar gabe ibilirik. Peyo menturaz
sekulakotz etsiturik ezarria zuen funtsik gabe.

Posta piztu zuen gogoeta horren itoarazteko.
Kantu xaramela batek arindu zuen puxka bat
haren burua. Eskuak kurutzaturik dauden senar-
emazte xahar horieri so jarri zen, eta Jainkoaren
onezira pentsatu zuen. Postako kontariarekin
kantuz hasi zen, ximindeiko oihala lisatzen
zuela.

Sukaldean, bere kaiolan zagon kanari-xoriak,
hauteman arazi zuen ere bere kantu ttirritta
mehea.

Berriz leihorat joan zelarik bere oihala lisatu-
rik, untzia hor zen heldu, abantxu portuan ohar-
tu gabeen. Eta jendea biltzen hasia zen.

Karrika xaharrerri behera abiatu zen Gaxuxa bere zaia berriena jauntzirik. Larrazkeneko hego eztiak perekatzen zion begitarte.

Untzi baten porturat osorik heltzea gertakari goxo bat da ororentzat, handiagoa neska horrek bezala bere bizia oraino finkatua ez duenarentzat, eta finka beha dagona. Ororen bihotzetan halako atsegin bat jauzten da, luzaz eta arrangura ainitzekin beha egon eta.

Bazen jende andana bat bildua, ainitz eza-gun, aitak, amak, semeak, eta Gaxuxa bezalakoak. Haren adineko bertze neska gazte batzu ere hor ziren bere maitearen beha. Ez zen sobera hurbiltzerat menturatu, eta bazter aire jarri zen. Bazakien hor ziren zombait lagunek irri egiten ziotela. Erraiten zuten gizongaiak utzia zuela bere gisa eta hortakotz ez zuela gehiago heietarat hurbildu nahi, heien trufak ez nahiz entzun sudurrerat... Gaixo neskatoa!

Haga, ximindei eta soka bazen portuan, dentela arin bat bezala egiten zutela. Iguzkia sartzerat zoan, urrunean su batek bezala zerua gorrituz. Eta portuan barna ageri zen halako urrezko

bide bat iguzkiak egina uraren gainean. Itsas-
Izarra bide horren bazterretik heldu zen...

Gaxuxa ohartu zen lehenik mutiko gazteari.
Kanporat agertua zen, iduriz begitarte ilun eta
begiak zerbaiten bila deus ikusi gabe...

Neska gazteak berehala hartu zuen mokane-
sa eta besoarekin keinu egin.

Mutikoa ohartu zen. Hor zen hamar urratse-
tan... eta irriño bat jauzi zitzaion.

Elgar konprenitu zuten berehala.

Peyo jautsi zen Itsas-Izarretik, neskari buruz
hegaldatu bezala, eskua tinkatu eta, besarkatu
ziren aspaldiko orde, hitz bat erran gabe, hain
handia ikusten baitzuten ordutik haste bizi guzi-
kotch heien artean sartua zen zoriona.

AVE MARIA

Euria zen. Euri xikin bat txirtxirika.

Donibane Lohizuneko plaiako legarra legun-leguna zen, balusa iduri. Ukaldika, itsasoko hagun zuriak plaia horaila, hotz eta trixte, ikuzten zuen, eta haur baten begitartea bezain goxo ezartzen. Uhainak ezti-tzen ziren plaia erdirat heltzean, goxo-goxoa jartzen, haur esku bat bezain goxo eta umil.

Neska gazte baten ile hori dilindetan orraze xehea pasatua iduri zuen.

Zonbait jende itsasoari beha zabiltzan harrizko bidean. Gelditzen ziren, abiatzen, berriz gelditzen, uraren hagun eta burrunbaz begi-beharriak ase artio. Itsasoan ez zen barna ageri. Euriak hesten zuen bixta, biziki labur. Urean ez zen untzirik ageri. Hits zen, hits, itsasoa, zerua bezain ilun. Jenden begitartek, euriak zafratu eta bustiak, ez zuten alegrantzia handirik erakusten. Ixil-ixila zoatzen, arrotz ala arraintzari, uraren harat-hunateri beha, gogoia itsasoko gauzez hartua.

Neska gazte batek *Maritxu* kantatzen zuen ostatu batean.

Berrogoitamar bat urteko gizon bat, mustatx ttipi batzuekin, pasatu zen ene ondoan, bi haur eskutik.

Neska eta mutikoa galde eta galde ari ziren.

—Aitatxi, zertako kexatzen da itsasoa denbora txarretan? —galdatzen zuen mutikoak.

—Oi, zerua samur delakotz.

—Eta zu, aitatxi, ez zinena izitzen batoa uraren gainean jauzteka hasten zelarik? —zion neskatxak.

—Oh! Ba!

—Otoitzean artzen dea orduan?

—Baduk aski lan untzia ezin atxikiz. Baina baktxak bere gogoari Jainkoari pentsatzen dik. Ixil-ixila...

—Eta aita? —galdatu zuen neskak.

—Ez dun itsasoa izigarri kexu gero gaur! Ez dun lotsatzekaik. Eta den lekuan, berdin atorrahas dion, iguzki samin baten pean. Urrun dun. Eskolan ikasia duna nuntsu ditaken?

—Nik ba.

Eta aitatxi bere bidean joan zen bi haurren erdian.

Gero, hantxet, emazteki xaharño bat ikusi dut agertzen, legarraren gainean, bakar-bakarrik. Ondotik uzten zituen bere urratsen hatzak, sigi-sagaka. Ba-tzuetan uhainen ondoraino lerratzen zen. Beldur nintzan emazteki txar hori, adinak urtua, uraren jostagai-lu izan zadin noiznahi. Doi-doia xutik zagon-eta!

Aztal-beharrietarainoko zaia luze ilun batekin zen. Bizkarrean pelerina beltz bat, buruan moto ilun bat. Uretik ateratua iduri zuen, hain zen ur hitsarekin berdintzen. Urrunerat ageri zen haren begitarteko bizar beltza. Oi zer begi ondo bortitzak, zer behako bortitza!

Arraintzari emazte bat, egin nuen ene baitan. Adinetako gizon baten ondoan gelditu nintzan. Arraintzaria zen, naski.

Emaztekoa guri buruz heldu zen, plaia guzian bere urrats ttipien herrestoak utziz.

Gaixoa, urari sobera hurbildu zen, eta uhai- nek horren zangoak atzeman zituzten. Deus ez zuen egin urari ihes egiteko. Bere bidean zonan.

Berriz ere urak zangoak busti ziozkan.

Emaztea bere bidean bazoan, beti, deus ez eta nehoi behatu gabe. Uhainek, orai, haren herresto guziak berdindu dituzte.

Uraren hotza ez zuela senditzen ere iduri zuen.

—Mentsa dea? —galdatu nuen nahi gabe ere ene ondoko arraintzariari.

—Oi, mentsa! Berdin! Zer nahi duzu! Egun guzietz, tenore huntan berean, aro eder ala txar, bere itzulua egiten du plaian. Gu ez gira harritzen. Ez diogu kasu handirik egiten ere. Orai hogoi bat urte baditu hola ikusten dugula. Eta menturaz harrituko zira, itsasoko gauzen berri ez badakizu, nola bilakatua den hola erraiten badautzut. Zonbat urte du? Nik orduan hogoitamabi urte nituen. Biziki ontsa oroitzen niz. Gauza horiek ez dira ahanzten. Orai hiruetan hogoitabi, aur-ten... Beraz hogoitamar urte egiten du...

Orduan *Maritxu* arraintzako untzi batean nabilan, itsasoz-itsaso, marluzketa. Joan dira, denbora hek ere... Emazteki horren senarra berriz, Gilen Burugorri, *Ave Mari*arekin zabilan. Oi, aspaldian nagusi berarekin zen. Hain zen gizona, Gilen. Gizon ona, gozoa. Uli bati ez zioz-

kan zangoak hautsiko. Ixila zen, gizona. Bizi zelarik nehork ez zin behatzen. Bera hain gordea zen eta! Halere Maider atzeman zuen egun batez, ezkontzeko...

Hor arraintzariak irri goxo bat egin zuen.

—Gero ba, hil eta, hau zela eta hura zela. Bainan berantxe. Beti bezala. Hemengo bizia hola da. Zer nahi duzu, jauna!

Ave Maria, bertze untzi batzuekin, Lur-Berrietarik heldu zen. Arin, biziki arin. Urte hartan marluzak ihes egina zuela iduri zuen. Gertatzen dena frangotan. Urte batzu badira hola, deubru fitsik ez baituzu biltzen ahal. Jainkoaren nahia! Eta guk deus ezin egin. Jasan behar, heldu den urtea hobea izanen dela gogoan hartuz.

Ave Maria hantxet, porturat hurbiltzean, harri-koz-kor bati kontra joan zen. Nehork ez daki nola. Ez du balio itsasoaren indarren ondotik ibiltzea. Deus ez duzu konprenituko. Jainkoa ez baduzu alde, itsasoa gauza hitsa duzu... Hala-koetan hobe duzu lurrean egoitea... Alta itsasoa gaur bezalatsu zen. Funtsean, lurrean ere, Jainkoa ez baduzu lagun...

Beraz untzia xehatu zen arrokari kontra. Bertze untziak berehala hurbildu ziren, baina berantxe, gizon bat falta... Gilen Burugorri.

Gizonik ixilena urak bereganat bildu zuen. Bortizki, esku errebes batez, sak! Deubru batek bezala bildu, ohartu gabe.

Nehork ez zuen erran itoa zela, hila. Baina bai galdua... Falta...

Bixtan da, emaztekoa trixte gelditu zela. Bertze guziak bizi. Gilen bakarrik falta. Haren gorputza ez da egundaino nihun agertu. Orai, ez du balio beha egoitea, ez...

Alarguntsa, bulta batez, ahal bezala bizi izan zen, bertze arraintzarien alarguntsak bezala. Jainkoaren kontsolamenduaren beha. Hola da, arraintzariaren bizia. Orai ba, gero deus. Uste gabetarik itsasoa samurtu delakotz, haizea jeiki, arroka bat gertatu urpean... Itsasoko bizian deuseri ez zira fidatzen ahal... Ez zira zure buruaren jabe, arraintzako untzi txar horietan. Itsasoa bortitza da, idorra gizonentzat. Eta zer nahi duzu egin Jainkoaren kontra?

Senarra hil eta hamar bat urteren buruan hola abiatu zen alarguntsa, plaian egunean eguneko itzuliaren egiten.

Lehen egunetan kondatzen zuen hamar bat urteren buruan bere senarra agertu zitzaiola gauaz, han, arrokaren gainean oihuka, oihuka! Gizona falta zela bakarrik buruan hartu zuen, ez eta hila... Funtsean beti, galdua dela diote jendeke ere.

Eta bere senarraren biderat doa hola, goiz guzietz, tenore huntan. Uste du hezur eta larru agertuko zaiola, Jesus bere hobitik bezala. Aments egin zuen eta egia dela uste du. Haren senarra bizi da. Ez zen bakar-bakarrik hiltzen ahal, hamasei gizonen artetik.

—Bainan, orai, mentsa dea?

—Oi mentsa?... Bixtan da aments horien ondotik hola ibiltzeko ez dela burutik arras xuxen. Bainan ez dugu irri egiten guk, arraintzari. Ez diogu mentsa erraiten. Sobera badakigu zer diren gauza horiek. Ainitz oroitzapen bada arraintzari baten bihotzean. Eta bihotza hain da beratza, hunkigarria. Guti aski ba-tzuetan! Gure lagunak oroitzapenak errespetatzen ditugu.

Menturaz ez dakikezu gizona zein heinetarat erortzen ahal den zorigaitz baten ondotik. Batzuetan zure penak jasanen ditzuzu, eta bertzetan, kasu berean... Zer nahi duzu egin, Jainkoa ez baduzu alde?... Hola da bizia. Ez gira beti gure buruaren nagusi... Jainko bat bada.

—Ainitz ama eta alargunts badea hola?

—Hein hortan guti. Bigarrena dut hola ikusten dutala. Lehen, oraino haurra nintzalarik, ama bat ikusi dut, mutxurdina, bere haur txarra hogoitamar urtetan galdurik, molde berean. Hura oihuka artzen zen. bere semeari, gauaz, plaian gaindi... Iduri zaut oraino hautemaiten dutala: *Piarres, Piarres, nun zira?...*

ETXEKOAK

Aita hila zuten, duela ordukotz hamar urte. Gehienak, Erramun, hameka urte zituen, eta bertzeak, Peyo, zortzi urte, aita azken egoitzarat lagundu zutelarik amaren bi aldetan emanik. Etxetik elizarat, elizatik hilerrietarat eta gero berriz etxerat amaren sahetsean ibiliak ziren, gaixo ama nigarrez hipaka hautemaiten zutela bere mantaleta beltxaren pean.

Gazte eta gurdo zen oraino emaztekoa, doi-doia hogoitamar urte bere senar maitea gerlan galdu zuelarik, tiro batek lepoa mozturik. Ezagutzerat eman ziotelarik bere senarra kutxa xuri baten barnean, bihotza hautsi zaion eta murrua bezain xuri lurrerat utzi zuen bere burua. Aguerdienta xorta bat edan arazi zioten eta begitartea usain goxoz perekatu iratzar arazteko.

Maite zuen bere senarra, emazte batek sekulan maite ukan ez duen bezala bere laguna hamabi urte ezkontzaren ondotik. Emazte ona zen bere senarrarentzat. Ez zion deus ñaukela-keriarik egiten, emazte frangori atsegin zaioten

bezala... Jaterat eta edaterat emaiten zion ausarki, beti haren ona bilatuz. Funtsean ezkont aintzinean zuten amodio bera eta suhar hura bera zaukaten bihotzean batak bertzearentzat. Eta fidantzia bera ere bai. Goizik elgarretartuak, bainan amodio handi eta bizi baten jostura sanoek azkar zeraukaten elgarren arteko lokarria.

Bainan gerla jin zen, gerla ikaragarria, deubruz egina, eta bortxaz utzi behar harat norapait joaiterat nahi den bezain maite den mutikoa, izan dadien ezkondua ala donadoa oraino. Gerlak ez du behatzen aita bat, ama bat, ala seme bat duen hiltzen. Xakurrez berdin...

Gerlarateko bidea hartzearekin, Piarreñok, beti zuhurtzia gogoan eta ziolarik bere baitan: «Ez baniz hiltzen, hobe, gero ere urratu ahalko diat; bainan segurtamen batek ene emaztea balio dik». Gerlarakoan beraz Piarreño bere notariaren etxean iragan zen eta zentzurik hobereanean, elkordura eta itsudurarik gabe, bere ondoriotasuna egin.

Haren hil egunetik hamar urteren buruan ideki-tzeko baimena emana zion lege-gizonari, bere emaztearen ixilik.

Maite, begi eta matelak ontsa ilunik, etsi-etsia bere bizi berriari lotu zen ezinbertzean, frangotan bere senar zenaz oroitzen zela. Oherakoan, bere bi haurño onak beren ganbaran etzan arazi eta aitarentzat zombait otoitz eginik, bere ganbaran sartzen zen, eta han, burua nigarretan atxikitzen zuen senarraren esposeko arropa beltzetan. Ezen etxerat ekarri zutelarik Piarreño, ez zuen gogorat eman ere gorputzaren aldatzea eta bere gerlari arropetan joan zen zeruko zorionerat. Maitek ez baitzuen asmatzen ahal holako gizon on bat zerutik baztertua izan zadien, eta bazuen fidantza Jainkoaren graziak behar zena egin zutela.

Zombait hilabeteren buruan, gerla gelditu aintzin, Maitek jakin zuen aintzindariak berak izkiriaturik, Piarreñok gerlako kurutzea ukaiten zuela, ikusiz haren bihotza suaren pean, haren eskualdun odolaren indar gaitza eta holako terrenteria batzu. Maiteren hisdura oraino barnago sartu zen iduriz, ez baitzezaken konpreni

holako gizon bihozdunek hoin gazterik hil behar duten. Handitu baizik ez zen Piarreñoren estimua alarguntsaren bihotzean.

Senar zenaren ordaintzeko lur lanetan, eta baitzakien ez dela burua mundu huntako herstura eta nahigabeen peko jartzerat utzi behar, mutil bat gotorra hartu zuen bere zerbitzuko. Ez zen ez beldur, bera ere, alorrerat aitzur bat bizkarrean joaiteko arto jorratzerat, xixpa batekin belar kargatzerat eta holako. Etxean egonez ere zango bat bertzearen gainean, beti bere senar zenaren oroitzapen dorpea heldu zaion gogoaren trixtatzerat. Han bederen aire zabalean, lanari borroka, iguzki gorriaren pean edo haizearen erdian, gogoeta hitsek ez zuten haren buruaz jabetzeko denborarik. Zorigaitzez gogoeta ilun horietarik heldu bazaizkon, amodiozko kantu alegera bati lotzen zen bera balinbazen, edo mutilarekin solasean hasten bat-batean, batere funtsik gabe. Egin ahalak egiten zituen bere buruaren arintzeko oroitzapen beltzaren aztaparretarik.

Asea zen hondarrean nigarrez, asea bortz urtez ixuri nigar bero eta ilun heietaz. Eta bere

buruarekin egiten hasia zen, askitto ardua, ez zuela, funtserat-eta, beti gizon hil baten esklabo egon behar, iduri eta biharko den azken jua-mendua eta arimek elgar ikustea. Beraz xede hortarat Piarreñoren esposeko jauntzi beltz lerdan eta pollita saldu zuen piltzarketariari berrehun liberetan, ikusiz dena nigarrez desberdindua zela eta plantako nehork ez zuela berriz soinean ekartzeko gutziaz ukanen. Azekirat aurtiki zituen borts urtez oroitzapen gisa begiratu zapeta mutzituak, espartin erraustatuak, mokanes bat haren buruko odolez gorritua, eta ordu artio hunki nahi ez zituen puskeria guziak. Etxe handi hartarik senar zenari eratxikiak ziren gauza guziak haizarazi nahi ukan zituen sorginen madarizione batzu bezala.

Urteak jin, urteak joan, oroitzapen horien hondarrean errotik ezeztatzerat heldu zen emazteki dohakabea. Erramunek orai hogoitabat urte bazituen, Peyok hemezortzi doi-doia. Hunen bihotzean oraino aitaren oroitzapena doi bat bizirik zagon. Bainan amak Erramunen gogo aiseago bere nahietarat moldatu zuen. Ama aitaren oroitzapenen barreatzen hasi zelarik, Peyok

beti bihotzean halako ximiko bat senditzen zuen eta amari bere gogoan egin arazi ahal ukan bazuen ez zituen utziko gauza saildu horiek piltzarketariari saltzerat edo errekan beheiti igortzerat. Erramun berriz, ordukotz gizondua bezala eta bere onari behatuz, amaren alde zen, baik eta pusmila zahar horiek gogoeta ilunak pitzarazten dituztela eta etxea usaintzen, eta hor gaindi egonez zapeta zilatu horiek norbait eror arazten ahal dutela eta beso bat aise dela hautsia. Amak atsegin zuen beraz holako seme baten ukaitea, haren erraneri behatzen zuena. Eta senarrak, igande batez bakarrik zirelarik supazter xokoan, elgarrekin beren haurren geroz mintzo, aipatua baitzuen: «Gutarik azkenik lur huntan gelditzen denak ikusiko du nor ezar ondoko», jadanik Maitek Erramun hautatua zuen, Erramun mutiko gixakoa, harek egin eta erranak on-tsa atxemaiten zituena.

Peyo, iduriz mutiko huts eta ezdeusa, eskolarat igorria zuten, etxetik urrun, hura baino ziri bat hobe zela, eta adin hortan, sendimenduak gogoan atxiki behar badira, aski direla bulego

zoko zombaitetan mutzitu gabe zaintzea, lurrak lana galdaten duela eta ez bertzerik.

Eta senar zena duela bederatzi urte hilerrietarat nigarrez lagundu-eta, delako etxerat bildua zuen mutil harekin ezkondu zen, deus ahalgerik gabe. Nagusi berriak etxea oraino hobeki garbitu zuen... Erramunek beti bezala, onartu zuen gogotik, deus ez zuela galtzen, harendako izanen zela berdin etxaldea ama kanpokoa zenaz geroz, hura premua, eta Peyo apeztuko zitakelakoan...

Peyok ez zuen holakorik onartu nahi ukan.

Eta delako hamar urteak iragan ziren hola-hola ohartu gabean ere; eta bakantza egun batez, uztailaren hemezortzian, Piarreñoren hiltzearen mugaburua egunez-egun, uste gabetarik, lege-gizona Hargainerat etorri zitzaioten bi lekukorekin eta galdatu:

—Oroit zirea zu, etxekanderea, zure senar zenaz?

—Bo, zer erraitekoa? Hamar urte hila dela! Ez ditake beti hil bat gogoan egon araziz?

—Eta zuek haurrak, zer diozue?

—Zer nahi duzu erran dezadan? —dio Erramunek—. Amak erraiten duen bezala, hilak hil dira; eta ez du balio hek gogoan egoitea.

—Nik segurik ez dezaket ahantz gaixo aita.

Eta Peyo nigarrez hasi zen burua mahain idorraren gainean emanik.

Lege-gizonak, Piarreñok artamendatu bezala, bertze bi gizonen aintzinean egin zituen galde horiek, eta gero irakurtu etxekoeri paper horitu batetarik:

«Ene etxaldeak uzten ditut ene emazteari ni hil eta hamar urteren buruan ez bada, ni ahantzirik, berriz ezkondua. Gero harek utziko ditu berriz semerik hoberenari.

Ene emaztea ezkondua bada eta ni ahantzia banu, semeeri galdatuko diozute nitaz oroit direnez. Ez banute ahantzia, Hargaina Erramunentzat uzten dut, Errekaldea Peyorentzat. Biek ahantzia banute ene ontasun guziak salduak izanzen dira ospitale baten egiteko.

Seme bat oraino ni gogoan badago, harek bilduko ditu ene ontasun guziak, eta bertzeak kanporat joanen dira.

Badut fidantzia zutan, ene lege-gizona.

Piarreño Hegalde»

Eta lege-gizonak behar zena egin zuen.

INTZAURRONDOA

Denbora ederrak doatzi lurrarentzat. Uztailea da; hitzak poliki erraiten duen bezala, uzten hila-betea. Eskual-Herriko mendi-mazela perdetan belarrak lodi eta gizen dira zelai xabalenetan bezala, ogiak ere zonbeit egunen buruko epaite-rat jinak, mahastiak ez du aspaldian holako itxura pollita izan, eta laborariak, holaxet, badute beren ganer, sabai eta sotoen ontsa betetzeko esperantxa goxo eta altxagarria.

Bainan Harrixuri eta Urtebi egundaino izan ez diren bezala kexu daude, samur, kopeta ilun, begiak zorrotz eta burua gora. Bi auzo hurbile-nek ez dute bortsu urte hootan hitz bat elgarri erraiten, baxotxa bizi da bere etxean bere familiarekin, auzoa begiko zikina baino gehiago ez dezakela jasan. Inguruak ixilik daude, baxotxa berea gogoan, ez badira egundaino hizkatu ere eta are gutiago joka artzerat menturatu. Alta egun guzietan, memento guzietan, bi familiak, ez badira bederen beren barnetan hetsirik egoiten, mentsu batzu bezala, elgarren sudurpean bizi

dira. Alabainan Harrixuria Urtebitik hogoi urratsetan da... Bi etxe mendi aldean, bakarrik, bertzte etxetarik urrun.

Zer gertatu zaiote bada bi familia gaixo horieri, batek bertzeari holako begi ukaldi beltzaren emaitako? Intzaurrondo bat... Bai, intzaurrondo bat bakarrik, intzaurrondo zahar bat, ehun urte hurbil dituen eta bere adar nasai eta zabaletarik hiru gaitzuru intzaur ixurtzen dituen Harrixuriko pentzerat eta hiru gaitzuru Urtebiko landarat. Ondo gotorra, lodi eta gora, bi metra inguru baditu bederen. Bi alorrak berexten dituen hesian bizi da egundainotik eta ehun urte ereman ditu gusturik hoberenean, nehorri ez zuela kalterik egiten edo aharrarik emaiten, nehork ez zuela ere madarikatzen eta higuinzen. Gaixo arbola, nehork erran gabe egun batez sortu zen leku txar hortan, Jainkoak hala nahi zuelakotz... Ordu artio nehork ez zuen aipatzen, denena eta nehorena zen. Harrixuriko etxekandereak biltzen zituen haren alderdirat erori intzaurrak, Urtebikoak berdin...

Zer intzaur ederrak, dio Harrixuriko Juanañok Urtebiko Mañañari, bakotxa bere uzta poxiaren

bil-tzen ari direla, irria frango eginez eta herriko berriak xeheki jorratuz, intzaurrondoaren itzalpe ez-tian.

Bai Harrixuritarrak, aita, ama eta semea, bai Urtebitarrak, aita, ama eta alaba, horren itzalpean pausa-tzen ziren beren lan dorpeen artetik, hor egiten beren atsalaskari puxka, hor solasean elgarrekin artzen, hor irri egiten, hor beren izerdiak xukatzen, euria zelarik horren aterberat elkarrekin biltzen...

Bainan horra nun lur huntako aiseria berriek bake eta zorion gozo hori mustupilkatu behar zuten egun batez, duela bortz urte abantxu egunez egun. Intzaurra bizi zen hesia, betidanik Urtebikoen gain zen. Horiek mozten zuten hesia, ziloak hesten, batzuetan elorri zuri batzu landatzen han-hemenka... Funtsean, Urtebiko hesia zen...

Beraz, Urtebiko Joanesek, lanaren errexteko eta alor inguruen poxi bat gurbiltzeko, hesia errotik atera zuen eta alanbre xixpadunez egin zerradura, bere alderdian hesten zuela intzaurrondoa. Hain ziren adixkide, Joanes eta Josep nun harek ez baitzuen galdatu auzoari zer egin

intzaurrondoaz... Ez zuen hor deus gaixtakeriarik egin nahi izan, bainan, gizon guziek bezala, bere baitan bizi zuen jabetzeko nahikeriaren deubrukeria. Eta jabetuz geroz urrats bat gibelerat ez egin nahi.

Eta horra nun, dretxo berekin, Harrixurik dion: «Zertako da intzaurrondo hori Urtebikoa eta ez enea? Orai arte hiruna gaitzurutara emaiten zaukun. Eta orai intzaurrondoaz jabetzen bada, itzala eta hiru gai-tzuruak utzirik ere, ni naiz galtzetan beti... Enea duk intzaurrondo hori!...»

Horra zertarik samurtu ziren bi auzoak. Ez zuten ez batek ez bertzeak horgo intzaurren biltzeko lanik. Bele, pika, garratoin eta urtxintxak ederki goxatzen ziren anartean Jainkoaren lorian...

* * *

Bortz urteren buruan oraino intzaurrondoak, beti zahartzen ari izanagatik, uzta ederrenaren itxura erakusten zuen bertze uztek bezala urte hartan. Bainan gure auzoak beti samur...

Egun heetan herri guziko belarrak egintxeak ziren, bainan Urtebik gaineko pentze guzia lurrean zuen, zabal-zabala. Goizean, leher egiteko bero dorpearen pean, Joanes, Joanaño eta Maitek, saka-saka, belarreri emana zioten azken higialdi bat eskuz, ontsa baino hobekiago egin nahiz, bazka gizen horiek izan ziten ezinago sano eta usain onekoak. Beren denbora guzia hartzen zuten azken belarrak zirelakoan...

Bazkalondoan, aroari soño bat egin eta, etzernaldi poxi baten egiterat joan ziren guziak. Zeruak ez zuen itxura gaixtorik, hantxet lano dilinda txar batzuingatik...

Lo kixkaño bat egin orduko, kirrin-karran hasten da sabaiko leihoa. Kurrinka hori hauteman orduko joanesek ohetik jauzi egiten du eta kanporat joaiten. Aspaldian ikasia zuen kurrinka horrek zer erran nahi zuen... Zerua beltzatzen ari da.

Ama-alabak ere jeikitzen dira eta tarrapatan pen-tzerat abiatzen.

Zaldia uztarturik Joanes hasten da belarren biltzen mekanikarekin, Joanaño eta Maite pulatzen gibeletik zoin gehiagoka, begi zorrotz eta

ilun batzu itzultzen dituztela artetan zero alde-
rat. Euria ez da urrun. Zer sapa lano apal eta
itsusi horien azpian!

Berehala ortzantza burrunbaka hasten da.
Ximixtek, bat bertzearen ondotik, sutan emaiten
dute, zipirti-zaparta, aire iluna.

Harrixuritarrak leihotik so daude gaineko
pentzerat buruz. Harrixurik, sobera erakusterat
eman gabe, ageri du zerbait atsegin hartzen
duela bere auzoen tarrapatez eta egin ahalez.

—Erre balite bederen —dio bet-betan irri
goxo batekin bere semeari—.

Orduan, brau, semea xutitzen da eta kanpo-
rat doa xixpa bat bizkarrean eta lasterka gaine-
ko pentzerat heltzen...Eta, hitz bat erran gabe,
briu-brau, pulatzen hasten da.

Ortzantz eta ximixtek, ilunpean, egiten dute
karraska eta su...

Pentzean lau jende ikaragarriko aro gaixtoa-
rekin.

Biga leihotik so oraino, aterbean, berena
gogoan, hek ere ixil-ixila...

Zirt! Ortzia hantxet erori da. Langileak, ixilik, berenari ari dira. Zerua samur da... Euria burrustan hasten eta lana utzi behar... Kopetak izerdi, belarrak lohitzen ari.

Joanes hurbiltzen da Beñatenganat eta erraiten dio, kasik nigarretan eta mintzoa daldaran:

—Milesker Beñat, esker mila, haugi gure etxerat, gurekin afalduko hiz.

—Milesker, Joanes, etxean ere atxemanen dut ene gorputzaren doia. Ez du ene gorputzak hanbat sofri-tzen...

Bakotxa bere etxean sartu ziren euriaren pean.

* * *

Bi hilabeteren buruan bazen alegrantzia Urtebian eta Harrixurian, ezen buruilaren hogoitabian Beñat eta Maite ezkondu baitziren Jainkoaren aintzinean. In-tzaurrondoa aurtiki zuten eta herriko mahasturu hoberenari eginarazi ganbara eder bat. Bi etxaldeak elgarretaratu zituzten, Eskual-Herriko etxalderik ederrena egiten zute-

1a. Mekanikak erosi zituzten, etxeak lilia bezala ezarri eta alorrek eta Jainkoak, urte hartan bezala, eman zioten, beti, etxean koka ahala uzta eta zorion.

ILUN-ONDO

Gerezitein, abendoko egun batez, beren behi lanak bururatuxeak dituzte. Aberer arbi xehatua emanik, gero deitzi dituzte. Azken kotxutara nagusiak ereman du sukaldetat, oraino dena haguna, epel-epela.

Nagusiak dio, esnari lotuz geroz haren bizia ederki kanbiatu dela. Gerezitein ainitz alor pentze utziak dituzte, duelako zonbait urte hotan eta esnari jokatuak dira. Lehenagoko behi idor hek, laneko baizik on ez zirenak, kendu dituzte. Barrukia arrunt berritua dute. Alor malda guziak, iraultzeko eta lantzeko neke ziren lurrak pentze ezarriak dituzte. Lur erretxak landa atxiki dituzte artoaren eta arbiaren egiteko. Eta pentze batzu ibiltzeko on zirenak landa eman...

Ikaragarriko hotza izanki eta Peyo, sukaldeko mahain gainean kotxia pausatu orduko supazterrerat hurbildu da eta suaren aintzinean belauniko, eskuak garrari so, torratuz, berotzen ari da.

Deitz-ondo guziez, bi urte hotan bederen bere semeak uzten zituen behieri azken belar

poxi baten emaiterat. Hastean barrukitik kasu emaiten zuen heian zer heinetan botatzen zuten belarra ziloetan behera. Bainan orai Ttotek eta Beñatek, hemezortzi eta hamasei urtetan bada-kite, aitak bezain ontsa, abereak nola bazka belar idorra ez eskasteko gisan urtearen buruan. Xaz gelditua da Ttote laborantxako eskolatik bere diploma bildurik.

Belarra ateraturik eta Beñat mañateretarat aurtikitzerat doala, Ttote leihorat badoa heian zeruak bihar ere, gaur bezala, sekulako hotzaren egiteko itxura erakusten duenez.

Zerua garbi dago. Argizagia kanpoan da, iza- rrez inguratua. Herria bakean sartua da. Jendeak barnean ari dira lanean xinaurri batzu bezala. Bizia orai barrukietan da, sabaietan eta sukalde- tan.

Airea bipila izanagatik bere sudurra kanpoan dauka mutiko gazteak. Eta hura bere lanari ari hozpildua, Beñatek galdatzen du:

—Lokartzen ari hiza, to, leiho hortan?

—Haugi!

—Zer duk ala uste haize goxo horren gutizia dutan!

—Haugi!

Beñat leihorat badoa.

—Hautemak!

—Elizako zeinua!

—Ba, izigarri apal. Alta bihar ez duk igande ez bestaburu.

—Tenore huntan zeinuak hola zanpaka, zombait etxetan su dukek. Joan behar diagu...

Sabaitik beheiti jausten dira lasterka, erranez:

—Aita nunbait su duxu.

—Su?

—Zeinuak zanpaka ari ditxu auzo herrian... Nun dira zedoak?...Ama zedoak? Xerka hadi hi ere Mayi!...

—To bainan zikino duk.

—Are ekar hunat...

—Josep, ene botak!...

—Banioak otoaren ateratzerat.

—Ba.

—Kasu bide horietan. Zeina abiatu aintzin!
Eta otoan sarturik badoatzi bi anaiak auzo herrirat buruz.

—Benttako Xarlex hortxet duk, geldi hadi!

Eta gizon bat barnean hartzen dute, hura ere su hiltzerat abian lasterka!

Gereziteiko nagusi-etxekandereak bortaintzinerat ateraiak dira, beren bi seme-alaba ttipiekin, Mayi eta Josep.

Ezagutzen dute zeinuak nundik ari diren. Apal-apala heltzen dira heien beharrietarat. Ixilixila daude lauak, hotza ahantzirik, harat norapait so, begiak tente, bi mendiren arterat.

—Ez dira ixiltzen, eh? —dio amak.

Gizon bat bidean iragaiten da erdi lasterka, zedo bat eskuetan trangelatuz.

—Su! —oihu egiten du Gereziteikoak kanpogan ikusiz.

—Joanak dira; gure mutiko hek ere! —dio amak.

Zanpa-zanpa, musika ilun eta dorpe bat bezala, auzo herriko ezkiak, mendiengatik, jenderi erraiten diote etxe bat sutan dela. Usaia zahar batek hola nahi du, zerbait makur izigarri gertatzen delarik auzoak husten dira ezkiak jo eta jo. Orok, zeinu trixte horiek entzutearekin, badakite zertsu gertatzen den: sua, sua!

Ezkilak gauaz, gauza itsusia, ikaragarria. Bat-batean jenden gogoak kanbiatzen da.

Jenden gorputzak berak halako ikara hits batek hartzen ditu.

Nahiz urrunetik heldu diren hanbat eziturik, beti badaukate, gauaz hasteko, ezkilek, zerbait jenden gogoak asalda arazten dituenik... Zinez... Ainitz gauza beltz heldu dira bururat, sua, sua...

Hil-zeinuak entzutearekin bakotxak bere baitan egiten du: *nor da hila?* Hola-hola ezkilak jo eta jo hautemaitearekin tenorez kanpo gogoan pasatzen da galde ilun hau: *Nun da su?* Bai nun da su?

Orduan denak ahanzten dira, guti edo aski, ergel-keriak, irriak eta herrak eta samurgoak berdin... Zeren gogoan iragaiten da ilundura bat hitsa: Etxean su! Eta bakotxa bere etxeari so jartzten da, ikusiz oraino zer gerta zitaken...

—Zer trixtezia!

Eta bi hitz horiek hainbertze bihotz-minekin erranik Gereziteiko nagusia sukalderat badoa eta afaiten hasten, bakarrik. Sukalde hutsa senditzen du. Jatekoak mahain gainean daude bero-

rik, zaku baten artean. Sukaldean sua bada, bainan Gerezteien barnea hotz dago, ilun.

Ama bere haurrekin sartzen da.

Ixil-ixila; denak mahainaren inguruan jartzen dira.

Gero haurrak elgarrekin ari dira, beren gisako solasetan.

—Nun izaiten ahal da sua? Bidexaharrean, Errepillaren etxean?

—Edo Bigotenean. Badakik Josep, joan den egunean hemen izan baita gizon bat, haren etxean!

—Zer irriak egin gintien orduan. Erran apeza-
ren ixtorio hura!... Nik, Errekaldia ere ezagutzen
dinat, bide bazterreko etxe handi hura, badakin!
Berdin han dun sua. Zer jokutzen dun han dela?

—Jainkoak begira gaitzala etxean suaren
ikustetik —dio amak—. Denak asaldatuak, bat
hunat, bertze bat harat, kiski-kaska. Behiak orro-
az, zakurra ihausika; dena ketan. Oi, zer itsuske-
ria! Etxekoak izituak, deus ezin egin, bertzek
arta hartu behar denetaz. Aita oihuka, ama niga-
rrez, haurrak nigarrez eta garrasika, amari azta-
parka lotuak... Jainko maitea!...

Eta etxeko behiak orroaz hasten dira. Mutikokak behi batzu bazkatzeko utzirik joanak dira. Behien orro latzak Peyo Gereziteien barnea hunkitu du. Iduri luke etxearen teilatua beheiti ari dela eta guzien lehertzerat doala.

Nagusia badoa sabairat, belar hondarraren emaiterat.

Etxe guzietan argiak piztu dira.

Bulta baten buruan jausten delarik, behien bazkatzeko behar zuen baino gehiago denbora emanik, Mayik galdatzen du berehala:

—Ari direa oraino?

—Bai.

Gerezitei supazter xokoan jartzen da. Kaseta bat hartzen du eta irakurtzeari emaiten.

Berrogoitamasei urtetan gizona ontsa bipila da. Kaskoko bilo guziak eroriak ditu eta boneta-
ren petik, kopetan gora, larru legun argi bat ageri du. Ez mehe, ez gizen, arteko gizon pollit bat.

Bi haurrek kanpoan itzuli bat egiten dute.

—Zer hotza! Beti berdin!

—Etxu atertzen ama!

Bakea laiteke zeinu horiek ez batire ageri.

Bat-batean, brau, Peyok kasetak mahain ttipiaren gainerat botatzen du.

—Ez da berri onik, ez? —galdatzen du etxekandereak.

—Ez dakit hori!... —ihardesten du senarrak suari so eginez, begiak galduak, ezpainak doi-doia higituz.

Haurrak dira mintzo.

—Ezagutzen duka, Josep, Errekaldeko gizon hura, animaleko sudurra baitu. Erran, zer pimentona!...

—Ba asteartean ikusia diat hemen pasatzen. Merkatutik heldu zitakean. Ez dakiat zer iduri zuen gibeletik! Bizikleta eskuan jautsia dik malda hori. Dena sigi-saga...

—Badakina nork ezarria dion Pimenton izen-goitia?

—Ez!

—Hegoaldeko tripa handi hark! Duela zombait urte goizalderat, Mendigibeletik heldu zitian, biak, ogi joi-tetik. Trenpian omen zitian gero! Mendiari behera zeharka heldu zitian. Eta orduan Hegoaldek, bere begi ttipiekin, bere sator begiekin Errekalderi: *Bazter hadi mutikoa!*

Herri guzia gordetzen datak hire Pimenton haundi horrekin!

Bi haurrak irriz arizan ziren gozoki ixtorio hortaz, aitamak ixilik zaudelarik, bertzerik gogoan.

—Ama gure etxea baino handiagoa da Errekaldia? —galdatzen du mutiko ttipiak.

—Berdintsu... Puxka bat handixago berdin nik uste.

—Eta mendi zoko hartan baita etxe zahar bat izigarri apala, kantoniterraren etxea dea hura?...

Hola hola bi oren luze badoatzi. Hondarrean bi semeak etxerat heltzen dira.

Beñat sukaldean sartzen da bi zedoak eskuan.

—Nun zen? —galdatzen du aitak.

—Errekaldian!

—Errekaldian.

—Hara no, Mayi, nik errana! —dio berehala Josep ttipiak.

—Hil duzea?

—Ba.

—Ontsa egin duzie.

—Bainan dena erre duxu, beltz-beltza... Etxekoak osorik atera ditxu, zazpi haur ttipi, ttipienak hamar hilabete.

—Bat edo biga hartzen ahal zinuzten ba.

Errekaldek eta Gereziteiek ez zuten aspaldian elgarri adiorik erraiten.

DONADOA

Iturretxeko Eñaut donado gelditua zen eta hiruetan hogoitamar urte bazituen. Erraiten zuen nahi ukan balu ezkondua izaiten ahal zela, lauetan berdin, bere bizian, eta nolako etxeko alabekin! Atseginekin aipa-tzen zuen hogoitamar urtetan, haren gibeletik ibilia zen neska gazte baten ixtorioa. Nik uste Donapaleu alderdiko etxalde handi batetako andregai bat zen. Bortz urtez segidan han erosiak ukanak zituen ardien bazkak. Alorrak mahain hau bezain ordoki omen ziren, eta gizenak. Laneko ez baitu berdin balio.

Iturretxea Garaziko maldetan hedatua zen. Ikusazue zombait ez zirenez gutiziatuko Amikuze-ko etxalde ederrean sartzeaz. Eta gehiago zena, neskak zuen galdatua lagun, etxekoek onaturik. Bainan ez, Eñautek donado egon nahiago zuela ihardetsi zion, garbi-garbia. Eta neska trixterik gelditu omen zen, batere samurtu gabe haatik. Oraino, adinean harat joanak izanagatik ere, elgarrekin solastatzen ziren, Donapaleuko merkatuetan kausitzen zirelarik. Eta berdin Graxiren

haurrez mintzatzen ziren, adixkide zahar batzu bezala. Graxiren senarraz egundaino...

Ohore zitzaion ere bertze hiru etxeko alaba hartaz hartuak izanik eta berek senartzat galdu turik. Hiruer eza eman zioten, berdin-berdina, ardien amodioa azkarrago zuelakotz bihotzean.

Eta artzaina bere artaldeaz mintzatzen zen, mutiko bat bere emaztegia bezala, aita bat bere hurrez bezala, amodio berarekin, atsegin berarekin, ohore berarekin. Artzain izaiteko sortua zen.

Nola moldatua zuen bere ehun burutako artalde hori? Emeki-emeki, berak bere gostuz, bere lana dela medio. Ardiendako bizi zen, aita bat bere haurrentzat bezala, edo hobeki ama bat bere haurrentzat bezala. Egiten zituen sos guziak ardietan ezartzen zituen. Hogoitertean herriko nagusi batentzat artzain sartu zen. Orduan, nagusiaren artaldearen aldean, zombait ardi hazi zituen. Holaxet berrogoitamar burutarat heldu zen.

Neguan etxalde ttipi batean ezartzen zituen bazketan. Udan berak zaintzen zituen bortuan.

Kontrabanda poxi bat ere egiten zuen. Bainan ez zen erraiteko kontrabandixta. Artzaina zen oroz lehen. Kontrabandixta zen bere ardi-entzat. Eta mozkinak oro bere artaldearen handitzeko, edertzeko xahutzen zituen. Denak ardi-entzat, beti.

Etxeko partea hunki zuelarik, berrogoi ardi erosi zituen ukaldian, berak zakien artalde ttipi bat osoa. Artalde hura saltzerat jina zen. Eta ardi hek berak zaintzen zituen, udan, bortuan, nagusiaren eta beraren multxoarekin. Bazakien ardi onak zirela, esnadunak, sanoak. Aspaldian begi-bistatuak zituen.

Eta egun batez heien nagusia jin zitzaion galdez saldu nahi luzkela, sos beharretan zelakotz alabaren dotearen muntatzeko. Eta horra nola Eñautek Mentaxuriko artaldea erosi zuen.

Ehun eta hogoi ardi bazituen orduan. Eta hogoitabortz urtetan nagusi jarri zen. Bere ardiak hobeki maitatu ahal ukan zituen. Osoki heieri jokatu zen. Heietaz baizik ez zakien mintzatzen, ihiztari bat bere balentriez bezala.

Artzain azkarra zela erraiten zuten. Denak ados ziren erraiteko mereximendu handiak bazi-

tuela, deusetarik hasirik, hein hartarat heltzeko. Gogo txarreko gizonak, bekaizgoa bihotzean lotua dutenek, erraiten zuten ohointzaz bildua zuela bere ontasuna, eta suerteak emanik. Ez zuten sinesten ahal, gizon bat, eta guziz Iturretxeko seme bat, hortaratzen ahal zela bere izerdiaren gostuz.

Etxean ezkondurik zen seme gehienak sei haur ukan zituen, lau mutiko eta bi neska. Domingok aski pena ikusten zuen bere familia-
ren hazten, etxaldea aski ona izanik ere. Kenka bat txarra pasatu behar ukan zuen bereziki, alabaño bat biziki eri egon zaiolarik, zortzi urtetan. Sei hilabetez ospitalean atxiki zuten, eta gero zer xahutzeak. Urtearen itzulikatzerat ahal bezala heltzen ziren. Bainan Eñautek laguntza handia ekarri zuen bere etxekoeri. Anaiaren haurrak bere haurrak izan balire bezala maite zituen.

Eta bere baitan egina zuen Domingoren semeetarik bati utziko zuela bere artaldea. Ainitz urtez bere ilobak maitatu zituen, denak berdin, denak haren seme-alabak izan balire bezala. Maitatzen zituen, bainan batere mindulinkeriarik

gabe, sanoki, gizonki. Bere ideia bazuen, harek ere, haurren hazteko moldearen gainean.

Haurrek ttipidanik bizitzen ikasi behar dutela zion, beren heinean. Gero egiazko bizian, bizi handian sartzen direlarik, ontsa heziak dira. Biziaren berri badakite ordukotz. Eta ez dira orduan sobera harrituko, mundua gaixto, neke eta idorxko atxemaiten badute. Berak ikusiak eta frogatuak zituen gauzez mintzo zitaken. Bere haur denbora hola iragana zuen. Eta bazakien bizi goixtiar horren balioa.

Ilobak handitzen ari zirelarik behatzen zuen zoinak erakusten zuen artzaingoko gosturik hoberena, zoinak ekartzen zituen haren dohainak, haren begietako sua. Hiru mutiko gehienak, ez zazkon iduritu haren segidaren hartzeko kapable zirela. Beraz Luis hautatu zuen, ilobetan gaztena.

Hamabortz urtetan berekin ereman zuen borturat.

Atsegin ukan zuen Luis haren iduria agertzen ohartu zelarik, berak ardientzat zuen amodio ezin utzizkoarekin.

Lusek bortua maite zuen. Ez zen beldur gau ilunarekin hango oihan beltzetan gaindi ibiltzeko ardi errebelatu baten bila. Eñautek zion, Lusek odolean zuela, harek bezala, ardien amodioa.

«Bainan ez da menturaz ni bezala donado geldituko, denborak kanbiatuak baitira».

Bazketarat jausteko irian ardi bat galdu zuten. Luis goizeko bietan sartu zen etxolan, bezpera guzia ardiaren xerka ibilirik. Oseba ohean etzanik zagon, bainan begiak hetsi gabe, bere ilobaren beha.

—Atxeman duka?

—Bai, hila. Mendi guzia ikertu dut, batzuetan bi aldiz pasatuz leku berean. Hantxet, Beraineko etxolaren gainekaldean, arroka baten artean atxeman dut. Hiruetan pasatua nintzan inguru heetan. Ahalge nintzan hemen sartzeko ardi haren berri jakin gabe. Ez nuen hotzik senditzen. Ardi haren atxemaiteko esperantxak indarrak emaiten zaizkitan. Bizirik ekartzea uste nuen.

—Ontsa duk mutikoa —erran zuen artzain zaharrak bere esku zabala Luisen sorbaldan pasatuz—. Etzan hadi... A! to! gose izan behar

duk... Xingar eta arroltze erreko deat. Bero-beroa janen duk.

—Ez du balio, oseba, ni bezain akitua iduri duzu ardi haren arranguran.

—Ez. Etzan hadi ixtant bat. Badakiat zer den ardi baten bila ibiltzea. Gose hiz.

Bazketarat joateko tenorea hurbiltzen hasia zen. Hotzak uste baino lehen abiatuak ziren. Biharamun goizean ikaragarriko izotz batek zuri-zuria ezarriak zituen mendi kasko hek guziak. Arbolen adarrek hilak iduri zuten, beltz elur xuriaren azpian.

Gau hartan artzain zaharrak ez zuen lo handirik egin. Ez zen bere gostuan. Iratzartu zelarik, Eñaut halako arrangura batek hartu zuen. Gauaz lotarik aments txar batzu eginak zituen. Bere ardiari pentsatzen zuen. Uste ukan zuen Luisek gezur bat errana ziola, hari atse-gin egiteko eta bere buruaren garbitzeko. Alta ez zeza-ken onart iloba halakoa zela.

—Hondarrean zer da haraino joatea, ardiaren ikusterat. Egun guzia ene eskuko diat —pentsatzen zuen.

Segur nahi zuen izan ardi hura hila zela, berak ikusi, han arroka-zilo batean itzulipurdikatu, erroz-gora, begiak odoletan. Ez zuen hola baizik sinesten ahal ardi haren galtzea. Iduritzen zitzaion oraino bizirik ikusten zuela hantxet, berrehun ardiren erdian alhan ari, bortuko belar meheari tiraka.

—Alta egia izan behar dik, hila duk ardi hura. Luisek erranez geroz... Eta bizkitartean...

Ardi hura ez zuen bertzeak baino maiteago. Denentzat amodio bera zuen, aita on batek bere haur guzientzat duen amodio hura, hautura txarrik gabe. Aitamek beren haurrak, artzain batek bere ardiak Jainkoaren ondotik.

Askalondoan, ilobari erranik egur poxi baten bil-tzerat zoala neguko, ez urrun, Eñaut abiatu zen Berai-neko etxolari buruz. Ontsa ezagutzen zuen Luisek esplikatu arroka-zilo hura. Lehenago ere ardiketa ibilia zen, frangotan, alderdi heetan, bortu zoko guzietan bezala. Hiruetan hogoitamar urtetan bortuko arroka guziak ezagutzen ahal zituen, zilo guziak, iturri guziak. Haren mundua zen, bortua. Han bizi zen, bertze ba-tzu hirian bizi diren bezala. Hango bidexkak ezagutzen

zituen, hiritar batek bere karrikak bezala. Bortua, artzainaren lurra, lur bortitza. Bortua beti berdin mendengatik: etxolak, arrokkak, arbolak, ur-turrustak, belarra mehe... Duela berrehun urte bizi izan diren artzainek hola-hola utzi zuten Irupelle, Oilaxkoa eta bertze... Gizonaren lana guti ageri mendi kasko horietan!

Gizona uros zen ardiak maite zituelakotz. Bihotzean su baten ukaitea aski da zorionaren ukaiteko.

Makila eskuan, aspaldiko makila, elorri zurizkoa, bazoan. Emeki zoan ez baitzen lasterka ibiltzeko adinean, Beraineko arrokkari buruz. Iguzkia ateratu zen. Haren argiak izotz zuriaren gainean distirutzen zuen. Arbolak buluziak ziren, han-hemenka hosto bakar batzu baizik ez ziren higitzen eta den mendren haize kolpean lurrerat heldu ziren, izotzak gogorturik. Begietan min egiten zuen goizeko iguzkiak.

Eguerditan artzain xaharra ez zen oraino etxean sartua. Ilobak pentsatu zuen etxola zombaitetan sartua zela eta bazkaiten atxikarazia zutela.

Bortua gauak hartu zuelarik, Eñaut ez zen oraino etxolaratua.

Luis arranguratsen hasi zen. Afalondoan otto-
ren biderat abiatu zen. Gaua beltza zen eta ez
zen errex bi gizonak elgar kausitzea bortu zoko
heetan. Zerbait azantz hautemaiten zuelarik,
Luis gelditzen zen eta beha egoiten. Beti uste
zuen Eñaut hurbiltzen ari zi-tzaiola. Eta orduan
oihu bat egiten zuen. Nehor ez zen ihardesteko.
Abera zonbait zitaken, hor gaindi.

Luis arrokarat heldu zen. Nehor ez zen ageri.
Ar-tzain gaztea arranguratsen hasi zen, zinez.

Orduan Beraineko etxolan sartu zen eta argi
bat galdatu. Jakes ere atera zen, bertze artzain
gazte bat.

Biak arrokarat buruz itzuli ziren berriz. Jake-
sek ez zuen ikusi Eñaut egun hartan. Iluntxeari
buruz sartua zen etxolan, igandea bere herrian
pasaturik.

Lusek konprenitu zituen artzain xaharrak
ukan gogoetak ardi hil hartaz.

Argiak ez zuen barna zilatzen gau beltza.
Hamar urratsetan doi-doia.

Arroka inguruak ikertu zituzten. Deus, nehor.

Ixtant bat gelditu ziren, heian deus hautemainen zutenetz.

Heien urratsak gelditu ondoan, ixiltasun osoa zagon bortuan.

Lusek erakutsi nahi ukan zuen Jakesi nun sartua zen haren ardia. Zilokaren ondorat hurbildu ziren. Jakesek argia eman zuen bertze mutikoari.

Han ikusi zuten Eñaut, ardiaren gainerat eroria, hila.

Luisen begitartea ilundu zen. Orai konprenitzen zuen haren errana ez zuela sinetsi artzain zaharrak eta bere begiez nahi ukan zuela ikusi ardia zinez ziloan zela eta betikotz.

Ardien amodioak hil zuen Eñaut, martirak Jainkoaren amodioarentzat bezala, ama bat bere haurrentzat xahutzen den bezala.

MENDEKOSTE GEREZIAK

Bi haur ttipi baziren, neskato bat eta mutiko bat. Ixtorioa aspaldikoa da.

Peyo eta Mayik ez zituzten sekulan sinesten amaren erranak. Alta hamarna urte zituzten doi-doia. Eta ordukotz beren burutarat ari nahi. Hik errak! Adin hortan!

Laborari etxe batzuetan bizi ziren. Peyo Harginainean. Mayi aldiz Harxurian. Bi etxalde ttipi mendi baten gibelean.

Mendi mazelak eta alorretako on ez ziren lurrak. Zoko-moko guziak oihanez estaliak ziren, udan dena putzuka perde, neguan hezur eta larru. Oihanez-oihan, Ihizgorriri behera, ur erreka mehe bat jausten zen, arroketan ohatua, nihun ere lohi putzu bat gabe. Ura kriztaila bezain garbi, jauzi-jauzi heldu zen gain behera.

Harginainean eta Harxurian behiak, zaldiak, ahuntzak eta ardiak bazituzten. Gatuak eta zakurrak ere.

Bi etxe horiek herritik urrun ziren. Herrirat hel-tzeko oihan beltz bati barna joan behar zen

mendi bati gora; eta gero berriz jautsi oihanez-oihan, bidexka txar batzuetan gaindi.

Bertze hiru etxe ere baziren horien inguruan. Bainan horietan ez zen haurrik. Haur handituak ba... Eta haurrak beti haurretarat biltzen dira.

Harginaineko lau haurrak Harxurirat zoatzen jostatzerat. Bertze egun batez Harxuriko hiru haurrak Harginainerat bazoatzen.

Eta ez zuten oraiko hurrek ukaiten dituzten jostagailurik! Ur errekan xipaka artzen ziren neskek eta mutikoak gaztain perdez xirula egiten, xori hiltzen harrika neguan, udako bero handietan suge mandil kalitzen harrusuetan eta holako.

Neskek ez zuten pupetarik. Mutikoek ez zuten zurezko zaldirik. Ukanik ere ez ziren gustatuko. Ez zakiten xoko batean jarririk jostatzen, haur txar batzu bezala, iduri eriak, lasterka ezin ibil. Jauzteka ezin ar.

Ez zitazken geldirik egon. Nahiago zuten abereen ondotik hatsangatuak ibili. Nihun ez zauzken.

Astoen ondotik ibiltzen biziki maite zuten.

Erle edo leizarfin kafira bat atzemaiten zute-larik, uli txar horiek hil artio ez zuten bakerik. Su

emaiten zuten ziloari. Zonbait xixta bildurik ere, ez zituzten horrek lotsatzen. Eta ikusi bazinuzte, zoinek beldur gutiago, gizonak gerlako suaren aintzinean bezala.

Alta aitamek egin ahala lanean arrarazten zituzten. Denbora huts guti zuten ardurenean. Neskek ama lagundu behar zuten barneko lane-tan. Mutikoek aita.

Eta lanean ez baziren ontsa ari aita eta ama ez ziren beldur oihu handi batzuen egiteko. Menditar boza: idorra, ortziaren ikararekin.

Lurra, oihanak, etxeak, iguzkia, izarrak eta zerua baizik ez ziren ageri heietan. Alde guzietarik mendiak. Eta bixta labur.

Eta haur gaixo hek nunbaitik jakina zuten mundua handiago dela, ederrago, ezin sinetsizko gauzak badirela mendiaren bestaldean.

Eta enoatzen ziren mendi xoko heietan. Aseak ziren beti gauza beren ikusteaz. Norapait joan nahi zuten, etxetik ihes, nehorri erran gabe, ixil-ixila, gordeka...

Frangotan elgarrekin mintzo ziren, mendiaren haindian gauza ederrak badirela. Ametseta-

rik bezala mintzo ziren, ustez eta berak ziren. Eta ama hor zen...

Eta amak erraiten zioten ez dela etxetik ihes joan behar, gaizki dela hori, ama nigarrez ariko dela bere haurrak falta ikusiz. Bertze ixtorio batzu ere pentsa-tzen zituzten, haur horien ama gaixoek: otsoak badirela mendiaren bestaldean, otsoak, axeriak, hartzak eta lehoinak... Denak zoin gaixtoago, denak aztapar eta hortz xorrotz!

Haur gaixtoak jaten omen dituzte. Ez denez izigarri itsusi!

Bizkitartean bertze nehork ez zuen, amak bezala, aipatzen mendiaren haindian holakorik bazela.

Alta ikusi behar zutela! Mendi zilo hortan ere enoatuak ziren.

Bazakiten mundua handia dela, ederra, ezin sine-tsia, eta jende onak badirela alde guzietan.

* * *

Primadera etorri zen. Bazterrak oro kanbiatu ziren. Dena hosto eta belar perde, dena lili...

Bainan mendi zoko hartan betiko primadera zen. Eta hurrek ere aspaldian ezagutzen zuten nola zen primadera. Urte guzietan arbola berak hostatzen eta lilitzen ziren, pentze berak perdutzen, zeru bera izarrez betetzen, xori berak kantuz artzen. Hango primaderak ez zuen deus ederrik. Haurren begiak aseak ziren, enoatuak, akituak, beti bereri beha.

Mendekoste gereziak bazirela hautemana zuten, mendiaren bestaldean.

Igande arratsalde batez, bazkalondoan, amak etzanaldiaren egiterat igorri ondoan, sabaiko bortatik atera ziren eta mendiari goiti abiatu.

Oihan beltzean zernahi xori airatzen zen arboletarik heien urratsak hautemanik. Baziren xori gorriak, baziren xuriak, beltzak, perdeak eta kolore guzietakoak. Kantuz ari ziren, oro batean, munduko soinu ederrena baino polikiago.

Batzuetan erbi batek zirurikan, tiroa bezala, heien sudurpetik ihes egiten zuen.

Han-hemenka iguzkiaren erreñu horiak oihanaren barnean sartzen ziren orratz batzu bezala.

Suge luzeak baziren arboletan bihurtikatuak aihen batzu bezala. Xixtu mehar bat egiten zuten haurrak ikustearekin. Eztena agertzen eta luzatzen. Bainan haurrak ez zituzten hunkitzen ahal.

Gero mendiari behera abiatu zirelarik iturri ttipi bat atzeman zuten arroka batean. Ura intzirik ari zen. Ahurraren barnetik zorbait hurrupatzen zituzten.

—Etxean baginu ur huntarik!

Eta berriz mendiari behera joan ziren, eskuz-eksu. Ixilik zauden. Ez zakiten nun ziren, amen-tsetarik bezala zoatzen.

Beren baitan egiten zuten mendekoste gereziak ez zitazkela orai urrun.

Mendekoste gereziak, zer gerezi onak. Lehen gereziak!

Mayik altzotara bat eremango zuen etxerat eta Peyok bonetaren bete.

Mendekoste gereziak, zer gerezi goxoak!

Mendiaren zolan etxe xuri bat ikusi zuten. Hurbildu ziren.

Gereziondo bat bazen.

Mendekoste gereziak, gorri-gorri, hosto perden artean. Bainan etxe horren jabea agertzen bada? Makil bat eskuan heldu bada bi haurrak gereziandoaren kaskoan direlarik?

Ai! Ei! Ai! Ei!

* * *

Etxe aintzinerat joan ziren hea nehor agerizenez

Eta bi milatia! Emazteki xaharño bat bortako harrian iruten ari zen.

Hamar bat gatu bazituen bere inguruan, xuriak eta beltzak.

Haurrak, etxe gibelean, ixil-ixila gereziaren gainerat igan ziren...

Bainan emaztekiak berehala burua goititu zuen eta haurreri ohartu zen.

—Zatozte, ene haur maiteak, mendekoste gerezien ondotik jinak zirezte, ez dea hala?

Haurrak ixilik zauden, eskuz-esku, tinki-tankia.

—Ba —erran zuen gero neskak ahapetik bezala.

—Zatozte haur maiteak, mendekoste gereziak ukanen dituzue. Eta bertzerik ere... Beha zazue ontsa: murru guziak dena zukrea dira, arbola guziak dena xokoleta, fruita guziak dena oñoña. Eta Hortxet labe handi bat ikusten duzue haur maiteak, bizkotxen erratzeko. Bixkotxa emaiten dut haurreri ogitzat. Zatozte haur pollitak, zatozte lehenik ene sukaldearen ikusterat. Gosetuak zitazkete holako bideak eginik. Zatozte... Gero nahiko gereziak bilduko ditutzue. Arbolen gainerat igaiten zireztea?

—Ba.

—Kaskoraino?

—Urtxintxak bezala —egin zuen mutikoak.

—Ai zer haur pollitak. Nola duzue izena?

—Peyo

—Mayi

—Oi zer izen goxoak. Peyo! Mayi!... Ai Mayi, hanbat gaixto, ez hunki, murru hori, ez milika, etxe guzia urtarazi gabe!

Sukaldean sartu ziren hiruak. Ikaragarriko paktzeria usaina bazen.

Ganderailuak, ximinia ganean, urrezkoak ziren. Kapitxuluak, zilarrezkoak, supazterrean. Murruak denak zukre.

—Sar zaizte, haur gaixoak! Atsalaskaria eginen duzue lehenik.

Erran bezala atsalazkaria egin zuten. Egundaino jan edo ikusiak ez zituzten gauzak milikatu, xurgatu eta murtxatu zituzten.

Emaztekoa kunkurra zen, hosto bat bezain arina, begitarte eta biloak xuri-xuria, soinekoak xuri eta beltz.

Denbora laburrik barne borta-leihoak hetsi zituen gako.

Haurrak izitu ziren eta jatekoak eskuetatik eror-tzerat utzi.

—Horra haur maiteak, orai ene etxean egonen zirezte betikotz. Ni izanen naiz zuen nagusia. Orai preso zirezte. Baina ez zirezte gaizki izanen, dena xokoleta, dena zukrea, dena oñoña eta edari goxo.

Haurrak nigarrez orroaz hasi ziren eta gau guzian ez ziren atertu.

Emazte txarrak Peyo burdin zirizko kaiola batean preso ezarri zuen. Ez zuen handik higitu

behar, hura mendi-zelaietan jauzketa ibiltzen usatua.

Mayi etxeko lanetan ari zen.

—Orai ontsa zirezte, haur maiteak, ez duzue gehiago nigarririk eginen. Peyo hor egonen dun hamar bat astez handitzen, azkartzen, gizen-tzen. Gero jateko... Hik aldiz, Mayi, etxeko lanetan lagunduko nun. Hire adixkideari jaterat emanen dion... Gaixo haurrak, ni bakarrik niz mundu huntan, aitarik gabe, amarik gabe, anai-arrebarik gabe, haurrik gabe. Ikusazue zoin triste izan naiteken, bakarrik ontasun guzien erdian, oihan baten barnean. Eta zuek aitamekin enoatzen... Nik haziko zituztet, haur gaixoak. Aitamek ahan-tziak zituzte orai, ez dute nigarririk egin, sobera haur bazinezten etxean, ezin bizia! Ez zireztea ontsa enekin?

Hurrek ez zuten deus ihardetsi eta ixil-ixila nigarrez ari izan ziren.

Mayi, nahi ukan balu, errexki eskapa zitaken presondegi hartarik, harat-hunat ibiltzen zen, kanpoan gaindi, berbera.

Bainan bere laguna ez zuen bakarrik utzi nahi hor preso.

Bere burua salba zezaken.

Bainan Peyo nigarrez ari zen. Eta hortakotz nahiago zuen hor egon, Peyoren lagun, haren bihotzaren poxi bat gozatzeko.

Eta Mayi eskapatuz, menturaz atso xahar horrek Peyo hil zezaken mendekioz.

Peyo biziki dohakabeago izan zitaken Mayi gabe.

Eta gaixo bi haurrak beren mendi xokoaz oroitzen ziren: aitamak, anai-arrebak, lagunak, zaldiak, xoriak, suge mandilak.

Horra norat eramanak zituzten mendekoste gereziak.

Haurrak trixte ziren. Peyok ez zakien kanpoa nola zen, bere barne ilunean. Mayik erraiten zion noiz zen iguzki, noiz euri, noiz fruitak zohi, noiz ogi epaiteak, mahats biltzeak...

Munduan izan ditazke gormandiza guziak jaten zituzten, bainan bihotza ontsa ilunik zagon halere, libertatea hola galdurik.

Urte bat segurik iragan zen hol-hola.

Egun batez atso xahar kunkurrak erran zuen labea piztu behar zutela, labetara bat bixkotxa-ren erratzeko.

—Eta Peyo ere orai ontsa gizendua baita...

Neska gazteak hitzerdiz konprenitu zuen.

Bainan ez zuen deus erran bere lagunari, ez nahiz eta asaldarazi, orroaz hauteman.

Mayi abar eta egur eihar karreatzen arizan zen, lehertua, oihanetik.

Labe ziloan sartzen zituen ikaragarriko sugai pisuak, izerdi uharretan izigarri bero zen labetegian, sua pindarka ari.

Atsoa sukaldean bixkotxa gaien apailatzen ari zen.

Peyok gaitzeko usain ona senditzen zuen bere kaiolan. Nahiago zuen bere lagunaren laguntzerat joan, oihanetik sugaiketa arizan.

Bainan preso zen eta kaiolaren ziriak ez ziren xokoletazkoak. Dena burdina ziren. Ez zuen balio debaldetan indarka artzea.

Neskato gaztea bi oren segurrik arizan zen egur karrea-eta-karrea, labe ziloan sar-eta-sar. Azkenekotz ez zezaken gehiago eta labetegian erori zen.

Atsoa etorri zen.

—Zer ari hiz, no, hor etzanik? Kixkila! Itsusia! Xuti hortik eta ar lanean!

Besotik har-eta xutiarazi zuen. Eta neska gaztea berriz sugaiketa joan zen. Doi-doia zagon xutik. Nigarrez ari zen. Halere bere indar guziez lanean ari zen. Nahiago zuen bere burua lanean lehertu ezinez-eta ikusi atso zaharra zahalo mehe batekin iztazainetan joka.

Ikaragarriko sua ari zen labean. Ifernuko sua, gorri-gorria.

Eta aingeru gaixo bat ari zen, deubruaren orde, ifernuko suaren akulatzen.

Neska gaztearen eskuak zarrastatuak ziren, zango-besoak odolduak, zaiak urratuak. Nigarrez ari zen.

Azken besotara ekarri zuelarik, atsoak sukaldetik oihu egin zion:

—Mayi, labea gorri dea?

—Ez dut ezagutzen anderea.

Atsoa labetegian sartu zen, begitartea kexu.

—Neska tzarra! Kixkila!

Atsoa labe zilorat hurbildu zen eta burua zilolan sartu.

Ordu berean, esperantzaren mila indarrek sustaturik, neska gazteak atsoa bi zangoetarik hartu zuen, labean sartu eta han hetsi.

Emazteki gaixtoa han kixkaildu zen, deubruen garrasietan, eta ele itsusia frango erranez.

Neska gazteak bere lagunaren kaiola ideki zuen.

Luzaz besarkatu ziren eta etxean sartu.

PAPO-GORRIA

Peyo ttipia bere ohean etzanik zagon enoatua han iragaiten zituen egun ilunez, bakartasunean. Handik ez zuen ikusten, hiru egun ohean zela, zeru xoko bat baizik, batzuetan urdin, bertzetan ilun eta hotz, eta leihoaren aintzinean zen gereziondo baten kaskoa... Adarrak huts eta beltz, baziren hosto banaka batzu haatik, urre koloretan herdoil batzuek itsustuak.

Beti bixta bera, zerua, adarrak. Batzuetan kanpotik heldu ziren arrabots batzu eta Peyo ttipia dena beharri zagon, begiek ez bazuten gauza handirik ikusten ahal, araz beharriek hautemarnaraziko ziotela zer iragaiten zen haren ganbaratik kanpo, hain gogotik atera litaken larrazkeneko bazter horietarat.

Orga batzu tarrantan iragaiten zirelarik bide berrian, behi andana baten orroa edo xintxilak, zaldi baten trosta heldu zelarik haren beharrietarat, bere baitan egiten zuen, hamar urteko gaixo mutikoño horrek: horiek Etxeberriko orgak eta Piarresen eskalapoinak, horiek Herdoiko behiak,

hori gure zaldi beltza hori auzoko etxekanderearen botza... Eta norbeit edo zerbait azantzetik ez bazezaken asma, bere gogoia erabiltzen zuen luzaz heia nor edo zer izan zitaken holako azantza egin zezakenik.

Sukalde gainean baitzen, ama zer arizen pentsaketan zagon. Bere anai-arreben kalapiteri dena beharri eguerdi eta arrats...

Gaixoak zerbaitetan iragan behar zuen bere denbora... Eritasuna ahantzi behar zuen, eta gogoz bederen ibili, hain maite zituen herriko xoko galduetaraino. Bera ari zen solasean bezala bere lagun ttipiekin, jende handiekin ere bai. Eta ardura amari oihuka, beti zerbaiten beharretan...

Eskolatik bere lagunak hautemaiten zituen bidean iragaiten irriz eta oihuka eta elgarri pasoka.

Asteritan karrikako haurrak onddoketa eta gaztainketatik heldu entzuten zituen.

Norbeitek galdatzen zioten:

—Bazena onddo?

—Zernahikoak! So egizu ori, iratzetara huni, denak kasko beltzak.

—Eta hok?

Haren bi anaiek ere ekartzen zituzten etxerat gaztain eta onddo. Harek ezin ikus ere...

Orduan gogorat heldu zaizkon joan den urte horietan ibili harat-hunatak, oihanetan gaindi, gaztain eta onddoketa, zer onddoen usain goxo ona... oheraino senditzen zuen...

Eta hura ez dela haizu onddo jaterat, harek, hortxet, ohean egon behar duela, geldi-geldia, bi mihise zurien artean etzanik... Gorriñoak baditu eta beroki egon behar, beroki ohean eta ez zeruko iguzkiaren eztitasunean. Haurrik ezditake sar haren ganbararat, beldurrez eta eritasun bil, hain baita kotsakor gorriñoa.

Gorputz guzia dena plantza gorri du, nunnahi hatz eta aztaparrak geldirik egoiterat bortxatuk dira...

Aita eta ama, eta medikua ditu bakarrik ikusten ahal...

Ganbara hits da eri delarik...

Nahiz batzuetan gogotik ohean egoiten zen, amak hogoigarren oihua egin artio goizetan jekitzeko.

Bera zagon ohe handi hartan, anaiaren lekua hu-tsik zagola. Hortxet ohe ttipi bat anaia gazte-narena. Hura ere beti hutsa duelako gau hortan...

Enoatuta zen Peyo ohean...Beti gauza berak, beti etzanik, gorputza sutan sukarrarekin.

Amak ganbarako berinak zabalik ezarriak zituen aire zahar eta usainduaren erreberritzeko. Goizeko aire bipila sartzen zen nasaiki, firrindika, ganbara, epel eta garbi hortarat, gauazko aire bero nardagarria haizatzen zuela.

Goizeko lano meheak urtzen ari ziren urriko iguzki ahularekin, emeki-emeki.

Ordu berean, xixtez, xori papo gorri bat sartzen da Peyo ttipiaren ganbaran...

Peyo ttipia, begiak egin ahala zabaldurik, loriatua dago...

Bainan ganbaran sarraldi bat egin orduko eta biz-pahiru *ttririttitti*, xoria ihes doa kanporat.

Haurrak ontsa ikusia zuen eta zen baino ederrago ikusten papo-gorri maite hura...

—Berriz jiten balitz?

Eta xori papo gorri pollita berriz heldu da. Ohe buruan jartzen da eta kantuz hasten.

Ttirrittitti-ttirrittitti...

Peyok ez du egundaino hoin pollit eta goxo atxeman papo-gorrien kantu eta musika.

Xoria haurrari so dago eta haurra xoriari so.

Zer gauza mikoia. Begi ttipi erne batzu badi-tu, beltzak, perla bezain argi eta garbi. Peyori so daude...

Ama sartzen da eta papo-gorria hegaldatzen. Amak ez du deus ikusi. Bakarrik zerbait asma-tzen zuen: haurra ixilik zagon.

—Zertako heldu xira hunat? —dio amari kexu bezala.

—Uste nian trenputxartua hintzala hoin ixilik.

—Ez, papo-gorri batekin ninduxun. Kantuz artzen duxu eni so. Xoaxi hemendik, ontsa nuxu.

Ama ateratzen da ixilik, irri goxo bat ezpaine-tan.

Xoria, Peyo aspaldian beha dagolarik,ixtan-tean berriz heldu da.

Xoriek haurrak maite dituzte, eta hurrek xoriak.

Kantuz hasten da berriz ere, jauxi-jauxi, mahain ttipiaren gainean, papo-gorri pollita. Peyo xoratua dago. Oi zoin polliki xabaltzen

duen moxko miñiñ hori. Xango mehe beltzino batzu dantzan bezala arrarazten ditu...Buxtana harat eta hunat ari zaio, lurrean ez baita deus hoin arinki ibiltzen.

Peyok ez zuen behin ere xori bat hoin hurbi-letik ikusia eta pollita kausitzen zuen.

Papo-gorria ausartatzen hasia da. Xoko-miko guziak ikertu nahi ditu. Peyok erhiarekin bixkotxa untzia idekirik erakusten dio. Bainan kokina, ez du ba sine-tsi nahi hor bixkotxak badirela...

Ohe muturrean dagolarik Peyori so eta Peyo hari so, haurrak eskua poxiño bat luzatzen du eta xoriari erakusten dio, irri ezti bat ezpainetan xori bat badela, hantxet, mirailean...

Haurra keinuka ari delarik begiez, ezpainez eta erhi-ez, xoria hari so dago beti tente. Ez du deus kon-prenitzen, bainan ez da izitzen eta han dago harritia bezala.

Ixtaño baten buruan papo-gorria itzultzen da lekuaren ganean jauxi bat eginez. Eta mirailean bertze xori bat ikusten du, bera iduria.

Hegaldatzen da mirailari buruz eta ikusten du bertze xori hura harenganat heldu dela eta elgar

kaskatzen dute, berriz kaskatzen, eta berriz ere oraino. Atxeman nahi luke eta ezin atxeman...

Poxi bat akitu delarik, xoria berriz ohe muturrean jartzerat heldu da.

Mirailari so emaiten da, geldi-geldia, harritua bezala. Begiak zabalik dago bulta bat, gero hets eta idek hasten... Deus ezin konpreni...

Han ere bertze haur bat ikusten du etzanik, haren hura iduria. Hark ere bere xoria badu, kantuz artzen zaiona, hura hasten delarik

Jauzi bat egiten du... Mirailako bertze xoriak berdin. Kantuz hasten da; bertzea ere mokoia xabalka...

Peyoren zoriona...

Xoria Peyori buruz itzultzen da jauzian eta haren begieri beha plantatzen.

Orduan haurrak eskuak zabalduz eta ganbarako asko gauza erakutsiz xoriari nahi dio mirailak emaiten duela konpreniarazi ganbararen itxura. Han bertzaldean ikusten dituen haurño hura, xoriño hura, ohe hura ez direla itxura batzu baizik.

Xoria haurrari dago eta mirailari so aldizka, galdua bezala egundaino ikusi ez duen mundu

batean, mundu paregabea eta ezin sinetsia. Kanpoa bere iguzki eta ilargi xarmagarriekin, primaderan bere lili-hostoekin, udan bere ogi alorrekin tilluraren usain gozo mensgarriarekin, larrazkenean bere mahats-molko hori eta beltxeekin, ez kanpoa ez da ganbara bezain ederra izaiten sekulan.

Haurrari berari iduri zaio ez dakit nun, ez dut erraten zeruan edo lurreko parabisuan, ikusten zuela bere burua, ez, ez litake egia. Bainan ez ditake erran ere xuxen haren gogoaz zer xoko pollitean alha zagon, xori hura ikusterat abiatu zaionekotz.

Oihaneko onddo eta gaztainedek, mendizmendi ibiltzeko dohaina, deus, fitxik ez ziren horrek hor etza-nik gozatzen zuen zorionaren aldean.

Hola-hola uste gabetarik sendatu zen bertze zortzi egun ohean, xori papo gorriaren ondoan iragan eta.

Haurra joan zen kanporat eta eskolarat. Ez zuen ahanzten xoriaren ixtoria eta bere laguneri kondatzen zioten zer egun goxoak iragan zituen ohean.

Xoria ere joan zen norapait.

Bainan lehen hotzak abiatu zirelarik, asteri batez haurrak berak bere ganbaran, atxeman zuen xori papo gorri bat, hila. Ezagutu zuen haren lagun maite hura zela.

Nehork ez zuen jakin hori eta Peyok nigar egin zuen. Ixil-ixilik bi otoitz egin ziozkan eta baratzeko lurrean, amak ekar arazten zituen lore andana baten artean ehortzi.

OTTO PETTANEN ASTOA

Zoin pollita zen otto Pettanen astoa, bere beharri luzekin, bere buru apalarekin, bere begi ilunekin eta bere lepo meharrarekin!

Herriko astorik pollitena, otto Pettanen asto xuria.

Negu hondarra zen. Artzainen astoak herrirat jautsiak ziren bortutik, ardiekin batean, negu hastean. Gaixo astoak, badute zerbait ikusirik udan bortuko patarretan goiti eta beheiti. Artzainek ez dute asto beharrik neguan. Hortakotz kanpoan uzten dituzte.

Ardura etxe ondoetan inguruka dabilta hea bortuko belar mehearen ondotik aza puntta goxo bat edo ebatsiko dutenez gauaz.

—Jakes! Hea baratzeko xeila hetsia denez. Barda, Elorriko ilar biribil puntta guziak jan omen ditie berriz ere, asto tzar horiek!

Jakesek-eta, biziki maite dituzte astoak. Bakotxak berea badu jostatzeko, astoka artzeko, berek erraiten duten bezala.

Zer nahi duzu egin hamabi urtetan, aitamak lagundu eta, etxondoan astoak badirelarik? Etxetik urrun joan, urrun, bertze mundu berri baten atzemaiterat. Zertako ez? Eta zertako eginak dira astoak, gainean ibiltzeko baizik? Horra zer zioen Jakesek astoez.

Goiz hotz eta ilun baten ondotik, iguzki epel bat agertu zen eguerdi irian. Hantxet, urrun, elurra xuri-xuria ageri zen, bortu mendi kaskoetan.

Otto Pettan artzainaren astoa ere hor zen iguzkitarat, bide bazterreko belar piruen biltzen ari. Jakesek zaldare bat ona eman zion: arto buru bat! Gogotik milikatu zuen, astoak haurrari begi bazterraz behako zuri bat eman ez. Balaki, gaizo astoa!

Orduan, Peyok bizkarrean perekatu zuen astoa. Eta alegia deusez, Jakesek kordak sakelatik atera! Astoak begi bazterraz berriz ere so egin zion, orai haatik irrik gabe!

Eta gure bi mutikoek astoaren gainerat jauzi egin zuten.

—Norat abian gira?

—Goazen mendirat, nehork ez ikusteko.

Antxarteko xaran harat zoatzin, gero Bidarteko iraztorrean, beren asto xuriaren gainean til-til-til. Handik harat ez zakiten nungo bide, pen-tze, alor, oihan eta iraztorretan zabiltzan lauaz-ka!

Azkenean oihan batean sartu ziren. Oihana dena haritz eta pago zen. Hotz zen. Arbolak buluziak ziren, dena hezur beltz iduri: nundik behar zituen iguzki ahul horrek zoko horiek berotu? Arbolak mehar eta gora ziren.

Oihan eder horri beha geldituak zirelarik, horra nun zerbait hautemaiten duten hesi putzuka batean.

Erbia? Xoxoa? Basurdea? Azeria? Azkona?

Astotik jausten dira eta emeki-emeki hurbiltzen. Deus ez da hauteman orai. Bazterrak ixildu dira haurrak hurbiltzearekin.

Bizpahiru harri aurtikitzen dituzte hesirat. Deus ez da higitzen.

Gero ixil-ixila egon ziren bi mutikoak, hatsa doi-doia hartuz.

—Deus! erraiten du Jakesek.

—Ixo!

—Ez!

—Ba, beherean.

Bedera makila biltzen dute lurretik, aski azkarrak zer gerta ere, eta hesiaren ikertzen hasten beheraxago. Zerbaitek ihes egiterat egin zuen.

—Hemenxet! —erran zuen Peyok ahapetik eta eskuz keinu eginez Jakesi.

—Zer?

—Xori handi bat?

—Hago.

—Ixo, eskapatuko duk.

—Urtxoa! —egin zuen Jakesek hurbildu-eta.

Peyok eskua luzatu zuen. Ez zen heltzen ahal. Laparretan barnegi sartua zen urtxoa,

Orduan Jakesek ziri luze bat hartu zuen, hesian sartu eta urtxoa zirikatu. Izitua, urtxoa laparretan barna sartu zen.

—Nolaz da hemen urtxo hori, negu beltzean?

—Lapar horietan preso gelditua berdin.

—Eta jatekoa nola biltzen du?

—Zonbait pagatx eta ezkur erortzen direlarik.

—Ez duk ateratzen.

—Ba araz, zertako nahi duk preso egon dadin?

—Edo bere kafira hemen dik?

—Ez die urtxoek kafirarik egiten hemen. Galdua duk. Eta joan den eguneko elur hura!

—Hilen duk.

—Ba.

Jakesek ziriarekin baztertu zituen laparrak eta urtxoa libratu. Bainan barna zen oraino. Haurrek barnago baizik ez zuten akulatzen. Beldurrarekin, urtxoak egin ahalak egiten zituen haurretarik urruntzeko.

Astoa hantxet, urrunetik, begi bazterraz beha zagon. Zer ote du buruan? Haur itsusiak!

Haurrek bertze ziri bat hartzen dute, oraino luzeagoa. Bainan urtxoa beti eta barnago sar arazten dute! Hesiaren bestalderat badoatzi, handik hurbilago baita orai, eta berriz ere zirikan hasten.

Urtxoa gibelerat abian zen.

—Maingu duk —erran zuen Peyok.

—Ateratzen bada makil kaska batekin eroriko duk —erran zuen Jakesek.

—Ez diagu hil behar.

—Zertako ez?

—Maingu baita.

—Ihiztariiek ere hiltzen ditie.

—Ihiztariiek kolpatua duk. Etxean sendatuko duk.

—Gero berdin hiltzeko?

Peyok ez zuen deus erran. Bere makila lurrerat utzi zuen.

—Are, Peyo, har makil hori.

—Ez duk aterako berdin. Gaua duk berehala. Goazen etxerat.

—Hori bildu gabe ez. Zirikazak bestaldetik.

Urtxoa bazter guzietarat beha zagon. Haurrek zirika lumak xehatzen hasiak ziozkatzen.

—Su eman dezagun. Aitaren briketa hemen diat.

Jakesek iratze zango idor batzu bildu zituen eta hesiari su eman.

—Erreko duk eta bertzerik ez —egin zuen Peyok.

—Ez, hegaldatuko duk nunbaitik.

—Nola?

Gaitzeko sua lotu zen. Dena gar eta ke, haurrak urrundu ziren.

Bat-batean, urtxoa ateratzen da eta lurrerat erortzen. Haurrak lasterka abiatzen dira ondotik.

Xoriak hegaldatzerat egiten du. Bainan ez zitaken hegaldia. Zango bat hautsia zuen eta hegaldia bat ere orai dilindan.

Jauzi-jauzi ari delarik, hantxet zuri bat ikusten du, gaixo urtxoak. Azken indarrak emanaz gainerrat jauzi egiten dio.

Eta Pettanen asto xuria lauazka abiatu zen urtxo kolpatua bizkarrean.

Hurrek ez zuten ikusi norat hartu zuen. Oinez sartu ziren etxean, hitz bat erran gabe gau beltzean.

Jakes hoztu zen gau hartan eta eritu.

Biharamun arratsean, sukar handienez, urtxo kolpatu bat ikusi zuen ganbarako leiho aintzinean. Elgarri beha zauden. Haurrak irri eztiño bat egin zion. Urtxoa ganbaran sartu zen eta ohearen gainean pau-satu. Haurrak eskuak sutan zituen. Perekatu zuen, urtxo gaixoa, eta musu bat eman...

Gero izerditan iratzartu zen, nigarrez. Zerbait xerkatu zuen oraino. Ez zen gehiago urtxorik han.

AXERIAREN EZTEIAK

Tartarin de Tarascon-en bi adixkide, Domingo Mendiondo eta Piarres Hegoburu ihizirat joan ziren. Larrazkena zen, naski, zeren urtzo bakar batzu abiatzen hasiak baitziren, ihiztari onen ihizi.

Domingo eta Piarres? Ezagutzen ditutzue ba! Ez da herrian horiek bezalako bertze ihiztari bat kausituko. Horiek dira, horiek, zinezko ihiztariak! Euri ala iguzki, goizalderat ala eguerdi gainean, beti ihizirat joateko prest, urtzo sasoinean. Errakozute ba ihiztari txar batzu direla, frangotan eskuak hutsik heldu direla etxerat, egunean eguneko ixtoriak kondatuko dauzkitzute, ihiziko ixtorioak, bixtan da, eta ez zira berriz menturatuko ihiztari handi horietaz trufatzerat. Sinetsi behar duzu! Zerbait baditake, zeren egia ala gezurra, horien ixtorio guziek egia iduri baitute. Ixtorio bakotxak urtzo bat bederen balio du. Eta gure Jainko jaunak izkiriatzeko gustu puxka bat eman balakiote, aspaldian baginuke Eskual Herrian liburu eder bat dena ihiziko ixtorio. Funtsean, ba

ote da ihiztaririk bere bizian, behin bederen, zazpi urtzo hil ez duenik tiro bakar?

Ihiztari batekin zertaz mintza ditake ezinez eta ihiziaz? Ihiztari handi guziak denak ixtorio ditudzu-eta!

Domingo Mendiondo eta Piarres Hegoburuk ez zuten balentria handirik egiten ahal beren behi, ardi edo artoez. Trixteak ziren, trixteak, laborantzaz min-tzo zirelarik! Bainan ihizia, emakozute beti ihizia, haurrekin ere ez dute bertze solasik. Eta haurrak loriatzen dira, loriatzen.

Eta horra, haur maiteak, aldi batez zer gertatu zaioten. Menturaz berek erranez hobeki litake, bainan izkiriatzeko funtsik ez dutenaz geroz, batek ez bertzeak, nihaurek beharko dautzuet ixtorioa kondatu, ahal bezala.

Larrazkeneko egun bat zela errana dautzuet, bainan egun bat aski hitsa, eta bazen...

Ahazten nuen erraiteko Domingo eta Piarres, nagusi-mutilak zirela. Mendiondo ez zen nagusi gaixtoa. Egiari bere bidea zor zaio. Nagusi bat gozoa, ez sobera bolbora, eta mutil bat arras fidela. Batek ber-tzeari zer galda dezake gehiago?

Bazkalondoan, etzanaldi puxka bat eginik, eta beti eurixka zela ikusiz, ihizirat joan ziren gure nagusi-mutilak. Zertako zen, funtserat-eta aro, ihiziko baizik?

Eta larrazkeneko lehen urtzoak, oi zer atsegi-na ihizin artzea, han gora-gora doatzilarik bakar-ka. Orduan da ageri zinezko ihiztaria ez eta ehun urtzoren gainerat tiratzean. Orduan du ihiztari onak, bere zinezko plazerra senditzen bihotzean, ihizia bakan delarik. Orduan ditu bere dohain guziak agertzen. Orduan du ikusten zertan duen burua, zertako den on. Orduan ditake ihiztari ona xartetik berex.

Begia! Begia! Ihiztari onaren ontasuna. Dohakabe oker, itsu eta errebesak!

Ihizia, oi zer plazerra! Mendi guziak zeharkaturik ere ihizi bat ikusi gabe, ihiztari on batek ez du sekulan lotsatu behar...

Domingo eta Piarresek, hiru orenen buruan, ez zuten oraino ez lapin, ez erbi, ez urtzo, ez xoxo, deus ikusirik. Ez zirela lotsatuak, jakizazue nik erranik. Iratze, ote, lapar, hesi eta euria gainerat, aski ihiztari txar batzuen lotsarazteko. Ez

zuten ez egun hartan bertze ihiztari bat kausitu mendian!

Lauak irian atertu zen.

Piarresek urtzo bat ikusi zuen pagatx baten hosto herdoilduen artean. Ohartu bezain laster pan! pan! eta urtzoa lurrean zen. Ez zen bertze-la izaiten ahal!

Oraino bide puska bat egin zuten ihizi bat ikusi gabe.

Pan! Pan!

Orai Domingok du biligarro pollit bat garbitu elorri zuri baten barnean. Ihizi ttipia, ttipia, baina bertzerik ez delarik dena ere on!

Mendi baten zolarat sartu ziren. Oihana zen. Eta erreka txar batek itsasoaren orroa egiten zuen euri ondo hartan.

Euria hasi zen berriz.

Oihanean euria ez zen hala sartzen. Gure bi ihiztariak gelditu ziren gaztainondo ikaragarri baten pean.

Hantxet sorropilo bat ageri zen dena ziloka.

—So egizak, Piarres, axeri ziloak!

—Hek, axeri ziloak?

—Ba!

—Menturaz bat edo bertze aterako zauku.

—Agian ba! Gauden hemen berean.

Axerien lurra zitaken oihan zoko hura. Oihanaren erdian sorropilo hura hautatua zuten korte gisa haitzez inguraturik. Azeri korte batentzat ez zen batere gaizki! Belarra mehe zen eta labur, bainan perde-perdea, balusa bezala. Lili bakarño batzu ere ageri ziren oraino, han-hemenka, larrazkena izanik ere. Azeriek beren sasoinak badituzkete. Gero, bertzenaz, dena zilo. Hamar bat azeritegi bederen bazitaken.

Gure gizonak beti beha zauden hea noiz aterako ote ziren jaun-andere gorraile horiek beren jauregiatarik. Bainan hek ere aterbean hobeki baitzitazken.

Bainan hara nun gure ihiztariek arrabots batzu hautemaiten dituzten lurpean. Zer izan ditake? Azeriak segur!

Harat eta hunat, hemen jo, han kaska, atxemanka ari direla erran ditake.

Piarresek bizpahiru azeri senditzen ere ditu zangopetan pasatzen lauazka, gerezi pikorrak hertzetan bezala.

Arrabots ilun bat zen, tapa-tapa, lurraren barnean.

Euriak atertzerat bezala egin zuen.

Eta iguzki epel bat jauzi zen euriarekin batean.

Domingok ere lurra senditzen du, orai, inarosten, zangopetan.

Marraka mehe bat atera zen lurpetik. Azeri irrintzia. Ihiztariak harritu ziren.

Euria gelditu zen.

Iguzkiaren lagun ortzadarra agertu.

Orduan bi ihiztariak azeri baten muturra ikusten dute erdiko zilotik agertzen ari.

Armak! Armak!...

Zilo guzietarik azeri muturrak agertu dira. Ihiztariak ez dakite zoini tira eta beren armak apaldu dituzte.

Inomine santian hogoi bat azeri bazen kanpogan, ez bazen gehiago.

Erronda handi bat muntatu zuten dantza jauzietan artzeko bezala.

Eta azeriak, denek biloa dir-dir-dir, dantzan hasi ziren inguruan.

Bi azeri errondaren erdian elgarrekin dantzazan...

Piruri! Piruri! Tantiruri! Tiruri!...

Bi mila hamaseia!

Gero azeriak birazka besarkatu ziren. Handik laster batek hixtu mehar bat egin zuen azeri guziak beren ziloetan sartu!

Eta euria hasi zen berriz.

Ez Domingo, ez Piarresek ez dezake erran zonbat irauñ zuen gauza horrek. Sobera xoxotuak ziren beren gaztainondo itsusiaren petik beha...

Nagusi-mutilak etxerat buruz abiatu ziren. Harrituak zauden nolaz nehoi ez zitzaion gogorat jin tenorean bi tiroren emaiteko. Ixil-ixila zoatzin. Ez zakiten zer pentsa, zer erran. Ez zuten sekulan erranen egia batzuetan gezurra baino handiago izan ditakela.

Iluntzea zen herrian sartu zirelarik.

—Haugi, pint-erdia hartuko diagu! —erran zuen Domingok bere mutilari.

Eta ostatuan sartu ziren.

Beren arnoaren aintzinean zauden buruzburu, ixil-ixila.

Ostalerra harritu zen nolaz bi ihiztariak hoin ixilik egon zitazken ihizitik landa, sekulan ez eta.

—Orai lotsatuak, hotzez ikaran! Zoazte, zoazte berriz holako aroarekin ihizirat, ihizirik ez eta oraino! Euria, euria, gaur...

—Euria?

—Euria ba.

—Ah ba!

Eta Domingok azerien ixtorioa kondatu zuen. Hantxet musean ari ziren gizonetarik batek erran zuen lehenik:

—Hago ixilik, Domingo, zer uste duk ala gezur zozo hori sinets araztea? Badakiagu nor hizan...

—Ez baita egia, Piarres?

Orduan Piarresek ixtorioa berriz kondatu zuen.

Bertze muslari batek gero trufatzeko:

—*Ba, mutuek kantu,*

besomotzek soinu,

elkorrek oihu,

mainguek dantza,

hurrek otoitza,

kunkurrek jauzi,

*itsuek argi,
zaharrek irri...*

Halere, Domingo Mendiondo eta haren muti-
la Piarres Hegobururi gertatu ixtorioak Eskual
Herriko itzulia egin zuen.

Biek ere ez zuten ihiziko ixtorio ederragorik
ukan kondatzeko beren bizian, bertze ainitz ixto-
rio eta balentria guziengatik. Egia zen bezala
kondatu zuten, hol-hola aski bazela sinesteko.

Ordutik omen da erraiten, euriaren artetik
iguzkia agertzen delarik, ortzadarra ondotik:
Axeriaren ezteiak.

PUXKA

Puxka, ttipian, xakur txar bat zen gero handitu bazen ere.

Orkatzeko alabak bildua zuen, duela lau urte Itorrotzeko oihanean abendoko egun batez, hotzez daldaran zagola. Umeño bat baizik ez izanki eta jaberik ez, amarik ez! Ez bazen oraino, gaixo Puxka, norbaitek oihanerat aurtikia ez jakinez nola igor etxetik. Hiltzeak pena egiten, eta...

Hain kokorro txarra zen orduan, nun Puxka ukan baitzuen izena.

Lau urteren buruan, bere izenarengatik, izigarriko zakur ederra zen. Bere andere gazte onaren etxearen zaintzeko hauta! Ez zuten segurondotik dolu Orka-tzeko nagusi etxekanderek, lehen egunetan zombait erasia emanik ere beren alabari.

Behin Itorrotzeko oihan hartan berean zabilan, Puxka, zakur handi ikaragarria.

Hesi baten gibeletik ohartu zen hantxet azeri andana bat bazela bildua haitz baten pean. Zer ari ote ziren?

Zakurra gelditu zen eta barrandan egon.

Azeri nagusia xutitu zen:

—Barda Berhoko oilategian xixka pollita egin duzue, ene haur maiteak. Hola behar da arizan, hola! Atsegin egiten dautazie ene azeri biho-tzean, hango zakur tzar hura hola koditurik. Biba azeriak! Kuku zakurrak! Goazen hol-hola! Bihar Orkatzeko oilategian itzuli bat egingen duzue. Bainan kasu! Kasu otoi! Kasu Puxka zakur itsusiari!

—Ez gira beldur! —oihu egin zuten azeri guziek.

Biba azeriak! Kuku zakurrak!

Erran egunean, gauza horiek jakinik, Puxka oilategiko bidean etzanik jarri zen, hila bezala. Lau zango-besoak luze-luzea, han zagon hilik gogortua iduri.

Goizalderat azeri bat jin zen bakarrik lekuen ikusterat eta hea Puxka nola ote zen. Haren gozoa biho-tzean Puxka hila ikustearekin!

—Ez ahal duk araz alegia ari? —egin zuen gero bere baitan.

Eta ixtaño bat beha egon zen etxe gibealeko seiletarik.

Bainan Puxka ez zen higitzen ere! Pentsa!

—Hila duk ba, arras hila, hola erraz gora egoi-
teko! Eta holako hotza gainerat! Bainan ez dik
sekulan zakur tzar horri fidatu behar. Hilarena
eginen dik gero horrek berdin! Behar diat hobe-
ki ikusi.

Eta azeria, emeki-emeki, zangoak doi-doia
lurrean finkatuz, Puxkaren ondorat hurbiltzerat
menturatzen da. Mila dudetan haatik!

Puxka ez zen higitzen oraino.

Azeriak ezpainak milikatu zituen oilategirat
behako bat emanez: Zer goxoa sarri!

Gero puxkaren usaindatzerat menturatu zen.

Beti eta erneago, zango zolatik kilikatu zuen
zakurra bere aztaparrekin.

Puxka ez zen higitzen! Bai to!

Muturrean aztapar bat egin zion.

Puxkak ez zuen deus senditzen.

Orduan lasto bat hartu zuen gure azeriak eta
zakurraren beharri ziloa kilikatu.

Puxka hila zen.

Ez zen gehiago dudarik.

Eta azeria, bihotza airean, tiroa bezala Itorro-
tzeko oihanerat itzuli zen oihuka:

Puxka hil! Puxka hil! Hil! Hil Betikotz!

Azeri nagusia jauzianjeiki zen bere ohetik. Ez zen guti harritua!

—Hila?

—Ba!

—Hunki duka?

—Ba!

—Kilikatu?

—Ba!

Azeri nagusiak sinetsi zuen. Mutil fidel eta errenak erraiteaz geroz araz!

—Are huzt! Zoazte ba Orkatzeko oilategiaren husterat. Biba azeriak! Kuku zakurrak!

Nagusiak erran bezain laster, hogoi bat azeri dan-tzan abiatu ziren Orkatzeko oilategirat buruz.

Bainan Puxkak denak garbitu zituen jin doi.

—Kuku azeriak! Biba zakurrak!

Hitz horiek hautemaitearekin eta ikusiz haren mutileria ez zela gibelerat ageri, azeri nagusiak konprenitu zuen zer zen gertatzen.

Eta bere azeritegian bakar-bakarrik, bizik trixte, beldurrak josia, hamar bat egunen buruan goseak hil zuen.

GATU XURIAK

Herriko emazteki batek hiru gatu xuri bazituen.

Paristar batzuenganik ukanak bide zituen, duela bospasei urte. Eskual-Herrirat etorriak ziren, paristar horiek, hemengo larrazken ederraren ikusterat. Gure herrian bazuten etxeño bat pollita hartua, mendi baten zolan, erreka baten bazterrean.

Delako emazteki hura —sortzez izen bat ukanik ere, orok bezala, guk beti Lipusa deitzen ginuen— etxez-etxe zabilan egun guziez, bere hiru gatuak ondotik.

Hola zeraman bere bizia aspaldidanik. Nehork ez zion jendakirik ezagutzen. Bakarrik zen munduan. Haren odoleko guziak hilak ziren. Hiruetan hogoitamar bat urte zituzken

Etxez-etxe zabilan, egunean eguneko ogiaren eske. Nehork ez zuen etxetik haizatzen, denek baitzakiten ez zela buhamia, baina etxe batetako azken xoria.

Arnoa maite zuen, maite, emazteki batek maitatu behar luken baino maiteago. Biper eta tomatea ere maite zuen.

Paristar aberats heiek gaixo emazteaz urrikitu ziren. Heien etxondoan pasatzean, Lipusa segur zen zerbait hondarreriaren ukaiteaz. Beren burua edertzen zuten hola, paristarrek, ongiegile gisa.

Paristar heiek hiru gatu xuri bazituzten, polli-tak, hiruak berdin-berdinak. Haurrik ez zuten. Gatuak ziren jaun horien bihotz altxagarri. Orai xahartuak ziren. Ez zuten gatu beharrik.

Gatu horiek Lipusari utzi zituzten eta Lipusari ohore zitzaion gatu xuri horien ukaitea. Herri guzian ez zen gatu horiek bezain pollitik.

Gatuek Lipusa maitatu zuten. Alta ez zuten bizi bera.

Bainan Parisen baino libertate gehiago bazuten. Etxetan esne ona edaten zuten, errabero goxo hartarik. Haur batzuek maite zuten gatu horien bazkatzea.

Eta gu, haur tzarrak, egun batez pentsatu ginuen Lipusaren gatu xuriak gorde behar gini-

tuela. Bai gorde! Orduan erraiten zaukuten gaizkiaren egiteko aski izpiritu baginuela.

Igande batez gatuak iguzkitarat ikusi ginituen. Bildu ginituen eta artegi zahar batean hetsi.

Emaztekoa kexatzen hasi zen. Guk ez ginuen deus erraiten. Eta, gaixtoak, alegia xerkatzen egiten ginuen!

Emaztekiak apezari meza bat galdatu zuen gatu gaixo heientzat. Bainan apezak ihardetsi zuen gatuek ez dutela arimarik eta ez duela, hortakotz, mezarik emaiten gatuentzat.

Lipusa errientaren ikusterat etorri zen. Harri mutur batzu bezain ixil egon ginen. Orduan errientak erakaspem batzu eman zauzkun: ez dela ontsa andere hortaz trufatzea, gaixtakeria dela hori, haur onek ez dutela holakorik egiten eta holako.

Gatueri jaterat eremaiten ginuen gordeka. Baginuen ongiarentzat ere izpiritu poxi bat. Ez ginuen nahi gatu horiek goseak hil zitzan.

Lau egun atxiki ginituen gatu xuriak preso.

Egun hartan Lipusak bere gatuak bide bazterrean kausitu zituen.

Gure etxean sartu zen gatulu bat esneren galdez.

Gure azken gaixtakeria izan zen, naski, Lipu-sarentzat, gatu xuri horien gordetzea.

Gatuek oraino ainitz urtez bizi izan ziren. Ez dakit nola hil izan ziren, Zeren herritik urrundu bait nin-tzan.

GAUEZ GAU

Hamar bat urte ukan behar nituen denbora heetan.

Etxean labea pizten ginuen oraino ogiaren egiteko.

Behin, labearen pizteko bezpera arratsean, ama ohartu zen altxagarria zaharra zuela.

—Eta futxo, batere ez duk altxatu! —erran zuen hirugarren aldikotz usaindatuz— Ez zian ontsa hetsia... Eta Hartxurirat joan behar diagu.

—Ez ni segurik —ihardetsi nuen berehala—. Izigarri ilun duxu!

Aintzinetik banekien nik segurik joan beharko nuela, gehiena izanez.

—Biak joanen gituk. Nik makil ferratua hartzen diat.

—Zer eginen duxu xuk makilarekin?

—Sugeak eta apoak kalituko!

—Eta otsoak?

—Berdin-berdina!

—Hartzak?

—Hek ere!

Ez nintzan gogotik atera etxetik. Beldur nintzan, gaua zelakoan.

Bide handirat atera orduko, amaren makilak, eskuetan gogor, tanka-tanka azantz egiten zuen harriaren gainean.

Nihaun baitan ari nintzan, hea amak makilaren xixpa aski goiz agertuko zuenez etsaiaren garbitzeko, edo bederen iziarazteko, ala izialdurak buru-besoak lokar araziko ziozkan

Ez dakit zendako amaren aintzinean abiatu nintzan patarrari goiti. Alta izitua nintzan, hea zer aterako ote zaukun bi aldetako hesien gibeletik.

Begiak hetsirik ala idekirik berdin-berdina ageri zen.

Ene baitan egin nuen ni gizona nintzala eta ama emaztea. Haur hutsa izanki eta... Ez dut sekulan konprenitu zertako amaren aintzinean jarri nintzan.

—Hago emeki, mutikoa! Zer nahi duk ala nitaz trufatu?

Nere bidean abian nintzan, ezker, eskuin eta aintzinerat beha. Ene begiak ez zauden ez lo!

Eta burua airean nuen hea zer aterako ote zen. Hori nuen beti arrangura. Hortaz nintzan beldur.

Eta hara hantxet bi argi hori, elgarretarik ez urrun, bi argi luxe eta mehar.

Izitu nintzan eta bihotza tanpa-tanpa senditu nuen. Ez nintzan halere gelditu, amari oihu egiteko.

Ordu berean azantz bat hauteman nuen hesian. Burua itzuli. Deus ez ikusi!

Argi heieri hurrantzen ari nintzan, beti hurrantzen. Ama gibeletik nuela ahantzia nuen. Nihaur nintzan.

Gorputz guzia inarosten zuten bihotzaren tanpek. Izitua nintzan. Hotz bat jin zautan bizkar-rari behera.

Bi argi, gero eta gaixtoago, hurbiltzen ari zaizkitan...

Deus ez nuen hautemaiten. Buruko indar guziak begietan nintuen. Begirik baizik ez nuen tenore hartan.

Argiek marra beltz bat bazuten inguruan eta bertze bat erdian.

Eni beha zauden argi hek, ene begiak lehertu eta itsutu behar baluzte bezala, eta burua burutzura arazi.

Amak ez zuen deus erraiten. Ni bezain izitua araiz! Eta makila?... Funtsean ez nakien hor zela ere!

Bi argien ondoan iragan nintzan. Han itzatuak bezala egon ziren. Argiak baizik ez nituen ikusi gau beltzean.

Eta ez nuen gero berriz gibelerat behatu, hea amak zer jestu atxikiko zuen.

Hartxurian sartu ginelarik, ama harritu zen begiak zoin zorrotz nituen. Bixtan da, akituak ziren; zorrotzuak argi heieri beha.

—Zer duk, mihia galdu? Are, hea erran zak *gau on!...*

Ene gogo hila bezala zen. Ez nezaken deuseri ihardok.

—Alta oixtian arrebarekin aharran artzeko on hintzen!... Badakizu, Kattalin, bortxaz ateratua da, eta nahi daut punizione bat eman. Bide guzian, zanpa-zanpa, ene aintzinean ibilia da...

—Bi argi...—erran nuen uste gabetarik.

Bi emaztekiak elgarri beha egon ziren.

—Gatu bat zian, mutikoa —erran zautan amak.

—Ah! Gaixo Frantxua, ez hinakiena gatuen begiek argitzen dutela gauaz? Orai ikasiko duk...

Eta bi emazteak irriz hasi ziren.

Ni ahalgetu nintzan.

Etixerat ere amaren aintzinean jin nintzan.

Ni, gatu batek izitzeko! Hik errak! Zer solda-
doa! Zer gizona!

KATTALIN GORRI

—Mayi, itzulan behi hura! Gero bertze ixtorio bat kondatuko daunat...

Mayi, nik erran bezain laster, artoan sartua zen; behi zuriaren itzultzerat joan zen makila txar bat harturik...

—Eta ixtorioa?

—Ba, orai berean... Haurra nintunan. Hire adina, no... Bederatzi-hamar urte... Alor huntan berean. Aita eta ama merkaturat joanak. Beren beharrez. Ez gininan ez gauza handirik esperantzaz. Bixkotxak, oñoñak edo bedera liranja. Baina ez denak batean, aldian bat. Halere kontent gintunan, aitamak ateratzen zirelarik, guhaur nagusi-etxekandere, hiru anai-arrebak. Arratsaldeko biak hiria izan behar zinan. Udako arratsalde bero bat, beroa, oi ba beroa... Iguzkiak min egin nahi zinan. Egun baino biziki beroago. Zeru garbi-garbia. Lurretik halako bero sapa bat ateratzen zunan.

Alor huntan orduan parux eder bat bazunan, lili. Dena lili gorrail, matalaz perde batean xixta-tuak bezala, berdin-berdina.

Hemen gintunan ez dakinat orai zertako. Denbora pasa, araiz!

Lili gorri heien ondoan, hobeki behatu-ta, bertze gauza gorri batzu ageri zitunan. Gauza ttipi batzu, gorriak ttitta beltxeekin. Zoin pollitak! Badakina zer diren?

—Baa! Kattalin gorriak!

—Hala ditun, Kattalin gorri, gorri... Zernahi Kattalin gorri bazunan, paruxaren hosto perden, itzal eztian. Eta badakin Kattalin gorri bat erhia-ren puntarat iganarazten badun erranez: *Kattalin gorri-gorri, bihar iguzki gorri!* eta hortik hegaldatzen bada, biharamunean denbora ederra izanen dela. Ez bada hegaldatzen berriz, denbora txarra!... Eta Kattalin gorriak eta Jainkoaren xakurrak hiltzen badira ikaragarriko erauntsiak hasten omen ditun.

Guk ere, ikusteko, egun hortan zernahiko Kattalin gorriak bildu gintunan. Hiru anai-arrebek bedera ahurtara. Gero lurrean zilo bat egin gindinan... Eta hiruetan hogoitaemeretzi Kattalin

gorriak ziloan sartu eta lurrez estali... Batere marrakarik gabe hil zitunan.

Ixtant bat ziloari beha egon gintunan, ez ahal zirela araziz hegaldatuko, beren hobitik, Jesus bezala...

Eta ordu berean zerua iluntzen hasi zunan, beltz-beltza jartzen. Etxerat joan gintunan lasterka.

Gu etxerat orduko euria burrustan hasi zunan. Euri zikin bat, lur kolore, erreketan badaikin zer ur nahasia heldu den euri ondotan? Halahala.

Jendeak oraino merkaturat abian zitunan. Bat gure hegazperat sartu zunan, ater beha.

—Zer euri zikina! Oixtian halako zeru ederra eta halako iguzki samina! Zer ari zauku Jainkoa, —erran zuen, kexu, aztala lurrean joz bere soinekoetarik uraren jautsarazteko.

Guk hiru anai-arrebek elgarri behatu gininan. Ixilik ginaudenan. Baginakinan gu ginela hobendunak. Guk ekar arazia euri zikin hori!

Ez gintunan samur.

Ez gininan halere erran hiru ahurtara Kattalin gorri baginituela bizirik ehortziak. Nehork ez din jakin gauza hori.

Eta, gaixo Mayi, ikusten dun, orai ez nezaken Kattalin gorri bat ere hil... Bihotzean pena hartzen dinat. Kattalin gorri bat ikusi orduko gauza hortaz oroitzen nun.

Lehen, haurra nintzalarik, ixtorio hau biziki alegerakiago kondatzen ninan, dena irri eta espantu. Bainan orai bihotzean halako hisdura bat senditzen dinat... No, Katxo berriz ere artoan dun... Habil itzultzerat...

MUNTRA

Bentaxuriko Joanes Baionarat joan zen bere semearekin. Seme harek, hamabi urte, lehen aldia zuen Baionarat zoala. Zer alegrantzia bihoztzean!

Bazakien ba aitak zertarat eremaiten zuen Baionarat, treinez.

Hilabete baten buruan zuen, Mendekostez, komunione handia, Peyok.

Eta aspaldidanik aitak hitzemana zion muntra bat erosiko ziola orduko. Peyok bere haur denboran ez zuen jostatzeko pusketan sos handirik xahuarazi.

Muntra bat ukanen!

Holako hitzak ez dira ahanzterat uzten. Muntra eder eta pollit haren beha zagon haurra laubost urte heietan. Eta ez zuen bertzerik galdatzen.

—Muntra! Muntra!... Ene ukaiaren inguruan. Noiz jinen ote da egun hura? Hamabi urte banintu!

Egun hura jin eta aita beti hitz beretan zen. Ez zuen estakururik pentsatu muntraren ez erosteko. Hitza hitz.

Alta haren moltsak ez zuen holako beharrik.

Bainan hitzemanen zuen bere haur bakarrari. Edo ez, ez zen ez bakarra: arreba ttipi bat galdu zuen hiru hilabetetan.

Donibane Garazin ez zen muntra politik eta denak kario.

Baionarat joan ziren beraz.

Bentaxuriko Joanesez bazakien Port-Neuf karrikan bazirela muntrak saltzeko. Hoberenatarik.

Arkupetan sartu zen bere haurra eskutik, boneta kopeta gainean xorrotx, errainetarik poxi bat makurtua. Baionaraino ateratzeko igandetako ator xuri mehatuari kola faltsua ezarria zuen ontsa lisaturik.

Arkupetan lehen joaieria... Dena muntra, dena erraztun, dena zilar, dena urre, dena perla...

Memento bat kanpotik beha egonik, sartu ziren, gure aita-emeak.

Bi gizon eleketa ari ziren. Biek ontsa ekartzen zuten, beren tripa handiekin.

Bat aita-semenganat hurbildu zen:

—Zer atsegin zinukete jaunak?

Haurra bazter guzietarat beha zagon, ahoa idekirik. Deus ez zuen entzuten. Egundaino ez zuen holako ametsik egin.

—Nahi... Muntra bat nahi nuke, muntra bat haur hunentzat...

—Berehala... Zure zerbitzuko... Zonbatsu eman zinezake?

—O! O! O!

Pollita nahi zuen, ona eta ez kario.

Oi! laborari hori ez da zikoitza. Bihotz ona ere du. Duenetik emanen dautzu gogotik eta ausarki: ogia, arnoa. Bainan sosari kasu egin behar du. Berak daki nola egiten den sosa Bentaxurin.

Gizonak ainitz muntra erakutsi zituen, polli-tak, onak, bainan kario.

Joanesez ez zakien zer erran eta ateratzekotan zen.

—Iraupen poxi bat nahi baduzu ukan dezan zure muntrak, bixtan da behar dela doi bat pagatu. Orduan lau urtez, hausten badira, urririk erre-

paratzen ditut... Bainan gero, bixtan da, badira merkeak, bainan merkeak merke lan, eta haus-ten badira, Jesus!...

Gizonak besoak zabaldu zituen sorbaldak goi-tituz.

Haurra bat-batean ohartu zen haren amets guziek lurrerat joan behar zutela.

Aita pentsaketa zagon, saltzaleak bazakien laboraria zela. Eta haren ustez laborariek nahiko sosa badute, bainan nekea laxatzen.

Orduan bigarren gizon tripa handi hura hur-bildu zen. Amerikano donado, aberatsa, Baiona-ko ostatu batean bizi zena, lehengo Amerikano-ek alfer bizitzen zakiten bezala.

Laborariari erran zuen ahapetik bezala:

—Zinez, ez duzu muntra on batentzat sos hori emaiten ahal?

—Ez. Ez nihundik.

Orduan Amerikanoak haurraren bertze eskua hartu zuen eta galdatu:

—Zer ariko hiz gizondu-eta?

—Laborari.

—Aita bezala?

—Ba. Ba jauna... —ihardetsi zuen haurrak burua apalduz eta gorrituz.

Orduan jaun harek haurrak hautatu muntra pagatu zuen.

Haurraren zoriona!

Harek ere bere hitza atxiki du.

Aitak bezala.

Lau haur baditu orai, hantxet, Hergaraiko etxe ttipi batean.

Haur horiek, handitu-eta, ez dezaket erran laborari egonen direnetz.

MUNDUKO ZIRKARIK EDERRENA

«Igande arratsaldean, munduko zirkarik ederre-
rena... handiena... aberatsena... Izigarriena...
Donibanen izanen da! Bizi guzian ez duzue ber-
tze holako zirka bat ikusiko! Zoazte, zoazte
beraz ikusterat ordu deno!...»

Gizon bat otoaren barnetik mintzo zen herri-
ko karriketan gaindi. Jende guziak, bazkariaren
artetik, borta-leihotan jarri ziren. Etxe batzuetan
aitamak oihuka ari ziren, hea zer behar zuten,
haur tzar horiek, kanporat joan jateko artetik!

Otoa plazan gelditu zen. Bi gizon jautsi ziren.
Plazako murrua busti zuten eta paper handi bat
hedatu

Haurrak hurbildu ziren.

—Hartz horri!

—Hortz horiek!

—Hilen dia gizon hori?

—Eta lehoinak!

—Ez duk lehoinik!

—Ba araiz: zozoa! Eta hori?

Gizonek mustatx handi batzu bazituzten. Haurrer erran zuten munduko zirkarik handiena zela hori eta ikusi behar zutela!

Eta otoa, berriz musika eta oihu, herritik kanporat joan zen.

Uda zen. Iguzkiak joiten zuen. Lehoin, hartz eta zimino horiek deubrua begietan iduri zuten iguzkitarat.

Martik amari buruz erakusterat eman zuen zirka horren ikusterat joan nahi zukela. Amak erran zuen gauza hori aitari galdatu behar zela. Bainan aita ixilik zagon. Eta haurra ez zen aitari galdatzerat menturatzen. Marti mintzo zen, mintzo, hartzez eta lehoinez...

—Are! Jazak salda hori, eta bakea!

Aita zen hola mintzo.

Haurrak burua apaldu zuen. Ixildu zen eta jaten hasi.

Aita jeiki zen eta atera.

Haurra berriz zirkaz, lehoinez eta hartzez mintzatu zen amari. Amak Marti sugaiketa igorri zuen eta Martik ama berehala obeditu zuen, sekulan ez eta!

—Oherat orai!

Marti ganbaran sartu zen, bortxaz, eta leihoan jarri.

Kanpoan ikaragarriko beroa! Plazan haur batzu oihuka ari ziren. Martik pentsatu zuen zirka paper handi haren aintzinean zaudela haren lagunak.

Ez zitaken ganbaran hetsirik egon tenore hartan!

Ganerrerat joan zen espartinak eskuan, zango punttetan, aitamek hauteman gabe, eta handik sabairat.

Kanpoan zen.

Plazarat laster egin zuen.

Ba! Haren lagunak han ziren, harek pentsatu bezala!

—Marti! Igandean Donibanerat baniak aitarekin!

Martik ez zuen bere lagunari behatu ere. Begi eta gogo han zagon paper handi haren aintzinean zoraturik.

Otsoak, lehoinak, hartzak, zaldiak, elefantak, jirafak...

Ez! Zirka hori ez du huts egin behar Martik!

Munduko zirkarik ederrena, aberatsena...
Bizian aldi bat...

Bizpahiru egunen buruan avion bat iragan
zen zeruan, avion bat biziki apal. Garbi-garbia
ageri zen: *Circus-Circus!* bi hegalpetan.

Biharamunean oraino avion hura bera herria-
ren gainean inguruka arizan zen, gaitzeko itzuli-
purdiak eginez, xoriek berek egin ez dezazkete-
nak. Bai. Zirka hori munduko handiena ditake
avion bat ukaitez geroz!

Martiren errabia ez zoan ttipituz.

Herritarrak oro, gizonak haurrak bezala, zir-
kaz baizik ez ziren mintzo.

«Munduko zirkarik harrigarriena...»

Martik egin zuen, gizonak berak zirka hortaz
dena espantu ari zirenaz geroz, zirka hori ez zita-
kela hain txarra.

Eta bertze zirka batzuetan ikusi gauza harri-
garri batzu kondatzen zituzten, haurren aintzi-
nean berdin!

* * *

Horra igandea.

—Joanen ote niz zirka horren ikusterat?

—Jazak ba salda hori! Jazak haurra! Zer uste duk dela zirka? Hemen ez dea zirka? Gezurrak dituk horiek oro, sos biltzeko!

Aitak ez du nahi. Ez da gehiago deus egitekorik. Martik ez du munduko zirkarik ederrena ikusiko.

Haurra oherat badoa. Nigarrez ari da eta.

Munduko zirkarik handiena, ederrena... Bizian aldi bat.

Ez ote du ba Martik zirka hori ikusiko?

Ba, ikusi behar du. Eta ikusiko du.

Espartinak eskuan sabaitik gaindi ateratzen da beti bezala. Iguzkia samin. Ixtant bat: Aitak ez du deus hauteman? Ez.

Zahalo bat mozten du hesian eta Peko-Pentzerat doa heinka.

Eta han etxeko zaldi beltzaren gainean jartzten da eta lauazka hirirat buruz abiatzen.

Johan da, johan zaldia, haizea bezala, haurra biz-karrean etzanik esku batez lepoko kumari lotua, ber-tzean zahaloa.

Munduko zirkarik zoragarriena...

Lehoinak, hartzak, elefantak, tigreak...

Badoa, badoa Etxexuriko zaldi beltza! Martik maite du zaldi hori: hoin gogotik eremaiten du eta zirkarat!

Arri! Mando! Arri! Zalu-zalu! Arri! Arri!
Zirka!

Haur guziak han dira beren aitamekin. Eta Marti bakar-bakarrik! Ai zer gizona!

To! Sosik ez! Nola sar? Lau gizon ate zain!

Bainan hain da, gure Marti, bideko errauts eta izerdiez zikindua nun zirkako haur tzar heietarik batentzat harturik sartzerat uzten baitute.

Hartzaren potta! Elefanta dantzari! Gizonak burua lehoinaren hortzen artean!!

Gizonak airean, harat jauzi, hunat jauzi!

Oh!...Oh!...Oh!...

Ai hamar urtetan ikusi zirka! Hori da, hori, munduko eta bizi guziko zirkarik ederrena!

Ez dea hala Marti?

MINTZAIRA

Hiru egunez, lantegi batetarik bertzerat, jende handien etxetarik bulegoetarat, Michel Eygas lanketa ibili zen Parisen gaindi. Deus ez zuen atxeman.

—Ez diat gehiago xerkatuko! —egin zuen bere baitan hiru egunen buruan—. Ez dautate-nez geroz eman nahi, nihaurek hartuko diat!

Eta gogoan hartu zuen ohointza bat egin behar zuela, lehen aldikotz bere bizian, atso xahar bati eskuko xakua kenduko zuela, eta beharrez hilen!

Handiagoko zerbait egin nahiagoko zuen: aberats zonbaiten etxean sartu, joaieria edo banko batetako, *coffre-forta* bortxatu; baina hortakotz biga behar litazke. Eta bakarrik zen hura, bakarrik eta gogoia ilun. Ez zen sekulan lagunekin ateratzen, moltxoan. Ez zuen otorik bide handiko ohoinek bezala. Errebolber txar bat baizik ez zuen, hantxet ur bazterrean eresia egun batez eta menturaz sudurrerat zapartatuko

zaiona. Nola egin zezaken ohointza ikaragarri bat, lehen ukaldian?

Beraz, hasteko, emazteki baten eskuko xakuaren hartzea, gauaz, edozoin karriketan... Gero ukaldi handiak!

Apailatu zen, mutikoa.

Hogoi urteko mutiko bat zen, ttipi eta beltz, beldurrik gabea eta lerdena. Ofizioko eskola batetarik ateratua zen.

Aments egina zuen lantegi handi zonbaitetan zerbait lan atxemanen zuela eta hala bere bizia ederki eta oneski irabaziko. Bainan izanez geroz hola? Gosea tripan xorrotx delarik, soinekorik ez delarik, gaztetasunak galdatzen dituen guziak falta direlarik: sosa, zoriona, besta...

Haren lanari zoakon karrika bat bilatu zuen 17garrenean. Bide kurutxe bati ohartu zen, hiru karrika elgarretarat juntatzen ziren toki hura behar bezalakoa zela harentzat... Han eman zen xutik, tente, eta beha egon. Gauerdi zen doi-doia. Sobera jende bazabilan. Bainan berehala menturaz...

Eta beha zagolarik gogoan ibili zituen oroitza-pen deitoragarri batzu: bere herriaz oroitu zen,

bere aitamez ere, han Eskual-Herriko laborari sano batzu, gostuan lo zaudenak tenore hartan, eta ez zirenak dudatzen, gaixoak, heien Mixel ordu berean ukaldi tzar baten apailatzen ari zela... Bainan intziri bat egin zuen eta bazterrerat aurtiki haurkeria horiek. Miseria gorrian zenaz geroz Parise aberats horren erdian... Amak nahiko zuena bere semea eskatzen ikusi, adin hortan!

Beha egon zen, xifritua, etxe handi baten xokoan, bertzetarik barnago zen etxe baten xokoan. Eta Saint-Bernardeko erloiak oren erdi bat joiten zuela, emazteki bat dena sanfreta ikusi zuen atseginekin, xakua eskuan. Kanpozt ontsa emana zen iduriz. Ainitz sos ba ahal zuen berekin. Haren begien aintzinerat jauzi zuen, errebolbera esku eskuinean:

—Hire sosa! Edo erratzen hut!

—Eh, Jainko maitea! Ene sosa! Ez diat sosik, mutikoa... Ukan banu, eman nezakek gogotik, to... bainan gaizoa...

Gibelka zozan mintzatuz, gibelka, beldurrez itoa...

—Oi! Ez nuzu hilen ar aiz!... Deus ez dutala erranez geroz... Bortz libera, goren-goretetik...

Mixel duda batek hartu zuen. Emaztekiaren min-tzaira hori, amaren, arrebaren mintza moldea... Hango norbait izan behar zuen.

—Ez —erran zuen aski apal—. Ez zaitut hilen.

—Ai! Irri egiteko ari zinen beraz?

—Bai, irri egiteko! —ihardetsi zuen frantsesez.

Eta gero eskuaraz ateratu zuen:

—Eskualde berekoak izan behar gira emazte-
kia!

—Oi! Jainko maitea! —egin zuen goraki—
Gaizo mutikoa, hangoa hiza! Donibandarra?
Baionesa? Nungoa hiz?...

Arma sakelean sartu zuen Mixelek.

—Bai, hangoa nunbaitekoa niz —ihardetsi
zuen mutikoak—. Ez zitela izi. Nun egoiten zira?
Lagunduko zitut. Jende gaixtoak atxemaiten ahal
dituzu bidean.

Eta haren sahetsean kurritu zen; jarraitzen
zi-tzaion, urrats ttipika, eskuaraz mintzatzuz,
Baiona, Donibane, Hazparne aipatzuz, hango oroi-
tzapenak erabiliz. Eta eskuarazko solas bakotxa,

haur denborako lehen mintzaira, haren bihoztzean sartzen zen odol berri bat bezala. Eta bazoatzen kanporat, holaxet, haren gogoeta beltz guziak. Haur denborako soinu ezteik beharriak goxatzen ziozkaten. Eta haren gogo ilunean bizi berri baten indarrak senditzen zituen, hegaldatu lotarik iratzartzen ari balire bezala. Iduritzen zitzaion emazteki horrek, eskuaraz mintzatu, urtxo xuri andana bat presondegitik ateratzen zituela eta haren begien aintzinean ibil arazten.

Mutikoa hurrandu zitzaion, besoaren emaiteko gutizia bazuen.

Bainan emaztekoa, hura, ikaran zagon mutikoa hola hurrantzen ikusiz... Bi mila hamaseia! Mutiko zarpila hori sosa galdez lotu zakona, errebolbera begien aintzinean ezarri diona... Ezker eta eskuin behatzen zuen, begi bazterraz, jandarmarik ikusiko zuenez araz.

Bainan Mixel, hango mintzairak goxoki lokar arazirik bezala ez zen ohartu emaztekiaren beldurrari. Eta bazoan, gostuan, bihotza argitua, kasik zorionak hartua.

Bizkitartean ikara bat ukan zuen berehala, karrikaz-karrika, emaztekiak aski urrun eremana zuen. Argi dudazko bati ohartu zen, bere aintzinean, berrogoitamar urratsetan: polizaren jauregiko argia.

Urrats ttipi bat egin zuen gibelerat.

—Kixkila! —erran zuen samurrik—. Zer ninduzun presondegirat ereman nahi, eh! Ah! Oizu eta lekuak huskitzu hemendik zalukara edo bertzenaz... Hango mintzairarekin edo gabe... Eta menturaz salbatzen ahal ninduzun, gaixo herri-tarra!... Ai Jesus maitea...

Eta Mixel Eygasek ihes egin zuen, zalukara, karrika huts batetarat.

Harritua, emaztekiak ikusi zuen itzal hartan gordetzerat mutiko gaixo harek, bere herriaz mintzatu banako gehixago. Lehen aldia zikenan. Zer eginen du orai? Zer eginen!

—Jauna! Jauna!... —oihu egin zion, ahul-ahula, karrika txar hartarat buruz zoala—. Nun zira? Hep! ene adixkidea! Zauri beraz!...

Dolu zuen mutila polizaren jauregirat eremantik eskuen husteko. Iduritzen zitzaion eskuetan atxiki zuela arima nahasi bat, ongiari buruz

bezain errexki gaizkiari buruz lerratzen ahal zitakena.

Eta haren faltaz, menturaz, gau hartan berean...

—Jainkoa! —erran zuen bere mintzairan intziri bat eginez.

Oraino aldi bat oihu egin zuen karrixka ilunean; bainan nehork ez zuen ihardetsi, nehor ez zen agertu. Denak ilunik zauden, ixilik, deus ez zitaken konpreni!

Bat-batean, han nunbait, urrun, garrasia karats bat, emazte garrasia bat: *Hel! Hel!...*

Burua galdua, emaztekoa zeinatu zen, eta lekuak hustu zituen harek ere, pentsaturik mutiko hura gaixtakeria baten egiten lagundua zuela, hura ere hobendun zela.

IZPIRITUA ARGI

Beti oroituko niz, larrazkena zen. Aita iratze epaitetik jin zen mutilarekin eta sukaldean sartu. Ni kasetari so nindagon eta gauza guti nuen irakurtzen. Hameka urte ukan behar nituen. Aitak erran zautan, eskuen ikusten ari zelarik:

—Egin dutea gobernamentua?

—Ez dakixut!

—Zeri behatzen duk beraz?

Ez nuen deus ihardetsi. Ez nuen gobernamentuaz axolarik. Bainan halere behatu nuen lehen lerroetan eta hitz handitan ikusi nuen: *M. Bidault a formé le gouvernement*. Eta nik uste egun hartaz geroz kasetako berrien jakitea atsegin ukan nuen.

Joan den egunean berriz anaiak erraiten zautan:

—Barda arratsean nagusia ari zian haurrerri: Zoin da Australiako kapitala? Holandakoa? Yugoslaviakoa?...

—Berak badazkia bederen? —erran nuen berehala...

—Ba, ba! Beti kasetaleitzen ari baita!

Alta nagusi harek ez dakit zertifikata bazuenetz! Eta izpiritua argi zuen.

Hondarreko bozken ondotik, hemezortzi urteko mutiko bati galdatzen nuen:

—Nor da nagusitu zuen herrian?

—Ez zakiat batere! Ez diat horri kasu egiten!

Adin hortan ahalge izan behar litake holako errepostu baten egiteko. Ene hamar urteko anaiak berak bazakien gure herrian hunek eta harek zonbat boz ukan zituzten eta boz bat bazela ez *bali*, ordainaren izena marratua zelakotz.

Errientsak errana zakoten hamar urtez goitiko haur guziek eskolarat jin behar zutela itzuli baten egiterat bozkak nola pasatzen ziren ikusterat. Mutiko horrek berak erraiten zautan atzo avion bat bazela galdua:

—Nun?

—Españan!

—Nork erran dauk?

—Errientsak kasetatik leitua!... Eta eskola batean zernahiko haurrak erre dituk, Ameriketant!

Ohore holako errients bati! Eskolako lanaren artetik izpirituak argitzen ditu eskolako biziak kanpoko harat-hutanez. Haur haiek, segur naiz, gero ere irakurtzen artzeko gustua atxikiko dute, munduko eta Frantziako berriak jakin nahiko dituzte. Ezen ainitzek, bereziki mutikoez, eskolaz kanpo deus ez dute irakurtzen. Uste dute eskolan fini dela izpirituaren argitzea, *quand on sait conjuguer le verbe aller*, eta gero liburu eta kasetak bazterrerat utzi behar direla. Ez, beti irakurtzen behar da arizan, gizona beti ikasten ari da. Ahalge behar litake izan etxeko eta herriko berriez kanpo bertze berrien ez jakitea. Ez uste izan herria mundu bat dela, lurreko berri larrienak bederen jakin behar litazke eta jujatu. Zonbaitek uste dute erraiten dituzten zozokeriek heien izpiritua argi erakusten dutela. Gure gorputzak egun guzietz baso bat arno merexi badu ez ote du gure izpirituak egun guzietz zerbait merexi?

Eta ez da aski bakarrik so egitea Donazaharren, Isturitzen edo Mithikilen nor ezkondu, sortu edo hil den. Gauza ttipiak dira horiek, ez gituzte

biziki aberastuko, aintzinean bezala izanen gira haiek jakin eta.

Zerbait gehiago behar da irakurtu, izpiritua zinez argitzen duten berriak: Nor den Frantziako gobernamentuan, zer diren gizon horiek, zer egiten duten gure biziaren hobeagotzeko, bakea denetz munduan, jende beharrak nun diren eta nola bizi, lurren ibiltzeko eta aberen hazteko molde berriak zer balio duten, nola praktikatu behar diren, nik dakita zer oraino! Hainbertze gauza bada gizon baten izpirituak jakin behar luzkenak. Ez gira gu, gazteak, duela berrogoi urte bezala bizitzen ahal, herrian pasatzen diren ixtorioak gure aho-gogoetan ibiliz.

Burua larre joaiterat uzten badugu Sokorrik erraiten zuen bezala duela zonbait hilabete, beti eta gibelago geldituko gira, hiritarrak beti aintzina go joanen baitira. Beti leku berean egoitea ere gibelerat joaita da bertze batzu beti aintzina baitoatzi guri kasu egin gabe.

Gazteak, ez da eskolan finitzen gure jakitate! Han ikasiak ahanzkor dira. Haste bat da eskola, gure izpirituen poxi bat erne arazteko, iratzar arazteko norapait, gure begien idekitzeko

munduaren aintzinean. Guri da gero eskolako jakitatearen hedatzea, adimendua beti eta azkar-rago jartzerat doalarik. Eskolan baino gauza handiagoak eta baliosagoak konprenitzen ahal ditu hamalau urtez goitiko mutiko edo neska baten buruak.

Badakit ainitz gazte liburuez eta kasetez trufatzen direla, ez dutela hek holako beharrik, eta ez dut hemen aipatuko zertako ibiltzen dituztela erraiten duten! Aizinarik ez dela, lanaren ondotik akituak direla liburu eta kasetak dena gezur direla, estakuru batzu dira horiek. Eta ez zazuela uste ukan jende guziak zango bat bertzearen gainean daudela hirian edo bulegoetan. Badira laborariak bezanbat leher egiten dutenak, barne hetsi batzuetan itoak, burdinari zanpaka. Eta horiek beren kasetaren irakurtzeko denbora hartzen dute, behar bat senditzen baitute izpirituan, huts bat, jakitate egarri bat. Eta jakitatea ez da bakarrik bonba atomika nola egiten den, ez ginezake deus konpreni! Jakitatea da izpiritua haztea munduan gertatu gauzez, gizon batzuen indarrez eta dohainez baliatzea gure biziaren

edertzeko eta hobeagotzeko. Jakitatea egarri bat da, behar bat.

Gazteak nola lotaraz irakurtzeari

Oraino ere nihaurek edo bederen ene inguruan gertatu gauza bat kondatuko dautzuet has-teko, barkatu!

Eskolan nintzan. Sei mutiko berrehun neske-ren erdian!... Bainan hori bertze ixtorio bat da. Halabeharrak araz, neska xarmant baten ondolan nintzan bi urtez. Parisen sortua, alde hotarat jina zen, bilo hori luze batzuekin, hain xarmanta nun guk mutikoek, *Grace Kelly* deitzen baig-nuen. Tutula egiten zuen frangotan. Hemeretzi urte zituen beraz Huguettek... Hortan geldi...

Pollita zen, bainan merexi zuen.

Beraz hain xuxen hura edo ni ginen, kasik aldi guziez, lehen. Eta frangotan nik lagundurik lehen izan da... eta ni bigarren! Halere ez nintzan sobera samurtzen. Bainan gaixo Huguette, beti lehen nahia zen eta zernahi eginen zuen hortako. Aldi batez gu hiru mutikoren gibeletik egon behartu zitzaion. Eta nigar egin zuen. Beti lehen nahia, denek baino gehiago jakitate

bazuela erakutsi nahi. Aldi batez erran zautan goizeko bi orenak artio arizana zela ikasten. Sinetsi nuen, zeren neska gazte horrek bere leitzioneak ontsa ikasten baitzituen. Ez nintzan hortaz samurtzen. Eta bihotzean halako goxadura bat senditzen nuen *en faisant marcher Hugue-tte*, ixil-ixila, ni baino gehiago zela erakusteko laguneri eta profezurreri. Halere biek ukan ginuen *Prix d'excellence*.

Gure jakitatea ez zen berdina; harek denak gogoz ikasten, hitzez-hitz, nik aldiz liburuetan ikusia (eta ez beti hitzez-hitz ikasia!) nihaurek egiten nuen ene gisan. Hura hiritarra eta ni karpainiarra! Bainan berdin balio du...

Neska hori ez zuten nehork maite (salbu nik, ez uste ukan errana dakotala!). Ez zuten maite, beti lehen nahi zuelakotz izan eta hori teka txar bat zela. Nik aldiz maite nuen borondate ona zuelakotz, beti bertzek baino zerbait gehiago ikasi nahi zuelakotz. Maite nuen haren karra, maite nuen haren bihotza lanean. Eta lagunek erranik ere: *On te casse la g... si tu lui parles!* beti mintzatu nitzαιο eta beti adixkide egon gira, lehen lekuarentzat gerlan izanik ere. Hitz dau-

tzuet bertze batzu ere entseaten zirela gure heinean jartzerat. Eta profezurak kontent ziren.

Maite nuen neska gazte hori, bertze neska eder eta ezaxol batzu baino maiteago. Hok ez zuten beren geroaz axolarik, ikasteko alfer eta nagi ziren (ez denak, eh!) Ez zuten nigar egiten... azken izanik ere. Profezurra zombaiten menskeriez mintzatzen zelarik halako irri zozo bat egiten zuten, iduri beren lanaz kontent! Eta oroitzen niz: *Qu'est-ce qu'il y a de risible, Mademoiselle! Vous devriez rougir et pleurer de votre ignorance! Vous êtes une paresseuse!*

Bai ahalge izan behar gintazke gure jakitate eskasaz. Bai, frangotan gure nagikeriaren, alferkeriaren eta ezaxoltasunaren falta da hori.

Nagikeria, alferkeria, ezaxolkeria...

Gazteak bere baitan ez badu irakurtzen artzeko jiterik, emaiterat entseatu behar da. Bortxaz bada bortxaz, haurrek errientak eman leitzioneak ikasten dituzte. Bainan gero nor ariko zaiote akulatzen, berak alfer eta ezaxol badi-ra?...

Haurdanik eman behar da eskolatik kanpo irakurtzen artzeko borondatea. Ez bortxaz, polli-

ki, eztiki, hurrek irakurtzea atsegin dutena begien aintzinean emanaz. Ez du balio erraitea: *Soizak hori!* ez bada haurraren gostuko irakurgai. Hurrek behar bezalako irakurgaiak badira: liburu eta kasetak. Orai eskuaraz ere hurrek ukatzen dute beren kasetak: *Xabier*.

Nork arta hartuko du haurren eskuetan kasetak eta liburuen emaitiaz? Aitamek frangotan ez dute grina handirik hartzen haurreri zerbaiten leitarazteko: eskolan eta katiximan ontsa ari badira aski. Ez diotegu hortaz erasien egiterik: berek nola haziak izan baitira eta hala beren haurren hazterat lerratzen dira. Ez dezagun beraz erran arras burasoen hutsa dela ez badute beren haurrentzat zerbait irakurgai erosten. Ez dute frangotan bertzerik egiteko.

Nork okupa beraz? Errientak eta serorak haurrentzat. Horiek dakite haurrak nola bil zerbaiten leitzerat eta indar handia badute heien gogogurietan. Horiek hitz baten erraitea aski dute frangotan haur batzuen intresarazteko. Haurrak etxean mintzatuko dira eta aitamek heien nahia egingen dute,errientsak, serorak edo apezak berak aipatua duela kotz holako liburu edo kase-

ta. Irakurgai bat norbaitek ontsa aipatzen duela-rik, barneko potreta berri eta ixtorioak erakutsiz eta laudatuz eta ez prediku bat eginez: *Haurrak, irakurtu behar duzue kaseta hau haur onen kaseta delakotz, zuen arimen zaintzeko, haur prestuak nola diren ikusteko, gero gizon izaiteko*, eta holako hitz handi eta huts —orduan dute haurrek maitatuko. Ez du balio haurrer goratik mintzatzea, apeza predikuan bezala. Haurrer haur gisa behar da jokatu, eta ez dute senditu behar norbait katiximatik kanpo oraino katixima egiten ari zaiotela.

Eta hamalau urtez goiti gutiago behar dute predikua senditu. Jadanik haur denboran zerbaiten leitzen usatuak badira errexago izanen da. Ez da hari neke izanen. Irakurtzeko gostua hartua ukanen dute ordukotz.

Gutiz gehienak orai laborantzako eskola libroetan dabilta (Eskual-Herrian bederen hortaz gira mintzo). Eskola libroetan direnaz geroz horko erakusleak ez dezaketea indar ttipi bat egin? Ez da beti arizan behar gaztearen gogoaren betatzen! Lurra nola ibil. Enoagarri da beti ikasten artzea gogoz. Ez litekea memento ttipi

bat atxeman lanaren artetik (bai, lanaren arte-
tik) gazteari zerbaiten irakur arazteko? Mahain
baten inguruan direlarik (hala nola neska gaz-
teak josten edo trikotatzen ari, berdin) ez deza-
ketea, aldizka, bakotxak bere itzulian, egun
guziez oren laurden batez lana utz zerbaiten ira-
kurtzeko? Egun hunek oren laurden bat, bihar
harek, sobera ote da?... Ez beti Ebanjeliaren ira-
kurtzeko, ez! Enoagarri litake, zinez! Irri egin
behar da batzuetan, irriz ase eta ase nigarrez
has artio!

Gaztek berek behar dute holaxet (edo bertze
molde batez, berdin balio zaut) irakurtzeko gos-
tua hartu. Zonbaitek baitiote eskuara neke dela
irakurtzeko (frantsesean berdintsu dira frango!),
emeki-emeki dira hola trebatuko. Hiru urtez zer-
bait egin ditake, emeki-emeki. Ez da egunetik
biharamunerat trebatzen, ez frantsesaren ez
eskuararen leitzen.

Haatik, ez erran neheri: *Girixtino baitzira,
beraz kasetak hau behar duzu* (etsenplu bat da).

Azkenekotz, gaztea ez delarik nagi eta alfer
leitzen artzeko, irakurgaiak berak du gaztea
intresatu behar. Senditu behar du haren falta

baduela. Berak behar du ikusi zerbait badela
harentzat. Berak behar luke, emeki-emeki,
harentzat egina dela ohartu.

GUTUN KURUTZAKETA

Alo Jean Etchepare, zuri mintzo niz!

Irakurtu dut Urtarrilean atera *Gazte* kasetan zuk egin zatia *Izpiritua argi*.

Barkatu horren gainean ere gogoia ager dezadan.

Segur ez niz zure kontra erraiten duzularik Izpiritua argitu behar dela ahal bezenbat eta ttipi-ttipitik. Hortan, arrunt zure ideiakeo niz. Beraz, zertaz ez naiz bada kontent, pentsatuko duzu? Berehala erranen dut.

Emaiten duzu etsenplutzat zure eskolako laguna Huguette, nola goizeko bi orenak artio batzuetan ar-tzen baitzen bere leizionen ikasten. Biziki ontsa, alo! Zer nexka seriosa eta langilea hura! Bainan, zertako hola ikasten zituen denak hitzez-hitz, gauaren erdia emanetz? Izpituaren argitzeko? Bazuelakotz bere baitan, profezurrek haurretan hoinbertze senditu nahi luketen, *l'amour de la culture*.

Berdin ba parte batetik, bainan, ene ustez gain-ganetik nahi zuena zen, lehen izaitea.

Zuhaurek erraiten duzu behin ziek hiru mutikoen gibeletik gertatu zelakotz, nigar egin zuela. Zer aiera hogoitamar batetarik laugarren izaitea. Denek balute xantza hori! Beraz, zertako egin zuen nigar? Ukan balu bakarrik estudioko amodioa, biziki uros behar zuen izan zerbait gehiago ikasirik; bainan segurrenik nahi zuen lehen izan. Zer urgulua!

Bainan zuk gaixo Jean, maite zinuen eta behin bederen erran hau: *L'amour est aveugle* untsa gerta dadila, haren lehen lekuaren amodioa ikusten zinuen estudiantzeko amodioa bezala.

Pollita zen bere bilo horiak tutulan estekaturik, berdin bihotz ona zuen, bainan estudaintek gain gaisetrik hastio duten taka bazuen eta ez zinuen ezagutu nahi. Izpiritua argi dezagun bakotxak guhaurentzat eta ez berzeak baino gehiago gure buruaren ezartzeko.

Maritxu Sariber

* * *

Maritxu

Pauerat abiatua nintzan gure Charles haundiaren ikusterat eta Baionan geldi arazi naute:

—Maritxuren letra bat!

—Maritxurena? Zer duzu, ideki?

—Ez zitela samur otoi!

—Ez —ihardetsi dut motz-motza, bihotza airean, begiak letrari sobera josiak.

Milesker Maritxu!

Ez naiteke geldi errapostu bat egin gabe, zuen izen pollitaz mintzatzeko baizik ez balitz ere! Maritxu ez da iduriz Garazin ardura gertatzen den izen bat, bainan sekulan Garaztar odola baduzu zainetan —nik bezala—, barkatu ez banitzauzu *xuka* mintzo. *No* erraitea ausartzia litake, eta *xu* erabiliz beldur niz bihotza sobera hunki nahi gabe...

Zergatik eta, ene lehen letran, hitz goxoak baizik ez baitituzu buruan hartu!

Huguette eman dut etsenpluztat, harentzat biho-tzetik bihotzerat doan amodio mikorik gabe.

Ni ere ez niz hitzez-hitz ikastearen alde —lehen alkiarentzat gutiago—. Beraz ez uste ukan Huguetteren ikas moldea onartzen nuela haren

amodioz. Gutti da eskolan egoiten *pour l'amour de la culture*. Bakotxak bere arrazoina badu ikasten artzeko. Menturaz Huguettek lehen lekua baizik ez zuen bilatzen? Berdin...

Bainan neska (edo mutiko) gazte baten karra, indarra, goxotasuna, bertutea, irria *maita* ditazke haren bihotza maitatu gabe. Huguettek ikasteko irakusten zuen borondatea nuen, lehen-lehenik, *maite* eta ez haren bihotza. Haren amodioak ez nu sekulan itsutu.

Sobera barnaki hartu ditutzu ene erranak, zure gogoan finkatua baititake *que l'amour est aveugle*.

Ez dakit zuk zer irakurtzen duzun eta ez nuke pentsamendu tzarrik egin nahi, bainan kontseilu bat eman. Sekulan Delly Max du Veuzy, Jannièrre eta holakoak irakurtzen baditutzu, gogoia ez zinuke zuk ere biziki argi. Ez dakit heien liburuetan hartua duzunez *un amour fatal, l'amour est aveugle* Heien hitzak dira ere *un amour mortel (comme une flèche)* Ez zazula holako hitzez zure burua beta! Ez dira serioski hartu behar.

Gaztek ez du holakorik erraiten eta hola mintzo balitz menturaz irakurtzale gehiago baluke!

Letra hau bertze adixkidek ere ikusiko dute, zurea ikusi duten bezala.

Hortan gelditzen niz. Menturaz, Donibane Garazin edo bertze nunbait egun batez hobeki elgar ezagutuko dugu eta herra mikorik gabe eskua tinkatuko.

Goraintzi, Maritxu!

Jean Etchepare

* * *

Jean Etchepareri

Jainkoari esker hondarrean zure errepostua eskuratu dut! Zonbait, harat-hunat egin arazi baitazkiat, jakin dutalarik egin zinuela errepostu.

Nola ni ere geldi zerbait erran gabe, zure kontseilu onaz erremestiatzeko baizik ez bada ere! Kontseilua arraroa da izan ahala eta beharrez segur izan zaite errotik segituko nuela, baina ez nuen beharrik. Gaiz-ki jujatu nuzu. Ez dut ez Delly, ez Max de Veuzy, ez Jannièreren liburu-rik sekulan andeatu. Hamairu urtetan nituen Dellyren liburuak maite, baina biz-pahiru segi-

dan irakurtu orduko, ase nintzala leporaino, jakiten ahal duzu!

Sobera fite jujatzeak ez du deus onik. Nahi dut tronpatu nintzan erraitean maite zinuela Huguette, bainan zernahi izanik ere banuen arrazoinik aski ikustearekin hartaz egina zinuen potret xarmanta erraiteko bazinuela *le béguin pour elle*.

Beraz ikusten duzu ez dutala izpiritua uste duzun bezain gaizki formatua. Ez! Izan zaite goste gostuan: beti bi zangoak lurrean gauza guzietan *bisean bis* so egiten dut eta ez jakinikan ere den amodioa, ez dut hartaz holako ideia ahulik. Hortan gelditzen niz, nahiz zure pentsamendua nitaz kanbia dadin.

Beraz, Trinitate Sainduko hiru presunen ize-nak ezagutzen ditutzunaz geroz, Garazi alderdi hortan nunbait elgar ikusten badugu plazer handia izanen dut, zuri esku ematea herra mikorik gabe. Eta ez uste ukan ene bihotza horren gutirekin hunkitua izanen dela. Ez segur!

Ikus artio.

Maritxu Sariber

ESKUAL LITERATURAREN BATASUNARI BURUZ X LETRAZ BI SOLAS

Geroa gazten eskuetan da. Lur huntako alde guzietan hitz hori daukate. Ezetz erran lezake-nak ez luke kopeta xarra!

Egia erran, mundu hau, egundainotik, buru beroen eskuetan izan da. Epelak eta uzkurak beti jarraiki zaizkote. Beren izaitea beti ontsa kausitzen dutenek ez dute gauza handirik egiten aintzinzatzeke.

Beraz Eskual literaturari nahi badugu bizi berri bat eman, eta horren medioz eskuara, gure mintzaira, xutik atxiki, ez dugu lokartu behar edo gibelerat so egon.

Ez du horrek erran nahi gure aintzinekoak bazterrerat utziko ditugula. Ez. Ez ditugu zahar gazten arteko lokarriak hautsi nahi ezdeus batentzat. Elgarren laguntzaren beharra badugu.

Haatik, ez otoi erran x traba bat dela haurrentzat. Zeren haurrari x erakusten bazaio,

haste-hastetik, ch letren ordain, haurrak onartuko du, amaren bularra bezain gogotik!

Eskual literaturaren batasunari buruz lehen-lehen lana: ortografiaren berdintzea. Eskualtzaindiaren nahieri errexki jarraik gitazke. Gure aintzinekoak berdin: borondate on poxi batekin.

Eskuararen batasuna ez badugu egiten, xahu gure eskuara maitea!

Batasuna! Batasuna!

Ez dugu uste ukan behar, bakarrik girela gu Frantzia aldean.

Eskual mundu handiago bat bada. Orok bat egiten dugula? Mintzaira da gure lokarri bakarra.

Horiek guziak politika usainik gabe. Ez ditugu literatura eta politika nahasi behar.

Eskuara bat da bere erroan. Bat bere izaitean. Sortzez bat.

Zerk hautsi du hastapeneko batasun hori? Ez dugulakotz egundaino batek bertzearen ezagutzatza ontsa egin? Bakotxa bere hezketan egonez? Sobera gurekoi girelakotz? Ez dakit. Eta ez niz gauza horren argitaratzen ariko hemen. Ez da ene lana.

Bainan eskuara bat da bere dialekta guzien-gatik. Bat bere funtsean, bat bere izaitean, bat bere izpirituan.

Zer dira letrak berenez? *Deus signes conventionnels* batzu baizik. Mintzo girelarik ez dugu pentsatzen hea holako hitzak zoin letra galdatzen dituen. Hitza hitz. Izkiriitzen ez dakienak ez du letren axola pikorrik. Alta mintzaira garbiz mintzo da. Beraz ez du izkiriitzeko moldeak hizkuntza baten funtsa edo izaitea aldatuko.

Eskuara eskuara izanen da beti, zeren mintzaira bat baita, mintzaira bat bere funtsarekin, bere izaitearekin.

Mintzaira bat ez da letra baten esklabo.

Ez du x letrak eskuara itzulipurdikatuko.

Makurrago dena, hitzen funtsaren galtzea, hala nola: Laborarisa-jauna, bi hitz horien harri-garriki elgarretaratzea!

Ez gira *Conventionen* esklabo.

Eskuara nahi dugu bizi dadin.

Horra zertako erabiltzen dugun x letra.

Pan-Pin eskuararen geroa!

Gazte eskuararen geroa!

Hau da x letraz ene lehen eta azken ateraldia. Funtsean ez dut holako haurkerietan galtzeko denborarik.

KORRIDAK

1.-Herria, 1960-Abuztuak-18

Baionako bestakari, aurtengo lehen korrida gaitza izan da. Plaza kaskoraino betea zen eta bat baino gehiago kanpoan gelditu da leku eska-sez.

Iruñeko *bandak* ere hor ziren dena musika, oihu eta dantza, lekukoen lagun.

Doña Maria Teresa de Oliveiraren zezenak ziren.

Luis Miguel Dominguín famatuak ez du espantu handirik erakutsi. Bi abereak nekez garbitu ditu, nahiz, anartean, lan onik ere egin duen. Egia erran, abereak asko banoak zituen eta ez ziren behar bezala lotzen. Jendeak Domingúinen gain ezarri ditu huts guziak. Plazatik atera da, gaizoa, oihukatua eta xixtukatua.

Curro Girón izan da hoberena. Lehen ukalditik garbitu ditu bere etsaiak. Banderillak berak ezarri ditu. Faena pollitak plazaren inguruan. Jendea alde zuen. Bi zezenetan lau beharriak

bildu ditu, segur eder baita. Norbaitek oilaxko xuri bat ere eskaini dio. Berekin ereman du.

Paco Camino, hemezortzi urte, gaitza agertu da. Segur badaki ontsa lanean. Jendeak maite du haren joko fin eta garbia. Lehenean bi beharriak irabazi ditu. Bigarrenarekin nekezago arizan da. Abere txarra zuen, baina ontsasko garbitu du halere lehen ukalditik. Ukan du esku-zarta! Norbaitek eskaini xahako batetarik edaten ikusi dugu, hain zen jendeaz kontent, eta jendea hartaz!

Laugarren zezenean mutiko buru-bero batek plazarat jauzi egin du bere balentrien erakusteko, kapa zahar batekin. Bizpahiru kapa ukaldi eman orduko polizak bildu du biligarroa!

2.—Herria, 1960-Abuztuak-25

Andredena Mari-kari korrida ederra egin dute Baionako plazan mementoko torero hoberenak: Dominguín, Ordoñez eta Cáceres, espñoia frango etorri da Baionarat Donostiako korridarengatik. Hor ziren ere Domingo Ortega eta Antonio Márquez torero ohiak eta Domecq ganadero famatua.

Plaza betea: hamabi milaz goiti jende! Arratsalde ezta. Urquijoren zezenak balio handikoak agertu dira eta toreroak nahiko lana egin dute. Piko bat edo bertze aski ukan dute zezenek indarren eztitzeko. Ez ditake ardura gertatu Baionako plazan korrida batean sei zezener hamabi beharri eta buztan baten moztea!

Luis Miguel Dominguínek hondarrek-aidian baino arrakasta hobea ukan du. Merexi zuen. Kapa lan ona lehen zezenarekin, bere egun handietan bezala. Banderillak berak ezarri. Estokada axal eman du eta zezena erori da. (Bi beharri).

Bigarrenean oraino hobea izan da. Bere nagusitasuna erakutsi du fini zela uste zuteneri. Zezena ontsa erabili du, zangoez ahulxko ere. Estokada handi bat eta bi beharriak eskuetan plazaren ingurua.

Antonio Ordoñez kapatzaile handia. Muletarekin, bereziki ezkeraz, joko pollita erakutsi du. Labur utzi du bere lana zezenak azkenean bere oldar guzia galdua baitzuen. Estokada bazter aire. Bi beharri eta plazaren itzulua.

Bigarrenarekin harrigarri izan da. Gozoki, nagusi handi batek bezala erabili du zezena,

adarretarik hurran! Urrunetik bultatu da eta ezpata erroraino sartu. Presidentak, bi beharriez bestalde, buztana eman dio saritzat. Ez zuen ohore txarra!

Oihu eta oihu, jendea ezin aseba baitzen, hiru toreroek batean egin dute plazaren itzulia. Jendea arras berotua zen.

Pepe Cáceres gazteak, hura ere norbait dela erakutsi nahi zuen. Eta handizki erakusterat eman du! Zezenari hurbil ibili da beti. Kuraia handia badu. Bera banderillero.

Jenden esku-zartek burua berotu dute. Oraino hobekiago egin zezakela erakutsi nahiz irris-ku gaitzak hartu ditu. Zezenak bi aldiz adarren puntan ibili du. Azkenean erori da eskuineko azpia odoletan. Halere behar bezala garbitu du etsaia (bi beharri).

Azken zezenarentzat maiguka sartu da plazan. Etsa-ia zango-besoz ahula zuen eta ez da espantu handien egiterat arizan. Lan on bat erakutsi du. Ez zezaken gehiago galda zezen horri (bi beharri).

Funtserat eta gaitzeko korrida. Menturaz aurtengo ederrena! Jendea zinez gustatu da. Afizio-

ne poxi bat dutenek egun hori ez dute ahanztekoa ukanen.

3.—*Herria, 1960-Irailak-1*

Dominguín Nagusi!

Laugarren korrida hunek bertze hiruek ukan ez duten zerbait gehiago bazuen: iguzkia. Iguzkia España zolako plazetan bezala. Halere lan ederra eskas!

Jendea beti berdin, azken maileraino metatua.

Arratsalde hau Dominguínen ohoretan izanda. An-dramariako korrida ederraren ondotik, arratsalde hun-tan eman duen erakaspenarekin, Dominguínek erran dezake oraino, arratsalde txar batez jendeari oihu egin omen zuen bezala —To! eta Agorrilaren zazpia!—.

«Bego ni lehen».

Buendarien zezenak zituzten aldi huntan, pizuak bainan oldarrez desberdinak.

Luis Miguel Dominguín izanda arratsalde huntako nagusia. Haste-hastetik esku-zartak bazituen: ederki errezibitu du etsaia. Zezena banoa zen eta besoz ahul. Nahi bezala ibilarazi

du kaparekin, lanjer handirik gabe lan pollita gostuan eginez. Banderillak ezartzean lurrerat igorria izan da. Plazaren erdian arizan da lanean, ezkerrez eta eskuinaz, pasa xarmantak eginez.

Ezpata erdiraino sartu du eta zezena erori da. Beharri bat ukan du.

Bigarrena ez zuen segur banoa! Eho bat bezala sartu da plazan, dena zaina. Gizona bel-durrez bezala zagon. Ez zakien xuxen hea etsaiak zer egingo zuen. Pasa batzu belauniko eman ditu, baitaki jendea horietaz gustatzen dela. Estokada handi batez garbitu du zezena; bi beharri ukan ditu saritzat.

Jaime Ostos nekez arizan da. Aberea ez zitzaion nahi bezala heldu. Oihal gorriari ez zen biziki oldartzen. Ezkerrez erabili du muleta.

Lau espata ukaldi eman behartu zitzaizko aberearen garbitzeko. Bazterrak ixilik!

Bigarren zezenak adar bat hautsia zuen bur-ladero bati kontra. Ez zezaken beraz lan handirik egin horrekin. Halere pasa pollit batzu egin ditu eskuineko adarrari biziki hurran. Ezpatarekin xantza ukan du.

Esku-zarta batzuegatik, arratsalde hitsa Ostosentzat.

Diego Puertak zezenak beti belauniko errezebitzen omen ditu. Bakotxak bere espantuak! Kaparekin arras hurran zabilan. Pikadorren ondolik, ahal zuena egiten zuen muletarekin, deus segidakorik gabe, hemen pasako bat, han bertze bat. Beharri bat irabazi du eta jendearen fago-rea.

Bigarrenarekin hiru pasako pollitak eman ditu segidan, muleta ezkerrean. Gero damurik zezena arras kostatu da eta ez zitaken gehiago deus onik egin.

Zezena nekez garbiturik ere, ukan du esku-zarta ederrik! Badakiela, animalia! jendearen biltzen belauniko!...

4.—Herria, 1960-Irailak-15

Aurtengo azken korrida eman dute Baionan hilabete hunen 4ean. Beti gaitzeko arrakasta eurixkarengatik.

Zezenak nahiz ez ziren hain pizuak, zain eta izaite onekoak agertu dira. Lanean arrarazi dituzte segur gizonak.

Luis Miguel Dominguín lehen zezenaren bihotzaz baliatu da kapa eta muletaz faena arin eta goxo batzuen egiteko. Jendea loriatua zagon. Bainan etsaiaren ontsa garbitzeko ukan ditu lanak: sei ezpata ukaldi. Eta, jendea oixtiko lan ederra ahantzirik oihuka hasi zaio. Badu jada holako ikusirik Domingúinek.

Bigarren zezenean jendea berriz bildu du ezkerrez eman pasako fin batzueri esker. Zezen ona zuen, lehena baino bizixago. Bi beharriak irabazi ditu aldi huntan.

Jaime Ostosentzat arratsalde gaitza izan da gaur. Etsai bortitzenak zituzken. Behar bezala jokatu da lehenarekin. Ukan du begi eta bihotz. Jendea ikaran zagon eurixkaren pean. Hondarrean ikaragarri ederki garbitu du etsaia. Jendea esku-zartaka jauzi da Ostosek bi beharri eta buztan bat eskuetan plazaren itzulia egin duelarik.

Bertze zezenarekin berdin ederki arizan da. Pasako batzu ezinago eder eta gustagarriak eman ditu. Jenden esku-zartek eta musikak burua arras berotua zioten. Bi beharriak eskuetan bi itzuli plazaren inguruan.

Paco Caminok lehen zezen bat ukan du arras nahi bezalako. Kaparekin ez du, egia erran, lan handirik egin ahal ukan. Bainan muletarekin lotu delarik etsaia ezagutua zuen ordukotz eta lan ona erabili du gero. Ezpata bietan sartu du eta beharri bat ukan.

Azkena nahi bezala erabili du. Beldurrik gabe ari zen. Pasako andana bat pollita erakutsi dauku. Jendea erotua zen. Aski errexki nagusitu da eta bi beharriak ereman ditu aldi huntan.

Funtserat eta arratsalde ederra Don Grazilia-no Pérez Salamankarraren zezeneri esker.

5.—Herria, 1961-Abuztuak-24

Sei toro Paco Caminorentzat

Paco Camino gaztea buruz-buru artzekoa zen Diego Puertarekin Baionako plazan. Bainan hau bezperan kolpatua izanki Donostian, Caminok nahiko ote zuen sei zezenen aintzinerat agertu? Bai, plaza-gizon gisa, ez da lotsatu eta bere egin ahalak egin ditu.

Hamar bat urte bazuen ez ginuela holakorik ikusi: orduan Luis Miguel Dominguínek sei zezen bakar-bakarrik toreatu zituen Bordelen. Eta arra-

zoinekin, Paco Caminok ere Dominguínek bezenbat egin nahi! Ez da nornahi mutiko txar hori, ez da deusen lotsa! Ez dute so egilek aurten beti hola gastatu.

Maria Teresa Oliveiraren zezenak banoskoak ziren bainan Caminoren lana ez dute halere sobera neketu. Lehenak salbu, bertzek ez dute gaztigu handi beharrik ukan oldarraren eztitze-ko.

Peonak kanpo emanik, berak hartu ditu bitxo guziak toriletik atera orduko. Lekuaren gainean kaparekin pasa andana pollitik erakutsi dauku.

Lehen zezena ontsa erabili ondoan, estokada hede batean bi beharri irabazi ditu eta zernahi esku-zarta.

Ontsarizan da bertze biekin eta behar bezala garbitu ditu.

Laugarrena biziki banoa zen, lekutik ezin higiaraz, eta Caminoren arratsaldea histerat zotan.

Bosgarrena labur utzi du. Gizonak akitzen hasia iduri zuen.

Bainan azkenarekin errege izan da. Zezena belauniko errezebiturik, gorputzaren inguruan

airoski ibilarazi du. Ezpata ondoraino sarturik, jende guzia lorietan zagon.

Eta bi beharri eta buztana eskuetan plazaren itzulia egin du Paco Caminok arratsalde guziko ohorea biltzen zuela.

Artetik, Angel Peraltak zezen bat ontsasko toreatu du zaldiz. Bi beharri ukan ditu saritzat.

6.—Herria, 1961-Abuztuak-31.

Bi beharri eta ohorea.

Laugarren korrida hau Baionan, ez bada ere beharri eta buztanez saristatua izan, ez zen batere enoagarri han milaka bilduak ziren soegilentzat.

Urquijoren zezenak arras bortitzak ziren, adarrak luze eta burua arin.

Bainan lehen biak pikadorek xehatu dituzte eta azkenean ez zitaken heiekin deus onik egin oihal gorriari oldartzeko indarrik ez zuten eta toreroen entsegu guziengatik mutur egon dira. Xixtuak ukan dituzte pikador horiek.

Arratsalde hitsa Ordoñezentzat. Lehen zezena arras hila zioten beraz pikadorek eta berehala garbitu du. Bigarrenarekin lan ederra egin du,

zonbait esku-zarta ere bildu, bainan gero gaizki hil.

Curro Girón eta Pepe Cáceresek pasa pollitak eman dituzte, nahiz, ardua berreatuak, eta horiek ere hil-tzean errebes agertu dira. Halere bedera beharri bildu dute.

Ainitzi ez zazkoten bi beharri horiek aski eta zernahi esku-zarta eman dituzte.

Banderilleroek ontsa egin dute beren lana. Girónek berak ezarri ditu banderillak.

Hastean Peralta bi anaiek gazitzeko ohorea: jendeari biziki gustatu zaio zaldiz toreatzea.

Funtsean eder da ikusten zoin trebe diren. Bi beharriak moztu dituzte.

ZORIONA

Gau ilunari
zerua izarretan da.
Itzalpetan gaindi
eskuz-esku dabiltzan
maiteari
xoriño bat bada
bihotzetik bihotzera
kantari.

Xoragarri
bihotzaren eleak
maiteari.
Ez du goxoagorik
bizi guziak
ametsetan baizik.

Munduko solas ederrenak
maiten bihotzetan dagotzi
betidanik
ehortzirik
maiteak maiteari erranak.

Maitek bakarrik dakite
gordatzen
gizon samurren begietarik
ixil-ixila
zoriona.

Itsasoa kexu
ta zerua ilun
maiteak uros izanen dira
beti
maiten bihotzetan baita
zoriona.

«Irria» izeneko beste poema bat ere bazuen portugesezik itzulia antza. Hemen aldatzen dugu:

IRRIA

Irri batek lan guti, ondorio ainitz,
Ukailea du aberasten, emalea biluzi gabe.
Laster iragana, betikotz emana,
Ez da aski aberatsik, gabe bizitzeko,
Nehor aski pobre, eman ahal gabe gertatzeko.
Irri bat akituaren eztingarri, etsituaren bihotz
altxagarria,
Dolutan denaren goxagarri,
Nahi gabe guzien sendagailua
Ez ditake eros, ez mailega, ez eta ebats.
Emaitean du hartzen bere balioa.
—Hartze zinuen irriñoa ez dautzute eman, emo-
zute zurea.
Irri egiten ez dakiena, irri beharretan beti.

Zure irriak zonbat irri ditu egun sorrarazi?
Irri horiek dute salatuko zonbat bozkario, zorion,
goxotasun,

Kuraia eta fidantzia duten sor arazi: horiek baiti-
ra frangotan

Obra miresgarrienen eta egitate ederrenen
haziak.

Zure irriak bizi berri bat sor araz dezake,
Esperantza eta kuraia eman ditzazke, eroriak,
lehertuak, akituak, tentatuak edo
etsituak ziren bihotzeri.

Zure irriak fedearen pindarra jauts araz dezake.
Zure irriak bekatorosa Jainko bidean sar araz
dezake.

Irri ere Jainkoari...

Irri Jainkoari, bihotzetik onartuz Harek bizian igo-
rri guziak,

Eta egun batez ikusten ahalko duzu Kristoren
begitartea

irriz zuri so eternitate guziko.

[E.B. Portugesetik]